


J
59











A.T.V.
1869





Saudade Balia

ONSA HILCECO BIDIA



N. 10092
R. 4488

ONSA HILCECO BIDIA

IVAN DE TARTAS

ERRETORRC EVSCARAZ EGVINA

Orthecen... 1666.


Seconde édition de ce livre basque de J. DE TARTAS, curé d'Aroue, suivie
de notes biographiques, grammaticales, lexicologiques, etc., par M. J. B.
— Darricarrère.

(Extrait de la *Revue internationale des Études basques.*)



PARIS
HONORÉ CHAMPION, ÉDITEUR
5, QUAI MALAQUAIS, 5 (6^e)

—
1914



ONSA HILCECO BIDIA,

IVAN DE TARTAS ARVECO
ERRETQRAC EVSCARAZ EGVINA.

MONEINECO IAVN MARQVIZARI
DEDIKATIA.

Notam fac mihi viam in qua ambulem.
Psal. 142.



ORTHECEN IACQVES ROVYER, Erregu
eren Imprimaçalia baitan, Biarnon, 1666.

GOMENDIOSCO LETTRA

Barcoïcé, Domicigné, Lohitçuné, Mitrigna, Amenduce, Ispoura, Larçualé, Sarhia, Caldia, Carressa, Hauta-arriua, Peyra, Gayrossa, Arbuzé, eta Moneigneco iaun Marquizari.

NEVRE iaun Maytia, eta ohoratia, bi soldado pobré heldu dira aroetic bartcoitçera, curé iaureguy ederrian, curé iccusteria curé visitatçera, eta beré cerbutçu humilen, çuri ohoroşcatçera. Bi soldadoac dira, bi ayta semé, ny nuçu ayta, eta librutobat eguin baitut, onsa hilçeco bidiaz, hora duçu ené semé haur çurtça, ama gabé aitaganic sorthia.

Cu iauna baitçira oró hon, eta generoz, içanen çira hementic harat, ené semé haur çurtçaren aita, eta ama bictaric, eta bare çuri, nor bada, deus valio badu, beré aitaren, eta beré cerbutçiac rendatuco drautçu leccu orotan hambat fidelqui, non hari beha baçité, eçarrico baitu çure arima, curé etsay visiblé, éta inuisible ororen despit, ceruco gloria eelrnalian.

Cuberoac, Biarnoc, Bassanuarrec, Lapurdic, Françia oroc aithortçendu, cu iaun handibat, Baroin handibat, Marquis handibat çirela, curé içena, curé aippamena orotan ohoratuda, orotan onqui gin da baina ené soldadoac plaçer baduçi iarraioui harén hatçari, haren herechari, egünen çitu erregué çelian, egünen çitu etçiren, beno iaun handiago, eta emanë coroabat aingutriena beçain ederric.

Ené soldadoa ezta oraino batheyatu, haren vgazaita behar duçu içain plaçer baduçi, ohore hori çuc eguiten badroçu, curé içenaren, curé

armen pian, norén beldur içanenda ? harén contré, norc çer erran-nendu ? norc çer eguinendu ? ibilicoda buria gora euscal herri orotan, çuc solamenté eguin badiçoçu so hambat, eta beguitarte hō, herri mundu guçetan curé amorecatie honqui gin içanenda.

Ené soldado deuotac badu berequin laur compagnia, edo laur reguimendu, baina ezta oraino generalic, cu iauna içanen cira haren armadaren generala, eta manaqalia curé pian eguinendu ené soldadoac behar dena oro, Ifernuo portaliae cerratuco dira, iferniarens despit, eta paradusocoac çabalduco çuri, hari, mundu orori, haren ondoan loanen diren guçier.

Alexandré, Cesar, eta bertçé antiquitatian içan diren Capitain handiac, etçiren hain bertçé ohoratu, maylatu, beré demboran, nola cu içanen baitçira glorios, eta triumphant, bai çelian, bai lurrian, soldado haur curé baduçu hér, eta haren armada, deuota nic esperança dudan beçala, onsa gouernatçen baduçu ber.

Curé etchiac, curé familiac dicha, fortuna honadu egundanoz gueroz, (3) ezta oraino hil Tristant de Moneing Guyenaco Gobernadoré, eta Lotenant General handy harén memoria, istorian agueridira, harc resumari rendatu çutian cerbutçu handiac, Henryiçen hartaco bi garrenarén demboran, istoria minço denian gobernadoré handi, harcätz, dio, TRISTANT DE MONEINS, SAGE ET VAILLANT CHEVALIER ; ezta içan iagoyti nehor eré hambat regretatu, eta deithoratu frāçian, nola iaun handy hura, erreguec ençunic haré hil çiarén berri tristia, igorri çian beré hala, Anna de Montmorency Frāçiac Connestablia, eta Duc d'Aumale, bata lu idorrez, berçia itxassoz Bordelera, hoguy mila guicconequi, eta han mendecatu, punitu gobernadoré handy harén hilçia hambat rigorosqui, non ezpaita moyenic letra hontan eçar ahal decadan punitioné iusto haren handitassuna. Nahidianac iracurtu historia, edirenendu arresta haren hilçalen contré emana, eta icossicodu iaun handy harén valioa, meritia, eta erreguec, harén hilçiaz, hartu çian regreta, eta desplaçera.

Ezta hil oraino Valentin de Domesaing, de Moneins, iaun handy, Capitain çuhur, coraios harén memoria actioné ederric, eta sainduriç egindu harc eré, Charles Frāçiac erreguec içen hartaco bederatę garrenaren pian, elica saindiaren, beré resumaren beré erreguiaren, bere herriaré aldé eta fauoretan, erciaren, eta huguenauten contré.

Gueroz eta lehen içanda curé familial personage handiric, Frāçian, Italietañ, Biarnoan, euscal herrian, Moneineco içena gora eraman dianic. Historia iracurtu nahidianac, edirenendu guehiago laudario curé etché ohoratiaren antiquitatiaz, eçiez nic ezpainiro erran, neuré iaun ohoratia letra hontan.

Ezta hil, Tristand d'Vrtubie, eta Clemant de Moneins, curé aita, eta aita handien memoria batac eta bertçiac, norc beré demboretan, beré (4)

erreguen, beré resumaren, beré herriaren, ohoriagatic, beré honnetaric parté honbat volontario beçala, emplegatu dutiela, nore eztaqui ?

Curé personan, launa curé aiçinecoen ohoria, vertutia, coragia, eta içena biçida, eta lincoac emayten badrauçu biçitcé luçé curé meritiac, consideratu, diren eta ené othoyciac exauditu, esperança diçut curé familiaren armac, emendaturen dutuçela Françaco Mareschal baten maquilaz, arté hartan, launa, gomendatzen drauçut ené libriarén laur regimendiac, goberna itçatçut beharden beçala eeguinan behin curé cabinetian sarturic eguię beguitarté, eta so hombat, edirenendeu han curé arimac, behardiana oro, onsa hilceco, bidé hona ; horida çeruco resuma handiarén ardiasteco, remenio handia hara helçeco espiritu saindiac argui deçan eta illumina curé spiritua, badut hain bertcé borondaté eta passioné, nola nahibenitz içan hobiala drano, inclinationé, eta respectu ororequin.

Curé cerbutçary humblia, eta obedientia,

IVAN DE TARTAS, Arueco Retora.

Eguinda Aruen

Auerduaren.

[5]

IRACCVRTCALIARI.

NEVRE, adesquidia, igarén vdan egun batez nangoela çuhaincé batén itçalbian neuré orenen errayten ninçala, loac harturic, eguidut neuré loan ametz handibat eta misteriosbat, iduritçen çautan neuré ametsian, iccugen niala guiçon eta cinazté tropelabat goiti çelurat igaiten, eta bertcé tropelabat oraino handiagoric beheiti ifernurat ioalten eta eroten, gendé hec consideraturie batçiac gora, bertçiac behera ioalten çirela, oihu eguidut, eta heiagora orori, çer çen causa, edo çergatice, baitçiac goiti bertçiac beheiti ioalten çiren : bere hala heldu da, botzbat çelutic eta emandu errapostu botçac ené oihia, eta heiagora ençunie, gëde hetaric partebat goiti çelurat ioalten çela çeren beré herioaz, eta bere hilçiaz mundu hontan ordu honetz orhituric, eta herioac beccatu mortalic bateré gaberic, gratiazco estatian atrapaturic, lurretic partitçen baitçiren ; eta berçé parté guehiena beheiti ifernurat ioaité çirela, çeren beré herioaz, eta beré hilçiaz asqui ordu honéz orhitu faltaz, gratiazco estatutic campoan, herioae beccatu mortaléz betheric atrapaturic, lurretic partitçen baitçiren hargatice çirela galdu, eta damnatu.

Loac eta ametsac, eta ametsaren errapostiac içituric, eta lotsaturic, iratçartu ninçä, eta hartu lumá escúra euscaldunen fauoretan euscaraz porogatçeco, onsa hilceco bidia dela, herioaz, eta hilçiaz ardura orhitçia, eta salbatçeco eztela bidé hoberic mundian. Edireneng duçu laur capitulu ené liburian, lehenian porogatçendut paganoen erranaz, bi garrenian,

legué caharreco escritura saindiaz. ; Hirur garrenian legué berriaz, eta eliçaco doctor saindiéz, laur garrenian laur arraçoin differentéz, onsa hilceco bidia dela herrioaz, eta hilçiaz orhitcia.

Ené triuaillu appurrac eztu meritatzen cuc phena hardeça cun haren *Irraccurgetco*, baina çure salbamendiaren amorioac, eta desirac, eman derauté coraie, haren camporat idoquiteco, eta hari arguiaren emaiteco.

Ené euscara, eta lengagia eztaquit aprobatia içanen denéz, bai, ala ez, badu orotaric çerbait, çuberoae, Bassanuarrec, eta lapurdic eman-drauco çerbait, baina ez oro ; aruen egindut neuré pieça pobria, hanco lengagia ezpada asqui eder, hanco euscarac, du oguena, eta ez euscal dunac.

ONSA HILCECO BIDIA

Deus honic ené libria ediren badecaçu, ohoria, eta laudarioa emaçu lincoari, eta ez niri, ezta niganie heldu hontarçuna, baina bai, lincoaganie, *omne datum optimum, & omne donum perfectum de sursum est, descendens à patre luminum. Iacob. 1.*

Ezpada deus honic, erraçu libriaren, eguiiac baçiala borondatia onsa eguiteco, eta lanaren mensa, eta falta, reparatzen eta desençusatzen diala, languiliaren, intentioné, eta borondaté honac, *voluntas dantis reparauit paruitatem dati.*

Ohoratzen baduçu çuré approbationiaz ené pieça mendria, eta eguiten çure arimaren profeitia, haren *Iraccurçian*, norc çer pagu, eta recompenzu handiagoric nahidu mundian ; lincoari othoy eguinendut biçi niçan egunetan çuré hilçiaz lurrian orhituric, sainduqui biciric, eta sainduqui hilic, mundu hontaric landan, çeluco resuma eternala eman diçaçun. Amen.

[7]

GVC pian signatu guir én Theologinec, fedé eguiten dugu Iuan de Sansons Oloronaco guré iaun Apescupu Reuerendissimo eta Illustrissimouarén manus irracurtu dugula libru haur çoin baita titulatu bonsa hilceco bidia, Iuan de Tartas Arueco Iau eretorac composita,

çoinetan ezpaitugu deus eriden fediaren contré, baina bay lehenago iugeatu profeitablé içanen dela imprimá badadi, egunda atarratçen auentian hamar guerrenian vrthé contatçen denaren 1657.

A. DE CONGET, Atarraçeco Erretor, eta çuberroa herrico Vic. Generala,
eta Officiala.

B. IAVREGVIBERRY Idauzeco, eta mendico Erretora.

[8] **G**VC beherian firmatiac iccussy dugu, eta iraccurtu liburubat çein minço baita, eta eracusten baitu euscaraz onsa hilceco bidia, Juan de Tartas Arueco Iaun eretorac eguna : çoinetan eztugu erideiten fedé Catholica, Apostolica Romanuaren cõtraco gauçaric, bana bai gauça proboxosic bat bederaren ieincoarén beldur saindian bici araqiteco, egun hidera eracarteco, hartan bada, han exequiteco, eta arimaren salba mendiaz orhitaraçiteco. Horregatic iugeatçendugu merechi diala arguira ialgui : Vtziaten egunda abenduaren sei garrenian, mila, seietan ehun, berroguei eta hemeretçi garrén vrthian.

D. IRVMBERRY, Vtziateco Prioria, eta Aquíceco
Vic. Generala, eta Officiala
Bassanauarren,

Ce 6 Decembre 1659.

[9] **I**Cussiric ongui hilceco bidiaz minçoden liburubat IOANNES DE TARTAS Aroñeco Iaun Errectorac euscaraz eguna, Eztugu deusic caussitu fedearen contraco denic: aiteiticán dugu iuiatu bidé hombat beçala dela Christinoaren vertutean auancaeracileco, baita ongui hilceco dispositçeco : hartaracotz mercéidu lehen bai lehen imprimadain ; Egua honetan emandugu guré signadura orçaiçen vtaillaren lehenian 1665.

IOANNES Bajonaco Apespicua.

Vscal herriac Tartas
Lauda doctor handia
Euscaldun oroc harçaz
Dugu libru hautia
Sainduqui biçiteoco.
Harc doctrina saindia
Celurat ioayteco
Emaytendu bidia.

[10]

Iuan de Baguarie Camblonque,
eta Susmioco Retora.

ONSA HILCECO [11] BIDIA

CAP. I

Notam fac mihi viam in qua ambulem. Psal. 142.

SOLINVS erromeco istorian obatec dio bere libruan bertçe ordus erramen bertçé gauça ederren artian bi templa, edo bi eliça, cirela çointaric bata baitçen templum virtualis, bertatiaren templia eta bertçia templum honoris, ohoriaren templia, bi templa honrac manera eta, guisa hartan ciren fondatiac eta bastitiac non impossiblē haiçen ohoriaren templian nehoursse sar ladin, ezpaladi behiri sar, eta iragan bertatiaren templatic. Erran nahi çian autor harc, etçela iagoiti içan eguiazeo ohoré solidoric, bertutiaren moyenez; espaliz ardiatsi, irabacy, eta aquisitu, eta ohorez bethé, eta aberatz hilteçeo, behardiala, nehorc biçi mundu huntan, aberatz bertatez, eta bertalia posseditu triuillez, doloréz, penaz eta tormentuz. Ezta ez iaquitia, doctrina acquisitçen, bonatheran aurherquerian, ohé hounian ezti qui, eta plaçenqui lo eguinie, pausatçian bena aquisitcenda triuallu handiz,

[12]

beillaz, esquier thu equinez, eta gauaz cadelaren vrrina bestiac lo dançala, hurrupatçez, dio poetabatec ederqui.

*Non iacet in molli veneranda scientia lecto
Ipsa sed assiduo parta labore venit.*

Ezta halaber hiltçe honic, ezpada, biçitçe honic, onsa hil nahidenac, behardu onsa biçi.

Bekhatoria eta bekhatoressa çier minço niz, neuré buruari, eta mundu orori, euscaraz egui dudan liburuto hontan, eta diot bi templo hetçaz, endelgatçen dela guré biçia, eta guré hilçia, sartçian biçion hantic ialquitian, hilçen guira, batetic ialquitia, da, bertçian sartçia biçi guirela, hilçen guira, eta hilçen guirela biçiguira nolaco baita goure biçia, halaco da gouré herioa, gaixto bada biçitea, gaixto daté herioa, hounbada biçitcea hondaté herioa, eta gouré Jaincoaren çorbait miracuillu handiz campoan, gaixqui bicitçen denac Iaincoaré eta eliça saindiaren manu saindien contré, halacoac, eta alacoc, beharduté fingaitz egui, peritu, eta damnatu, hala nola Iaincoaren, & haren eliça saindiare maniac beguiraturic hilçé denac, eta hiltçé direnec beharbaituté finhoun egui, Iaincoa icoussi, eta haren gloria eternalian saluatu, erran dian, beçala, sã Augustinec, *vix potest bene mori qui male vixerit*, & *vix potest male mori qui bene vixerit*. Nequéz onsa hilçen ahal da, gaixqui biçi içan dena, eta nequéz gaixqui hilcenda onsa biçi içan dena.

[13] Ené adisquidia saluatu nahy baçira, othoy beha çaquicat, eçarrico çitut bidé honbatean eta bidé harc guidatuco çitu chuchen, eta segurqui paradussiaren erdiala, bidia da chuchen, segur, houn, asqui aisa, eta ez hanbat gaitz eta ez hanbat khechu eré larrayqui çité, eta segui eçaçu ené lumaren herecha, eta hatça, çoaça aytçina, aldebaterat, ez bertcerat, ezquer, ez esquin makurthu gabé, eta edirenren duçu bidé harén burian hilçé höbat, eta haren ondouan Iencobat çuré ayduru coroabat esquian, çuré recompésatçeco proméz emayten drauçut aingurié eta guïconen'aitçinian, lenco aren parthéz, eta ené ohoriaren gaignian ené errana egua frogatuco duçula, éta ezpada hala, érraçu mundu orory, affroturbat niçala guïça gaixtobat niçala, aphéz gaixtobat niçala eta ené libruto honec, eta nic merechy dugula suhandibatean biçiric erra guitian.

Sobera egon enadin çury erran gabé, çerden ené bidia, ene secretu handy hori, eta ené gogoa pundu handy, eta important hontan, saluationesco eguitecoan, eta halaber enuya eçitian, iaquin eçaçu, saluatçeco bidia dela ardura hilçiaz orhitcia, herioaren beré beguien aytçinian eta bihotçaren erdian iossiric, eta ezquiribaturic eduquitia.

Saluatu nahidenac, behardu onsa hil, onsa, hil nahidenac, behardu

onsa b icy, onsa biçi nahi denac, eztu behar bekhaturic eguin, bekhaturic ez eguitecotz ardura behardu herioaz, eta beré hilçiaz orhitu.

Hilçiaz orhitcia dela eguiazco bidia saluatçeco, ahal beçain labursqui, eta clarqui nahidut frogatu laur guisaz, eta laur moldez, eta laurac oro esperança dut arcordu honbatetan içanen direla ené pensamendiaren mundu gücier explicatçeco, eta ené intentioné hounaré euscalduner, particularqui çuberouaco herrian ené adesquider, endelgaraçiteco, combat handiden ené desircundia, eta borondatia, ororen hilçé honaren, eta haren ondouan, ororen saluamendiaren icousteco.

[14] Lehen guidamendia, eta lehen escola emanenduté bidé hontan, paganoec, antiquitatian biçi içan diren, gendé prestuec.

Segonta emanendu escritura saindiac, hanbat legué çaharian, noula berrian, iracourtçen dirén passagé sacratiec.

Herena emanenduté, doctor saindiec alegatçen dutien autoritaté saindiec.

Laur guarrena emanendu araçoignac, hortic, hebetic, pundu hontara, iustoqui eta apropos hedatçen, eta iuntatçen ahal denac.

Ené adesquidia, bekhatoria, etçituala othoy offensa, ezteçaçula othoy, aldé gaitçera har, eneganic eta ené lumaganic ezpalin baduçi ereçebitçe balacuric, edo lausencurie, laur pundu hoyec acaua artia, eztiroçu ençun bertçé, içenic, bekhatoria, eta adesquidia, baiçy, eguiñ eçaçu possiblē bada çuré profeytia libru hontan icoussiren, edo ençunen duçun conseillu hounez. sarcité bidé hontan lehen, beno lehen, eta curé vrhatxetan etçituala enuya, bidiaren bazterra, azquen termaguia, eta chedia icousartian.

Philippus, Macedoniaco erregué handi harc, egunbatez victoria han-dibat irabaçy çian, athenasaco hiriaren contré, çoin baitçen greçiacò eresumaren hiry capitala charona deytatten çen hiriaren ayçinian, eta gueroz hantic harat, princé çuhur harc, beldufrez, vrguillia, vanitatia, eta superbia haren espirituaren, eta harén hunaren guehyen guerta litian, mundian çen goiz oroz argui puntan iguzquiaren ialquitíari, eracarten çian beré pagetaric bat beré ohiaren aitçinera eta pagé harc bere salutationian lehen hitçac erraiten çutian erregueri, erregueren manuz, guisa hontan, *O rex memento quod homo es, & mortalis es.*

[15] Erregué, iratçart-çité, eta orhit çité, guiçon çirela, mortal çirela, hil beharduçula.

Bekhatoria non cira pagano harc etçian legueric, federic, euangelioric, ez iencoric ala beina egunian behin nahiçian ençun hil beharciala.

Cue aldiz hayetaric orotaric baituçi eta elia saindian biçi baitçira beldurnuçi sorthuz gueroz hil artian, beharden moldian, eta forman behin eré çuré herioaz, eta hilçiaz, orhitu faltaz, miserablequi biçi baitçira eta çuré çecuria carreyatçen, çuré orena gin dadinian, desoho-

[15]

Phodiginus
lib. 49. cap. 33.
lectionum
antiquarum.

rez, eta confusionez betheric, miserablequiago hil citian eta damna.

Alexandrē handiac Philippus haren semé digniac, lausencu, flateria, eta balacu handiric erreceuitçen çian beré demboran, bere gorteco courtisan, eta charlatanen ahouetaric, eta hayen escriuietaric, oroc errayten çioten ichilic, eta aguerriz, immortal cela Ienco bandien arraçatic, eta odoletic, hayen saheix eçurretic ialquiten cela, eta Iupiter bait çen Ienco ororen guehiena, haren semé propia, eta naturala cela hambatoqui herioua baitçen bertçé guiçon ororen guehien, eta Iaun, bere armac haren contré, galtçen çutiala, hora cela guiçonen erreguia, eta herioaren nabussia eta launa.

Bena egunbatéz hiribaten escaladaz hartçeco, armadaren burian, murrailian gora igayten cela icoussiric matraz oucaldiz çaurturiç, eta colpaturic, odola vherraz eta churrutaz beré gorputzetic çouela, oihu, eta heyagora handibat eguin çian beré courtisanen contré, guisa hontan, *Omnes me filium iouis esse prædicabant, sed hoc vulnus me hominem esse clamat.*

A l traidoré falsiac, eta trompurrac, oroc çinéz eta goraqui cantatçen çunien ny immortal ninçala, eta Iupiter Ienco handiaren semia ninçala, bena ené gorpitzeço çaury honec eta colpu honec, çien erranaren contradio, eta eracoustendu garbioui mundu ororen aitcinian, ni eré bertçé guiçonac beçala, mortal niçala, miserablé, eta heriouaren suiet.

Bekhatoria, princé pagano gaztehaten, çouignec aguiyan ezpaitu ouquen, ez lehen, ez gueroz, beré coragian laguniç, ez pareric, erranaz, eta aitormenaz, egüineçaçu çuré probechua aguiyan edo mundiac, haraguiac, deabriac, aberaztarçunec, eta çuré voluptaté saxuec itxuturie, inganaturic, eta trompaturic, eztuçi nahi sinhetxi badela hilçeric etá herioric, edo sinhetziric eré badela, iduritera emaytenduçi çuré obra gaixtoez eztuçula sinhesti badela, bena ezteçaçu dudaric har baduca eta behin beharduçi hil, eta hilez gueroz, orhitcile badela mundu hontaric landan, bertçé mundubat, çountā seculacotz, edo paradusian Iencoarequin, çuré arimac behar baitu huros içan eta plaçer hartu, edo infernian seulacotz demonio ororen compagnian, damnatu, erré, eta higatu eduçaçi hori gogoan, eta herioac bekhatian etçitean surpreni, hartçaz, ardura, disgraciän bereré, incontru gaytçetan, malhurretan, eta aduersitatetan bereré orhoitçitéz, onsa haren moyenez biçitçeco, eta onsa biçiric, onsa hiltçeco.

Aristotesec hiltçian, historiac dio, regret eta doloré handirequin discurs eta propos labur, on, eta eder haur eduqui çiala beré adesquider.

Fæde in hunc mundum intraui, anxius vixi, perturbatus egredior, quod vadā nescio, ens entium miserere mei.

Theihu, eta saxu mundu huntara gin niz dudatan biçi içaniz, oro

khechu eta nahassi ialquite niz, norat noan estaquit, içaté ororen iactia, pietaté, eta misericordia nitçaz eguiço.

Bekhatoria behaçité hitz hoyer, igusquiac iagoyli lurriä ikhussi diä guiçonie sauätenac, eta subtilenac erranae ditutę, philosophiac beré princé eçagutu diçu, antiquitatiac harén esquiribiac admiratu citiú eta adoratu quasi, oraico demboran gue eré haren espiritu ederraren inuentioné ederrac ohoraturic, nigar eguiten diogu haren azquén fin mal hurré sareñ deithoratzet et doluz, çeren behar et çirenac sobera estudiatus, eta behar çirenac ez asqui pherechatuz, eta contemplatuz naturaren secretiac sobera bessarkhatuz, eta naturare authora, haita lenco bakhoitça, eta lenco biçia, hari asqui amorio, eta adorationé eman faltaz, miserablequi galdu, eta peritu içan baita, Considera eçaçu personagé handy hura beré paganismoan, sortçetic, hil artian, herioaren beldurrac, beré ariman, beré od olian, eta beré heçurretan, harritçè, eta ikharatçen çiala, eta quasi oren oroz, herac hilçian ait-hormen eta confessioné eguiçan beçala, herioaren Icieriac, eta aprehensioniac, iuiamendia nahassiric, eta cordocaturic, beré sensu onetic campoan eçarten çiala, eta ecarri çiala, eta Aristotesen escolan, çein içan baitçen Alexandre handiaren nabussi eta gobernadoré, ikhasse çaju lectioné eder haur, herioaren beldurra, hantic ikhasdeçaçun onsa biçitçeco bidia, hura baduçu asqui duçu hura gabé bertçiac oro guti valio, bat mens, oro mens, manqua vno, manqua todo, ciòcu Espagnolac, escola hartan lectione on hori, har hadeçaçu gogoan, herioa içanenduçu çuré muthil eta çu haren laun, eta ez herioac çu, bena çuc herioa, inganatudoçu, eta trompaluco.

[18]

Platon diuinoac, Aristotesen nabusi handiac, çein batere paganoetan saluatçecoz, arau baitu, eztela galdu, hitz bakhoitz batez, guré bidia combat eder den errandu, eta colpu bakhoitz, aiz cora colpubatez beçala, bidé huntaco naharrac, caparrac, eta ilhorriac trencatu ditu, eta bidetic akhaçatu erran dianian ederqui, eta çuhurqui.

Summa philosophia, est mortis meditatio.

Philosophia, prudentia, çuhurtçé ororen guehyena da, herioaren meditationia, herioaren memoria, herioaren beldurra, eta hartçaz orhitçia.

Erran nahi du çuhur hare, bericé iacquitiac, eta doctrinac oro eder dirala eta on, bena bateré ez hanbat, nola hilçiaz orhitcia, oroc presuna, çeintaq erideiten baitira, ornatçen, eta ohoratçen dutiela, bena batec ere eztiala guiçona eta emastia hanbat edermenez, graçiaz, eta bertatez bethatçen nola herioaren miraill batetan beçala bere beguien aitçinian, eta bihotçaré barnean eduquitiac, ororen beharrena, eta necessarioena

[19]

dela herioaren memoriaren fresco eduquitia, mundu guçier, ohorian eta gratian biçitceco, eta hiltceco.

Bekhatoria, çuc eta nie asqui ohoré eta auantailla guindikheçu lurriä eta ceruan, çuhur onen conseillu çuhurra bessarkhaturic, guré esperituari, eta guré urimari bertcé hazcurriric, ez bazcarie, ezpaguendeça eman herioaren imaginaren eta figuraren bazca ona eta bazca saindia baiçy, onza biçiren denac, eta onsa hillen, behardu çuhur ican, eta çuhurtçiaz amurus eta iagoiti guïçona, ez emastia estira çuhur, eta çuhurtçiaz amurus, ezpaduté herioa gogoan : halatan onsa biçi, eta onsa hil nahidenac, hauta beça eta conserua herio beré bihotcean, herioac herioa bihotcetic idoqui artian.

Bekhatoria pagano çuhur heyen erranac, itçul inguru, gora behera gauaz eta egunaz çuré gogoan erabil içaçu eta passeysa, lotzatu ez enuyatu gabé hala eguin badeçaçu herioac çuri eguinendü, belçauri, eta çuc hari beguitarté, eta guero çuré azquen orena heldu denian, Iencoac çeruá çuri erranendiü vngui gin eta eguiñen beguitarté.

Ep. 89. Seneca handiac dio ederqui, *moriuntur ante te vitia*. Çuré bekhatiac, eta çuré vicioac hil bité cu baino lehen.

Epist. 6. Eta bertcé lekhu batetan erraitendu harc berac *ante Senectutem curaui, et bene viuerem, in senectute, et bene morerer*.

[20] Neuré gastelassunian, egundut neuré eguinahala oro çahartu, eta vrdintu ninçanian, onsa biçiten ikhas neçan amorekhatic, eta guero çaharçian onsa hil nandin, eta fin onbat eta hurusbat eguin neçan.

Philosopho sauant harc berac dio oraño berçé Iekhubatetan, herioaz, minço delaric :

Epist. 24. *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vita.*

Egun guçiez hiltçen guira, egun oroz guré biçiareñ partebat, loaytenda, trenkhatçen, eta laburteñ.

Epist. 13. Senecac oraño continuatçendu, eta erraytén materia harten berian, *Quid autem est turpius, quam Senex viuere incipiens*. çerda mundian hain desarauiic, hain dishonestic, hain estrangeric, eta itxussiric, nola guïçon çaharbat, churituz eta vrdinduz gueroz, akhabatu behardianian, hasten denian biçiten. Erran nahidu onsa biçiten.

Malhur eta desastré handia heltçenda guïçonari, eta emaztiari, beré çahartçian edo beré gastelassunian beré azquen orenian, hiltçen denian beré bekhatia, quitatu gabé, bekhatiac hora quitatçen dianian harc bekhatia baino lehen, çeren guïçona, eta emaztia hilic eré, bekhatia ezpaita hiltçen biçirie baratçen baita, eta arima gaichoari bertcé mundian guerla eguiten baitio.

Eta nola deabria, eta bekhatia, biac baitira khasi bat, bata aytá, bertçia semia, bata ama, bertçia alaua, bata acia, bertçia bibia, arima gaichoa Iencoaren tribunal handiaren aitçinera presentatçen denian,

aita semé gaixto hec elkharrquin iuntatçen dira arimaren contra età sathan hastenda ordian guisa huntan Iencoari minçatçen. Ieincò handia, età Ienco iustua, justu çiren beçala eguiçu iuslitia, misericordiac estu hemen lekhuric, arima hau enia da, norc berea esta sobera, hau esta curea, bekhatiac hau quitatudu, baina hunec ez bekhatia vrguillia hemenda, auaricia, paillardiça, adulterioa incestoa, sacrilegia, arne-guiac, hordiqueriac, ohoifñqueriac, gormandiçac, età bertçé bekhatiac hemen dira, horiec oro dira ené gëdiac, ené soldaduac, ené semiac, ené allauac, horiec dira ené coloreac, ene liureac, halatan arima gai-choac, Iencoia, eta haren parabisua gallduric, ifternu barnera behardu Ioan eta seculacotz ioaiten da.

[21]

Bertçé aldé fortuna handi bat eta auantaill handi bat ardiašten du guionac, eta emastiac, noiz eré aumens hilcian beré bekhatia arnegaturic, eta hari renunciaturic, beré arima Iencoari, doluz eta cōtritionez betheric errēdatçen baitu, çeren halacoaré bekhatiac oro barkhatçé, ecestatçé, deseguiten, eta hiltçen baitira, *quo ad culpmam*, (saltem) culparen respectus hereré, combateré, *quo ad panam*, penaré respectus batçuetá ezpaita barcatçé, eta pana hanc, edo mundu huntan, edo purgatorioan behar baitu complitu, eta satisfatu, barkhamendu edo justificationé admirable hori eguitenda bekhatiaz bekhatioriari, eta bekhatoressari eliçan Iesuchristoc ordenatu dutian sacramendiān moyenez particularqui penitentiazco sacramendiaren vertutez, ceiñec significatçen baitu, cōteritçen, operatçen eta emayten, gratia iustificantia, arimari, hiltçé, eta cassatçen bekhatia, handic, *obicem non ponentibus sacramenta noua legis, ex diuina institutione conferunt gratiam ex opere operato*, errayten dian beçala, theologiaren maximac, legué berrico sacramendiāc emayten diala Iencoaren gratia haren beraren ordonatçaz, Iesuchristoren odol preciaturre vertutés eta meritus bekhatore orori, hayetan ezpada fallaric, Iencoia bera delaric gracia haren causa lehana età principala, causa meritorioan Iesu-christo haren semé gugatic guicon eguiña, causa instrumentalia età morala sacramendiāc ministria eliça guicona, eta halaber sacramendu haren lehen materia età campoticoa, guré bekhatiac, materia propia, età naturalia, barneticoa penitentaren hirur actac, contritionia, confessionia, età satisfactionia, forma aldz, apeça, baita Iencoaren ministria, hanc beré ahoaz errayten eta pronunçiatçen dutian hitz sacramentalac.

[22]

Ordu harten arima bat bekhatiarén estatutic jalquiric, sartçen da gratiaren estatuala, deabriaré presundeguietaric deliuraturic, gueritatçen Iencoaren alaua, età estatu harten arima hura mundu huntaric partitçé denia, sathanec estu harten eskhuric ez çuencie, hiltçé da itxutçé da, gortçé da, mutulçen da, estaqui Iencoaren aitçinian arimaren contra cer erran, estu deüs ikhusten, estu deüs entçuten.

Eguia da immortal dela beré naturaz, eçin hilçen dela, eta eternal eré dela beré içatez, à *parte post*, combat eré ezpaita eternal à *parte ante*, çeren demboran creatu içan baita, baiña hil baliz beno aboro arima gratian partitzen denaren contra Iencoaren aitcinian esta aguertzen, eta aguerturic eré, hilbaliz, beno haboro, estu indarrie, ez botereric. Horren arro çoiña clar da, cerē arimabat gratian douenian, haren bekhatiac deseguiñ dira, hil-dira, itho eta hondatu dira orachian, erraiten gundian beçala, penitentiazco sacramendian, vnçi itkurri eta piscina saceratu haren, çolarie eta ondarrie eztian, çolan eta ondarrian.

[23] Halaco guisaz eta moldez noiz, guré bekhatiac liren ordian haiñ gorri, nola eskharlata, eta haiñ beltz nola tindia, haiñ garbi eta churi guertatzen baitira itkurri saindu hartan nola baita churi eta garbi bortuco elhurra, eta ilhe cotoin churia erran dian beçala espiritu saindian, Prophetaren ahotic. *Si fuerint peccata vestra ut coccinum, quasi nix dealbabuntur, & si fuerint rubra, quasi vermiculus velut lana alba erunt.* Eta halatan deabruac ordu hartan estu eskhuric ez çuñenic, bekhaturic esten lekhuan, hambatequi arima hura Iencoaren da, eta desohoria eta confusionia sathanen.

Bekhatoria, desastra handi haren euitatçeco, eta auantaill eder horien posseditçetco Senecaren aisu ona harturic, hil bité çuré bekhatiac ordu onez çu baiño lehen, *Moriantur ante te ritia. Ep. 89* Gasté çireño hascíté ordu onez obra onen eguiten çuré çahartçian onsa continuaturic, onsa citian orhit çité itxussi dela çahar artian alfer egoitia, bilhua vrdindus gueros escolara ioaitia, bertciac oherat doaçenian lo eguitera, anhartian lo egonic lanari lotçia eta trauaillaçen hastia. Orhitçité ené bidian sartçera ordu onez çuré herioaren consideratçera, hala, eguin badeçaü çeruco, eta lurreco Ienco çuré aldé içanenduçu, çeruco Ainguerauc çuré Ainguera ona çuré obra onac, çuré concientia ona, Ainguerauen eta giçonen Erreguiña Virgina gloriosa IESV-CHRISTOREN ama, Cerua eta lurra, oro çuré aldé içanen ditutu iffernua baiçic oro çuré aldé iarrico ditutu, hec oro çuré aldé badira, nor içanen da çuré contra.

[24] Naflarroaco historiā Fräciaco Auocat batéz escriuatuā edirete, da nola Charles Due de Bourbō, Prince hadibatec, çerbait hostassun edo ressendimenda beré Princé, eta Erregué naturalare contra harturic, çein deithatçen baitzen François, içen hartaco lehena, armac harén contra harturic, Charles-Quint, Espaiñiaco erregueari eta beré Erresumari eguiçiala, hañitz okhasionetā eta cōbatetan, noiz hurus noiz malhurus içanic, nola armac, iocoa beçala, behin bataren guero bertciaren contra, eta alde baitira, fiñean Pauia deithatçen den Italiaico hiri haren aitcinian, Françiaco Erregua. Batailla generala galduric harti içan cela Espaniarat Madrillera eramā çiala etxayac, eta handic

beré bi semiac presoner vteiric, eta guero rançoiña pagaturic, semiac eta beré buria handic libraturic, eta guerlac moyen hartçaz beré siña oukhenic, azquenian Charles de Bourbò Erromaco hiriaren harçian morroillan gora ezpata escuan igaiten cela, colpez hil içan cela, dio historiac eta haren gorputça eayeta daritçon, Italiaco hirian ehortzi çutela, eta haren thombaren gaiñian epitaphio eder hau lengoaya Italianoz esquiribatu çutela.

Francia mi dio la leché
Espaigna fuerça, y ventura.
Y Roma mé dio la muerte.
Cayeta la sepultura.

Erran nahi baita euscaraz guré lengoagian,

[25]

Franiac emandrant eznia,
Espaignac Indar, eta ventura,
Erromac herioa,
Eta Cayetac sepultura.

Bekhatoria, considera eçaü othoy cer erranen den Cutaz eta nitaz guré ondoan, guré ondocoec erranenduté, non sorthu guiren, nola biçi içan guiren, cer eguindugun, eta nola hil guiren, guré biçian, eta guré hilçian e guinditugun actioniac, edo onac edo gaixtoac, içanen ditutu guré iugiac, edo ceruan, edo Ifernuan errecompensu, edo punitione emaiteco, edo batera, edo berleera condénatçeco; orhoit çaité munduco onetarie, estugula deus eré gurequila eramanen guré obrac baiçy, onac, edo gaixtoac, khanabat, edo bigua lur, athonrabat, eta mihisseat hursbat edò biga, içanen direla, guré azquen onac, gure possessioneac, eta guré thresorac, handic harat guré gorput ça Ioanen dela, chicharië tripara eta lurthuco, eta herraustuko dela, eta guré arimaren ostatu cerua, edo Ifernua içanen dela eta haren ostatu lagunac edo demonioac, edo Ainguerauc içanen direla, gratian parti badadi, lencoas segur, bekhatian hadoa deabrua harençat, infaillible, eduçaü hori gogoan, hiltçiaz orhitçité eta çeruco Ienca baita çuré Prinçia eta Erregué naturala, eta legitimoa, haren enseignen eta mandera pian çuré armac soldadu onari emanden beçala, carreya itçaü, haren fauoretan eguiñ çäü guerla gauaz, eta egunaz, Prinçé trompeur eta falso hari cein baita sathan, hala eguiñ ezpadęçaü Iaquíñeçaü oray, eta guero, herioac çuré arima, çuré gorputçetic separatu dian beçain fité, chichariec çuré gorputça lurpiian Ianen dutela, eta deabruec çuré arima ifernian.

Paganoén artian Franciaco Prinçé Catholicobat ekharridut astez, neuré òsa hilçeco bidia akhauatçen nuyan lehen capitulo huntan, eta vstez paganoer ohoré eguin nuyan, Prinçé Francés bat emanic, beré compañian lagun. Baiña oraño ondar huntan, bigua edo hirur besté paganoren erranac hiltçiaz, ditçagun escriua, eta guero goaçen fité

[26]

bigarren capituliaren ikhustera, eta iaquitera cer dioten ené bidiaz escritura saindian irakhurtzen diren passagé sacraties.

Armenia, Macedonia Anderé handi batec, mundian çen goiz oroz beré bilhuac, irez ondoan, herhaustatzen çutian, herhautxbatez, çein baitzen hillen heçurretarie eguna, eta hori eguitian cian anderé harc herioaren markhac, seiñaliac, eta haren necessitatia, beré bilhoetan, beré béguien aitçinian, eduqui leçan.

Vlpianus, bertçé Iaun handibatec, beré armentan, eta deuisa orotan eduquitzen cian paon bat, çeignec soguiten haitçian beré hoiner, haren pia hitz hoyec ezquiribaturic, neuré miseria contemplatzen dut.

Archesilaus Medaco Erreguiac, bertçé Coroaric beré buruan etçian nahi eçarri lili, eta floquez eguinie baiçy, bere buruari representatçeco, lurreco Erresumac, hiltzen, galtzen, eta deseguiten çirela, lilibaten paré, eta nola lilia, eta floca, egumbatez iguzquiac sortçen, eta hiltzen, ikhusten baiçutian hala hala Erresumac eta handitassunac peritçé cirela.

[27] Pelocidaz Erregué handibatec, beré lepoan behera egun oroz, ampollabat ekhartzen cian vrkhaturic beré aitçinéco Erregué hillaren heçurretaric herrautxez betheric, orhoitçeco hura beçala, lur çela, eta herrautx, eta harc beçala lurthu, eta herrrastu beharciala.

Bekhatoria, has, eta akhaua eztuzu édiren bat ené bidian libru huntan, nic içendatu dustadan paganoetan, non eztian hartu, herioaren memoria, onsa hiltçeco, erremedio segura, bidé onà, eta chuchena ; eta bidé hau bera, que eta nic ezpadecagu ordu onez eduqui miserabliaç gututu eta galdiac, curé eta ené reprochia eta punitionia hañdiago eta grauiago içanendu eçiez pagano hayena, çeren hayec ezpaituté leguerie, ez federic, eta guc bay, halatan siñhetxi behardiagu, guristiño gaixtoa Iesv CHRISTOREX religioniaren contré biçi dena, eta diabru beno sordeich dela paganoa da leguerie ez federic eztiana : eta christigno gaixtoac, Iencoaren eta eliça saindiaren manien contré biçidenac estu federic, çeren fedia obra onac gabé fedé hillada, hala nola, fedia obrac gabé, dio londoné lakhubé Apostoliac, *Sicut corpus mortuum est sine spiritu, ita fides mortua est sine operibus.*

Halaber errandu ederqui bertçé doctor handibatec, *Vera fides Christiani est Christi mandata seruare, nomen sine re, & officio suo nihil est.*

Eguiazco christignoaren fedia da Iesv-CHRISTOREK manien beguiratçia, içena, gauça içana gabé, eta beré eguin bidia gabé, ez deusbat da.

Halatan behkatoria, çu eta ni pagano gututu Iencoaren contré Ibil-
[28] tzen guireño, eta oraño pagano banor sordeich, çeren daquigularic leguea, eta leguiaren defensa, ezpaitugu beguiratzen, ez bata, ez bertçia eta hartan baitugu erakhusten guré malitia, eta guré bekhatia handiagudela, eta crimenelago hayena beno, dugularic legué ona, eta legué

saindia, guihaur beiquiria leguiaren beguiratçale gaixtoac, erran dian beçala aitçineco doctor berac libru berian.

Kn hoc magis culpabiles sumus, si bonam legem colimus, & mali cultores Isdem eodem lib.
simus.

Mehatçhu hori bera, eguindu guré salbatciliae guri orori, *Qui nescit voluntatem Domini sui, rapulabit paucis, qui autem scit, & non facit eam, rapulabit multis.*

Luc 12.

Beré launaren berondatia eztaquianac, gastigu, eta punitione arhiña, eta simplia vkhendu ; bena daquianac beré launaren borondatia, eta hura ez complitçen, halacoaren gastigua, eta punitionia, handia içanen da, eta graué.

Paganoac estaqui launaren borondatia, eta debetia, eta gue bay ; hambatequi guehiago bekhatu eguiten dugu. Paganoac eztaqui paillardiça bekhatu dela gue bay, çeren leguiac erakhusten beitraucu, *non mechaberis : eziçala paillard, eti Apostoliac ere dio, Concupiscentiam nesciebam nisi lex diceret, non concupisces.* Esnaquien concupiscentia cer erran nahi çen, leguiac ezpalu erran, ezteçala desira iniustoqui.

Rom. 7.

Erran ahal dirogu bekhatoriaz, aithortçen, eta eçagulçen diala lencoza zpaiñez, eta mihiáz solamenté eta beré obrez vkhatçen diala Apostolu berac dioena : *Confitentur se nosse Deum, factis autem negant*

ad Tit. 1.

Legui irakhourtçen dugula, eta ez beguiratçen, *Legimus legem, & non facimus eam.*

[29] Rom... ?
(illisible)

Eta lekhu bereä apphalago : *Quid gloriaris in lege, per præuaricationem? legis Deum in honoras nomen enim Dei per vos blasphematur inter gentes?*

Traidoria, eta malhurusa, leguiaren haustian çergatic vrguillian eta vanitarian sartçen çira leguiaren lencoza desohoratçen duçu eta lencoza ren içena çietçaz gentilen artian blasphematuric guertatçendu, minço çen bertçé orduz Apostolia, Christiño gaixtoer, eta egun, çuri eta niri, bekhatoria.

Ibidem

Conclusionia eman eçaü lencoaren contré bekhatian biçi guireno pagano guirela, eta pagano beno sordeich edo gaixtoago guirela, çeren hare eztaqui çer hariden, eta çue bay, hare ohoinqueria, debekhu dela, estaqui, gue bay ; harc estaqui heriotçia, bekhatu dela, gue bay ; eta ignorantiac hura baitu desenkhusatçé eta gu iaquitiae condénatçen.

Haboro diot demonio guirela, eta sordech, obra onac vtçiric, bekhatian biçi guireno.

Demonioac dian malburric handiena gratia galduric, iffernura eroriz gueroz, da, iossiric, itçaturic, eta obstinaturic baitago beré malician, eta gaixtkherian, halaco moldez non épaita possible, diuerti, eta separa ahal dadin beré obiectoaganic, behin hartçaz hautu, eta electione eguiñez gueroz, behin besarkhatu dian gauça, eçin quita baitiro, eta behin quittatu dian gauça eçin bessarkha baitiro, hala dio San Thomas

[30] D. Tho.
cf. 64 ar 2. Doctor Angelicoac. *Voluntas Angeli adhæret obiecto immobiliter facta electione, ita ut non possit relinquere quod amplexa est, nec amplecti quod relinquit.*

Psal. 37. Psalmista Royalac eré hori bera erraiten cian : Iauna curé extayec bethi hastio cutié, eta hayec curé contra duten maliçia, bethi gora doa, hauda deabruen obstinationearén lehen causa.

Superbia eorum, qui te oderunt ascendit semper.

Segond causa da, guré Iencoac hayen conuersioneari beré gratiaz eguiten dian vkhua, eta erreffus iustua, cére baita iustu, conformé, eta eman Iencorén decreto eternalari ; Ainguero gaixtoc, eta arima gaixtoc behin damnatuz gueroz, Iencoac hayer eleçan eman graticar, itçulçeco penitentiara, eta conuertiturie saluatçeco, hau da segond causa.

Heren causa da çeren iusto baita, eta guré Iencoac iustuqui iuiatu baitu, Ainguueruen faltac eta bekhatiac, elitian barkha ez erremeti, faltetan eta culpan, eroriz gueroz, baiñan liren iagoiticotz irremissible, eta irreparablé hala nola, iustu baita guiçonen faltac, eta bekhatiac elitian barkha, ez remeti, hilez gueroz, hala dio San Damascenec, *Hoc est hominibus mors, quod est Angelis casus, seu lapsus.*

D. Dam de
fide Orthod
cap. 2.

Bekhatien barhamendiaren respectus Ainguueruen faltac, eroriz gueroz, eta guiçonarenac hilez gueroz, orobat dira, bardin dira ; errayten balu beçala hala nola guiçonac hilez gueroz beré bekhatien barkhamenduric ecin baituqué, hala, hala, Ainguuerac eré eroriz gueroz eztuqué barkhamenduric, hau da demonioaren obstinationiare heren causa.

[31]

Halatan segur da, bekhatoria çu eta ni, eta gu beçalacoac bekhatian iossiric eta obstinaturic egoyten guireño, obstinatione haren respectus, deabru, eta demonio guirela hargatic guré Iaunac, çuri eta niri eta gubeçalaco demonio harritu gogorri oyhu, eta heyagora eguiten cian, *Ierusalem, Ierusalem, quoties volui congregare, & sicut gallina congregat suos pullos, & nobisti ?*

Act. 7.

Ierusalem, Ierusalem, eguin ahala çembait aldyz eguindut çuré biltęco, eta enuçu entçuen etciñen nahi gin, oilloac bere vmeac eta chichac edo chitoac, hegualetara beçala, nic eré çu nigana bildu nahi cintudan, bena ené deiari eta ené boçari gorrarena eguindu, guré Iauna berac errayten cian indu gaixtoc, eta hayen personan guri orori, *Vos spiritus sancto semper resistitis, harritu gogorac espiritu saindiari guerla, eta resistentia bethiere eguiten duçié.*

Iacob. 2.

Hambatequi bekhatian harrituric perseueratçen duguño demonio guira, deabru guira.

Hartan guireño demonioac baiña gaixtoc guira, sordeich guira : sathanec nola beré döuetaric ezpaitu deuseré galdu Iencoren gratia baicic badu fedé eta sinhestendu badela Ienco bat, eta oraño badu eré

Iencoaren heldurra, haren icenaren aippatçiaz, eta entçutiaz leku orotan lotsateē da, eta ikharatçen, hala dio Apostolubatec, *Credis quia unos est Deus, bene facis, Daemones credunt, contremiscunt, & ingemiscunt.* Sinhesten duçubadela Ienco bat, onsa eguitendu, demonioec eré baduté sinhesté hori, ikharatçen dira, nigar, eta cincuri hari dira. Halatan, bekhatoria, behaçaçu, deabruac badię bi gauça fedia, eta heldurra, çuc eztuču bathaiči fedia solamenté estuču, heldurrie çuré fedia eré fedé hilla duču hambatequi diabrua baiňo sordeich cerela vka diroču.

[32]

Hargatia spiritu saindiac erraytendu, *Vtinam aut calidus es, aut frigidus, nunc autem quia tepidus es, incipiā te euomere ex ore meo.*

Apoc. 3.

Nahinuque bero içan çine nit Christino ona beçala, edo hotz paganoa beçala, baiňa çeren eppel baitçira, ez hotz, ez bero, ez pagaño, ez Christino, neuré eçagucetic, cein baita emaiten aditçera ahoaz, hassi-conuču çuré egoixtera eta accatçera.

Bekhatoria bertçé capitulia hassi gabé conclusioné huntas othoisten citat etciren pagano edo sordeich, et çiren deabru edo sordeich, ené bidian sar cité, orhíticité hilçiaz *Memento mori.*

Neuré adisquidia heldurniča çuri eta niri guertha daquigun Pharaō Erregueari beçala harc Moiseren, eta Iencoaren populiaren contra çuela Moisec eta haren İēdeec itxasso gorria, bi partetara erdiraturic hayer passagé emaiteco, itxassoa iragan çuten oiňac busti gabé Pharaon aldz beré gendé ororequin itxassoaren erdian itho, edo hondatu, ikussi çuencā Pharaonec itxassoarē erdira çenian itxassoco vra elkharganan iuntatçen cela oihu eta heyagora eguin çian : *Fugiamus Israelem, Dominus enim pugnat pro illis, contra nos.* Goacen, ihessy guibelerat, Ienco guré contra da, bena berandia cen, çeren vrac elkhargana bilduric, Pharaō, eta haren gediac oro erraden beçala galdu, eta peritu çiret, hala dio escriturac, *Fugientibus illis, sed accurrerunt aquæ, & inuoluit eos Dominus in medijs luctibus.*

Exod. 14

Hala, hala, bekhatoria herioaren orena heldu denian, oyhu, heyagora çuc eta nic eguiñen dugun ; dugun Ap-heça ! dugun Fraidia ! dugun Confessione ! dugun Sagramendia ! dugun Espatio ! dugun termiňo penitentia eguiteco baiňa miserabliac, eta galdiac gu, heldur nuču eztugun vkhene Ap-heçic, Fraideric, Confessioneric, Sagramenduric, Espatioric, Termaiňoric, ezten içanen penitentia eguiteric, ez lekhuric, eta herioa çunçurretic lothuric, deboilla guitçan, eta lahardeca, Iesvs erran gabé, herioaz orhitu faltaz, eta gorpilçac eriden beçaiň lité beré ohia ilherrian, arima gaichoac, ediren deçan beré sepultura iffernuan Ienco misericordiosa, othoy hantic beguira guitçaçu.

[33]

× ×

ONSA HILTCECO BIDIAREN.

BIGARREN CAPITVLIA.

Capitulu huntan frogatçen da Escritura
saindiaz, legué çaharraz, onsa
hiltceco bidia, dela hiltciaz
orrohoitcea.

Ecles 7.
[34]

ESPIRITU saindiac emaytendu manu, eta conseillu onbat mundu
orori Salomon çuhurraren ahotic, erran dianian, *Memorare nonis-
sima tua, & in æternum non peccabis!* orhitçité çuré azquen orenean
helduco diren gauça berriez, eztuço iagoiti eguiñen bekhaturie.

Nouissima hitz hunec significatçen du herioaren orena, eta manatçen
du bat bedera hartçaz orhit içatera, edo oraño significatçen du, arima
galdien penac eta supplicio eternalae, ceintara, demonio ororen com-
pañian condemnaturic ioanen baitira hillez gueroz, herioac bekhatalan
attrapatçen eta surprenitçen baditu : edo significatçen du arima huru-
saren eta salbatiaren felicitate, eta contentamendu aternalala, ceintara
segurqui eta infailliblequi sartuko baita çeruco Erresuma handi hartā,
Iencoaren gratian mundu hantaric partitçen balin bada oraño signifi-
catçen du iuiamendu particularra, noizeré arima bat gorpitzetie ialqui
den beçaiñ fité Iencoaren Tribunal iustuaren aitçinera presentatçen
haita eta han Iuié iustu haren aitçinian, haren obra onac, eta gaixloac
oro examinaturic, eta balentça batetan, beçala onsa pissaturic, gorpitça
lurrera baitoa, eta arima edo Iencoarequië Ceruco gloriara baitoa,
edo seculacotz iffernura demonio oroquin condemnatçen baita, hori

da iuiamendu particularra ; erran dut iuiamendu particularrean Arima badoala, edo Parabissura, edo Iffernura ; ceren Purgatorioa baita heren lekua, hara Ioanic eré, segur baita, handie dembora complituri parabissura Ioanen dela edo endelgatecen da, nouissima hitz hartçaz, iuiamendu generala, noiz eré azquen iudicio general haren egunian, IESV-CHRISTO guré Iauna ginen baita hillen, eta biçien iuiatçera, eta orori oney, eta gaixtoey, gorpitz arimey, errecompentxaren, edo punitionearen emaytera, oney parabisua, eta gaixtoey Iffernua, Ceruare eta Lurraren aitçinian, eta Aingueruac egonē baitira Iugé haren aldian inguru, inguru trompeta soñuz onen aldé eskuñian, eta gaiztoen aldé ezquerrean berecirie eçarten, eta guisa harta mundu visible eta vniuersal hunec, beré azquen fiña, eta azquen corsua vquenen baitu, horiec dira, nouissima, hitz hunez endelgatu behar diren gauçac, eta horietçaz orhit guiten, dio Salomonec, bekaturic ez equiteco, onsa biçitceco, eta onsa hiltçeco. *Memorare nouissima tua, & in aeternum non peccabis.* Orhitçité hiltçiaz, eta iagoiti eztu egunen bekaturic.

[35]

Gauça segura da, eta duda gabia, guiçonac, eta emaztiac gogoan ardura eduqui badeça, beré Arimaren, eta Gorpitzçaren separationia, mundu hunen azquen fiña, eta akhauatça, lencoaren aitçineā Arimaz eguiñen den iuiamendu particularra gorputçaz, eta Arimaz azquen iudicionian içanen den iuiamendu generala, Iffernuko pena aeternalac, Parabissuco placeras, eta deliciac, eta mundu hunen galtçia, eta deseguitia, iagoitic, ez batac, ez bertçiac, eliroitē lencoia offensa, ez bekaturic egun.

Hambatequi bekatoria saluationezco equitecoan, nahi baçira behatu Salomoni, hiltçiaz orhit çité, eta onsa hijtçeco bidé hoheric, iagoiti eztirotu ediren.

Nahidianac fructu onic ian eta goçatu, heldu denian çuhaintçian den leccurat, lurrian çuhaintz haren pian diren frutietaric, eztu hartçen, ez iaté çuhur bada çeren communsqui lurrian diren frutu onac, gaixtoac baitira, eta hirotiac, eta ez bateré naturalac, baiña soguitendu goiti, eta çuhaintz haren gaiñian diren frutu on, fresco, delicatu, eta khirestu eztiren hayetaric iatendu, eta hayetçaz beré ahoa, eta beré estomaca rescatçendu, alegueratçen, entertenitçen, eta assetçen.

[36]

Mundu hau, çuhaintz handibat idurida, haren pian diren frutiac, oro khiretxu, corropitu, satxu, eta poçoatu dira, hetarie ian badeça, galdu, cira, hil cira baiña eguię so goiti, cu haintçé baren thima, baita Cerua, hantie hartça, nahi ciren beçambat frutu hayec emanen drauejé goço eta çaporé onbat, ianago, nahiago, curé arima appetitua corrozturic guelditucoda, eta goço onian ediren du beré assia, eta beré assian goço ona, frutu delicatu, eta admirablé haren esparätcac,

Psal. 16. eta desircundé handiac, erraneraçι çian Dauid Erreguiari, *Satiabor cum apparuerit gloria tua.* Iauna lurreco frutieç eçin assetçen nuté, baiña çuré gloria behin ikuhs badeçat, ordian ené arima, bethe, assé, eta complitu içanenda.

Coloss. 3. Eta nola Ceruco onac eta frutiac baitira aldé orotarie on eta segur, hala hala lurrecoac dira aldé orotarie falso, flaco, eta trompur, hargatic errandu Apostoliac, *quaes supra sunt sapientia non quae super terra,* gogoa eman ecajé lurreco oney, eta frutiey, ezteçaçielä hayetarie ia, baiña eguiçié so goiti, Ceruco oney, eta frutiey, eta hayetarie ian ecajé. condatçenda Mithridates Ponté herrico Erregué handibat beldurrez beré Erresuman, edo campoan, combait traidoré gendé gaixtoc poçoaturic hilleraçileçaten inuentatuçiala, eguin, edo eguin araçi ciala contrapocoa admirablé bat, poçoa ororen contré erremedio bat, ceini eman baitcian beré içena icena, eta deitha erraci, Mithridata, eta mudian çen egun gutiez, beré Mitridat hartarie, iaten, eta erreçebitçe ciela, beré bihotçaré, poçoa ororen cōtré azcartçeco, eta segurtatçeco, eta nola Erreguiac, hala nola, nor nahiden, fortunarén iocoaren eta errortaren pera noicic behin, errorten ahal haitira, egun batez, Erreguégaçoa guerlan, erori cela Erromaco genden, beré exayen escura, eta nahigabez desohoré hura beré personan ikhussi, non ororen mirail, eta ororen hirrigarri, Erromaco hirian Captiuo eta presoner estecaturic, eta trocaturic sarladin, beré hala, harti ciala, eta ian, ediren ahal cian poçoaric bortitçena, eta biciena, vstez herac beré buria hilen cian, baiña aurther eta inutila içan çen, Erregué haren insseia, çeren, nola haren bihotça lehen mithridat contrepoçoa hartçaz ezcartu baitcen orduco pocoa harc, combat ahal baitçatequian azcar,, eta violent etcian vquen asqui indar haren contré, hari biciaren edequiteco, eta hala Erregué miserablé harçaz exayac eguin cian plaçer ciana.

Bekhatoria, othoy, egüñian behin hassiric çuré gastetassunean harrecaju contrepoçoa huntaryic, eta hartçaz çuré Arima azear eçaçu eta bazea, eta segurtacité hala eguin badeçaçu ezticula iagoiti bekhaturic eguiñen, *In eternum non peccabis,* eta hambatequi onsa hilen cirela cerén çuré arimaren exai gaistoeç, emanic eré hari poçoa, ezticu vkhenen indarrie haren contra poçoa harc hari edequiteco gratiaren bicia, haren barnian den, mithridat, contrepoçoa eder, oneta haitu hura dela causa, ceiñ baita, herioaren memoria, hiltciaz orhitecia.

[38] Lactant. lib. de ira cap. 13. Naturalistec diote Vipera, dela Sugué mota gaixtobat, Ceiñec beré aussiquiaz Gendiak, eta Animalac poçoaturic communsqui hiltgen baititu, eta haren aussiqui gueixtoaren sendotceco, eztela erremedio hoberic, edo contrepoçoa seguragoric, nola, Vipera, Sugué haren beraren herhautsa. Suguiac behar diala erré, eta guero herhaustu denian, non eré baita çauria, eta aussiquia, han eçarry eta applicatu

Suguiaren herhautsetic, eta çauria, eta mina, quand & quant sendotcen direla.

Neuré Adesquidé maytia, nabi ezpaduçu Deabru Sugué gaixto harc curé Arimari aussiquiric, edo çauritic eguin diçon, educaçu curé bihotçaren cäberan, herioaren herhautsa, estuçu perilic, minic eguindieçaçun behkaturic eguin baduçu, Sugué harc, Deabriac, aussiquiric, curé Arima çaurtia bada, herioaren herhaussetic emä eçaçu appliça eçaçu miñari, eta çauriari, ené gain, çauria, eta miña ezpadite bertan sendo bekhatian bacira, hantic ialguiteco, bekhatian ezpacira, hartara, ez crorteco, Ceruco eta Lurreco Barbaree, estute edirenren erre-medio hoheric, çuri emayteco, nola baita herioaré herhautssa, hiltciaz orhitecia.

Hargatic Salomonec berac, nola iaquintsun baitzen officio huntan, eta baitçaquian Arimen onsa sendotcen, eta eritctic beguiratcen, errandu ederqui, eta çuhurqui, guré aiteiñian hil denaren personan, *Memor esto iudicij mei, sic erit, & tuum, mihi heri, & tibi hodie, orhitcité ené iuiamendiaz, hala, hala icanenduçu curé aldiā curia, atço cen ené aldia, egun icanenduçu curia, edo ené aldia egun duçu eta bihar icanenduçu curia eta ceren luçamendiac, eta remiticiac guerotic guerora, eta egunetic egunera periloz eta dangeroz baitira, bekatoria considera eçaçu passagé saindu huntan Termiñoa eta Dembora labur direla, errayten diala atço, eta egun, egun eta bihar, guri erakhusteco, nola atço danic egun draiño, egun danic bibar draiño, arté hora baita labur, eta herti, de lunes á mates, pocos sont los artes, Espagnolac erraiten dian beçala, Dembora herti; eta labur harten, egun oroz, gau oroz, oren oroz, momentu oroz, goician, eguuerditan, arratzian, hiltciaz, herioaz, eta guré azquen orenaz behar dugula orhit içan, bekhaturic ez eguiteco, onsa bicitceco, eta hobequi hiltceco.*

[39]

Eel. 40.

Salomonec berac, hobequi guré bihotcian, eta guré borondiaren erdian herioaren orhitecia, eta memoria, iossirie, itçaturic, eta escrinatarie, vici deçan, erraitendu guïça hontan, *Quid superbis terra, & ciuis, Guiçona eta Emaztia turcira, herhautz, cira, eta cergatic, vrguillian, eta superbian sartzen cira : erran nahi balu beçala, mundu orori ; Aita Saindia, Cardinalia, Ap-hezpicua, Apheça, Emperadoria, Erreguia, Princia, Duca, Comtia, Marquisa, Baroiña, Aitorensemea, Laboraria, Aberatsa, Pobreza cer hari cira, cer dioçu, cer nahiduçu eguin, erran, edo pensatu, lur cira, herhautz cira, mortal cira, etcirela hebentic harat, vrguillutz, glorioz, eta fanfaron, hil behar ezpaçunu beçala, orhiteité lur cirela, herhautz cirela, eta curé hiltciaz orhituric, bicitcé sainduhat bessarca eçaçu sainduqui hiltceco.*

Nahidut sinhetsi, eta sinhestendut, Eliça saindiac, baita IESV-CHRISTOBEN Espos maitia, egua ororen iabé, eta habé handia haren odol pre-

[40] tiosaz erossia, eta iccutia, haren beraren Espiritu saindiaz guidatia, éta gobernatioa, vrtian behin gariçumaren lehen egunian, hausterri egun saindian, hautz benedicatiz, fidelen ororen buriac, eta belarrac, Apheçac ceiñatzen dutianian eta erraiten hitz eder hoyec, *Memento homo, quia puluis es, & in puluerem reuertaris*, orhiteité guicona, herhauts cirela, eta herhaustu behar duçula, eztila viken bertcé pensamendurie, ez bertcé intentioneric, guri orori othoitcia, representacia, eta gomendateia baiei, ardura, eta possiblé baliz, bethiere orhit quintian herioaz, amo-recatic haren Espos saindiaren bicité saindiaz orbiturie, eta harc gugati Caluariaco Mendian bi Ohoiñen artian iragan dian herio, eta passione dolorosa, guré beguien aitçinian, mirail ederbatı beçala harturie, haren imitationetan, bekhaturic eguna gabé biçiric, haren gratian hiltceco dohaiña, eta fortuna ona, ardietz, eta irabaz ahal guendeçan.

Orhit niz neuré gastetassunean ikhussiric Pariseco hirian (ceiñ baita Franciaco Erressumaren hiri Capitala guré Erregueen egoité, eta habitationé comuna, eta ordinarioa, eta lur orotaco hiri ederren, eta handien, edo lehenbicicoa edo bigarrena) Eliça handibat, cein deithatzen baita Innocenten Eliça, eta Eliça hartan ikhussidut ilherri handibat, Ceifietan hil estranger ororen gorpitçac ehorsten baitira comunzqui; eta campoticoec beré Hobiac eta Sepulturac edireten bajitusté ilherri bandi, eta çabal hartan, hillen heçurrac goiti daudé galerietan inguru, inguru, alchaturic eta hedaturic, eta he çur hayén pian, hillen heçurrac mintçatzen balira beçala, hitz hoyec daudé, Escriturian iarriric lenguiaé Francesian.

*Nous avons été comme vous
Vous serez aussi comme nous.*

Erran nahibaitu escaraz, gure lengagian, içaù guira ciec beçala, ciec eré içanen ciraté gu beçala.

Eta guero hitz Franceez hayen pian, irakhurteen dira hitz eder batçu latiñez escrituran iarriric, hile hayen heçur berac, biciey mintçatzen balira beçala, guisa huntan.

*Ibo, Ibis, Ibit,
Ibimus, Ibitis, Ibunt.*

- Explicacen baitira, guré lengagian euscaraz, façoin huntan; Ioane-nitz, Ioanen cira, Ioanenda, Ioanen guira, Ioanen ciraté, Ioanen dira.

Bekhatoria, neurébihotça, aguia içä cira Parisen, aguian ez, eta han içanic eré, aguian etcira orhitu hilen eçurrec, biciey, erraiten

dutien hitcez, eta proposez, baiña aumenz, curé parropiaco Eliçan sartcien cirenian, eguiçu sobat curé aitcinian Ioan diren curé asquaciac, adisquidiac, eta curé eçagutiac, eta orhiturie hayen hilciaz, orhiteté curiaz, considera eçaçu, içan direla hec beré demboran, çu curian ciren beçala, edo guehiago, edo gutiago, eta cer eré ahal baitcinateque, curé orena, eta curé aldia gin dadiñian, nahi bacira, eta ez, curé bigarrac eta curé muthurrac despit diala, hayec beçala herhaustu eta hil beharduçula, hori curé gogoan eta bihotcian harturie, requiem, bedera, hil gaiço hayegatic, Eliçan barnen edo campoan erranic, edo erran eracir ic, bateré bada hayen artian, onsa hildenic, eguiçu onsa, hayen hilec onian curé parthé onarén vkhaiteco, bateré bada hayetan gaizqui hil denie, fiñ gaizto, eguin dianic, hayen exemplutic, curé probetchua eguinic, corrigi cité reforma cité eguiçu penitentia, damma etcitian, hec galdu, eta damnatu diren beçala.

[42] Erranendu combaitec, orga ecarri dudala idien aitcinian, ceren neuré onsa hiltceco bidiaren brogatececo Salomonen hitçac aitciñ aitciñian lehenic alleguatu, eta rapportatu baititut, eta guero ondoan Dauid Erreguiarenac, baiteen Salamonen aita dignia, baiña eztut ansia, ala guibela, ala aitciña, aita semé hoyec biac ederqui, eta sainduqui minçatu dira nic hassi dudan bidiaz, cer eré baita, eta cer eré içanen baita, aitac vkhenen du semiac eztian ohoré hora, beré bekhatien onduan, penitentia handurie eguiñic, eta harten hilic, Eliça saindiac eduquiten baitu, saluatu dela, parabissuan saindu handibat dela; semiac aldiz, vteidu eliça saindia dudatan, ala cen saluatu, ala damnatu, eta Eliçaco Doctorac eré, norc beré opinioné particulara bessarcaturie, baitciec saluatu dela, bertceec eztela, batac bai, bertceac ez, bi partoetan iarri dira Salamonen Arimaren eguitecoaz, eta nola pundu hau iugé ororen iugiaganic baita dependitzen, dugun hari remeti, eta goaçan atçiña guré bidian, eta ikhussiric Salomone manu, eta conseidu ederrac, eta saindiac onsa hiltceco moyenaz ikhus deçagun cer erraiten, dian eguiñeco harten berian, haren Aitac Erregué Dauid saindiac.

Aguerida escritura saindian David Erreguiac guré lencoia bi occasioné handitan particularqui offensatu eta desoharatu ciala; lehena cen noiz eré Bersabea edurraren amorio desordenatuac itsuturie, eta haren buruco huna nahassaric, eta cordocaturie, berzceren emaztiaren ondoan ibilli baitcen, eta hari beré senharra, vria, hil eraci baitcian, hobequi moyen hartçaz beré desircundé gaixtoen harequin complitceco, eta heldurgabé hartçaz placer cianiā, placer cianaran eguiteco, eta colpu batez bi bekhatu handi, eta graué baitçutian cometitu, heriotcia, eta adulterioa, bekhatu hayen punitionetan Erregué hora galdia cioen, eta damnatio secula cotz, Iencoac bartçaz misericordia vkhenic, ezpalu auertitu, eta mehatchatu beré faltez Nathan Prophetaren ahoaz, eta

harc, *Peccavi*, erranic, bené penitētiaz ezpalu reparatu beré bekhatia, eta beré falta.

Bi garren aldean Dauid Erreguiac, guré Iencaoa ecarri cian colera handizqui, territatua, samurtu, eta khecha eraci haren contra, ceren Erresumaco populia condutan eta roletan ecarten ciala, sobera glorificatu baitzen, superbian eta vanitatian sarthu beré buriaz, ordian eré, Erregué miserablé harc, galdu eta peritu beharcian, Ienco misericordiosae ezpalu egorri Propheta Gad hargana, haren mehatchatcera beré eguin cian faltaz, eta ezpalu berrisqui Erregué criminel harc beré dolu, eta penitentiaren moyenez, beré bekhatiaren barkhamendia irabaci, han berian Escriturac erraiten dian becala, *Ego sum qui peccavi, ego iniquè egi, isti qui oves sunt, quid fecerunt? vertatur obsecro manus tua contra me, & contra domum patris mei.* Iauna ninuču bekhatatoria, ninuču gñizqui egnilia, hoyec ené ardiac dituču, hoyec ezticié oguenic, curé coleraren açotia, ené, eta ené echiaren contré itčul eçaču.

Neuré adisquidia, nahi baduču ikhassi Dauid Erreguiaren secretia, nola ialqui cen beré bekhatutie, nola perseueratu cian, nola onsa hiltzen, iaquin eçaču etcela bertceric hilteiaz orhitcia, baici, herioaren beldurra, hura cen haren bidia, haren arma, eta haren contrapočoa, beré etxayen ororen garaytceco, hala berac aithortcendu, *Cor meum conturbatum est in me, timor mortis cecidit super me,* herionaren beldurra ikharatzen tu ené caiñac, eta ené heçurrae, herioaz orhitceen niçanian, estat onic ez ianian, ez edanian, ez loan, ez ginian, ez loanian, ené Arima, eta ené Gorpitça, çaurtu, eta colpatu dira herioaren beldurra dela causa.

Erregué Dauitec ezpatian ediren erremedio hoberic gratian egoyteco herioaz orhitcia beno erra beharda boteré handi diala harc, guionaren, eta amaytiaren ienkoaren leguiaren pian chuchen, eta ferme egon eraciteco erregué gaiço hura, herioaré beldurra beré bihotçian iauntssiz gueroz, edo beztitzuz gueroz, ardura mintço da beré herioaz, beré herhautsaz, beré penitentiaz, beré Psalmé orotan quasi. hiltacotz eré lencoaganat conuertituz gueroz eguin çucion cazpi Psalme Penitentialac, suiet eta materia hontan berian bayetarie lehenian dio, *Lauabo per singulas noctes lectum meum, & lacrimis meis stratum meum rigabo;* Iauna orhiturie hil behardu dala, eta curé aitcinera presentatu, curé beldurrez eta neuré bekhatien doluz, eta desplaceréz, gau oroz eguiñen diçut nigar, eta neuré nigarrez, neuré ohia, houstiren, tremperaturen, eta vecuciren diçut.

[45] Psal. 103. *Cinerem tanquam panem manducabam, & potum meum cum flectum miscebam.* Herhautza ogua beçala iaten nian, eta neuré edana nabastecatçan nuyan neuré nigarraz, dio harc berac erran nahidu, apairu aldal, neuré ian edana eguiten dudan ordu eta oren oroz, neuré hiltciaz herioaren

herhauxetic, edanari neuré beguietaco niguarretaric, nori beré iaquia, egun oroz mayten nian.

Propheta barec berac dio bercé lekhu batetan, *Fuerunt mihi lacrimæ, panes die ac nocte*, ené nigarrac, ciren ené ian, edanae, eta ené hazcurria gauaz, eta egunaz; delicatuqui, eta friantqui bici cen Erregué hura haren mahagñian elcenian cerbitçatcen haren platetan berce haraguiric, ez viandaric, ez haren flascoetaric emayten edatera bertce mahaxarnoric, haren bi beguietaric erorten cen nigarretaric baici erran balu beçala, ené gorpitçari emayten dudan oren guciez beré refectioné corporala, oren berian neuré Arimari emayten dut beré refectioné espirituala, eguiten-dut nigar bihotçez bereré, orhitceantz neuré hilciaz neuré bekathiez, neure lencoari eman behardudan contu herxiaz, eta guero nigar hetçaz, eta orhitce haftçaz alleguerateendut, eta consalalcen neuré Arima tristia, eta Arima gaichoa.

Erregué penitent hanc berac orhitceen çenian beré hilciaz, eta beré bekhaties, beldurrez eleçan asqui penitentia eguiñ beré faltez, eta iklusien cianian etciala beré bihotcian contritionia asqui handi, nigar eguiteco, eta beré nigarrez beré bekhatien chahatceco, eta hayetçaz vccutceco, othoitcez cagoen ienkoari igorlicon gratia haren bibotz gogor raren, eta hotçaren, espiritu saindiaren suyaz beracetco, vrteco, emat-ceco be ré gogora beré bi beguietan behera nigarrez, bi itkhurriren eguiteco, hobequi beré barcamendiaren içateco gratian perseueratceco, eta fiñian onsa hiltceco; haren othoitcia irakburteen dugu Psalmo hantan : *Cibabis nos pane lachrimarum, & potum dabis nobis in lachrimis in mensura*. Iauna eguiçu oguibat ené nigarres, eta ogui bartçaz, othoy ardura, ardura bazca neçaçu, eguiçu ené nigarrez beharden eda tecobat, eta hatic indaçu edatera beharden içariac eta mesurac gainti eguinic eré, ezticut ansia neuré çerrac onsa, eta iustoqui pagaturic, çurrequin biciric, cutan hiltcen banitz ené ian, edana hebentic harat den gauaz, eta egunaz, nigarra, eta contritionia, hurac badutut ber, esperantça dut ené orena jin dadiñian hiltce onbat vkheneñ dudala.

Neuré adesquidia nahi baduço eguija frogatu erran diren Psalmo hoyetan erranen duçu David Erregua bekhatore handibat içanic, penitent handibat içan dela çeren heré bekhatiez, eta beré herioaz ordu onez orhituric saluatceco bidé ona chercatu eta ediren baitcian, bambatequi erraçu penitent bandi hanc beré salbamendiaren obligacionia oro çorciala herioaren memoriai salbatu cela, çeren herioaz orhitu baitçen, eta damnatu içanen cela herioaren orhitcia, eta beldurra oukhen ezpalu hori errandu Psalmo deuot hantan : *Circumdederunt me dolores mortis, & torrentes iniquitatis conturbauerunt me, dolores Inferni circundederūt me, præoccupauerunt me laquei mortis*. Vnguralu nuté herioaren penec, eta dolorec, eta ené iniquitatiaren nombré handiac, eta grauitatiac, nahassi

Psal. 41.

[46]

Psal. 79.

[47] Psal. 47. nuté, eta lotsatu, Iffernuko penén, eta herioaren laçoen hélurrac, ikhussi banitu beçala, harrituric, eta lotsaturic, ené arima, eta ené gorpitça, carcelian, eta presondeguian daudé, iduritzen çaut, herioa, eta Ifernua, neuré beguien aitcinian ikhousten ditudala, erregué penitent handi honen deuotionari, capitulo hontan, azquen conclusioniaren emayteco, eta harc herioari çonbat ohoré, eta respectu eman dian, behacité azquen Psalmo huni, eta ordian çuré bekhatiez, eta çuré hiltciaz orhituric, ené adesquidia, eguiñu nigar edo bihotcez, edo beguiez.

Egunian hiruretan neuré lencoari, neuré laudorisac, eta neuré esquer alaguestac errendatuco diotçat, ceren ialquiric neuré bekhatietaric, eta herioaz orhituric, bidé onian iarri benitz erranendut mundu orori; Aingeruej, eta giçonej, Ceruari, eta Lurrari, hilej, eta hiciei, çonbat onden lencoarequin içatia, eta çonbat damu den har enganic apart içatia, eta esperança dut lenco handiac ené boça, eta ené oyhia entçunen diala, ardura chiago eré beharnuqué, baiñan aumens egunian hiruretan, arratsian, goician, eguberditan, eztut faltaric, eguiñen, cantatçera goraqui, eta publicatcera mundu ororé aitcinian, çonbat gratia, eta çonbat misericordia lencoac egundian ené arimari, bekhatiareni larru çaharra vteiric, gratiaren larru berria iauntsi dut, eta beztitu, dio Erregué penitentac, *Vespere, & manè, & meridiè narrabo, & annuntiabo, & exaudiet vocem meam.*

Psal. 54.

[48]

Sinhestendut Eliça saindiac IESV CHRISTOREN Esposa maytiac eta ederrac, Erregué deuot hunen imitationetan, çuhurqui, eta sainduqui ordenatu diala, egunien hiruretan Eliçaco cegñiac populu fidelen artian ioeraci litian, goician, arratzian, eta egouerditan, eta costuma honest, eta laudable hori, comunz qui deithatcenda Aue Maria ezquillen ioitia arratsian, goician argui ceigñiac, egunerditan egunerdi ceigniac, halaber daducat Eliça saindu harc berac, oukhen-diala horondaté, eta intentioné, ez quillaren soiñuez guré bat bederaren obligateeco, eta auerticeco, guré sortciaz beçala, guré hiltciaz eré aumens egunian hiruretan bereré, haiñ bertce aldís orhituric guré héríoz, eta ialquiric guré bekhatietaric, ikhas guendeçan prest egoitera eguruquiteco gratian guré herioaren, eta onsa hiltceco.

Coinbat Doctor deuotec dioté ceignu horien joitia gindela, guri representateeeco hemabortz Misterio principalen, ceiñ baitira partituac hirur bortcetara lehen bortçac Misterio ioyosac, Bigarrē bortçac, Misterio dolorosac, hirur garren bortçac, Misterio gloriosac.

Bertce batçuec, dioté handie endelguateera emaité dela Eliçaco hirur misterio bandiren eçagutcia, ceiñ baitira, Annunciationia, Resurrectionia, eta passioné dolorosa. Lehena eguiñ cela, arratsian, bigarrena goician, hirurgarrena egunerditan hartacotz Eliçan ezquillac hiruretan joiten direla, arratsian, goician, eta egunerditan hirur Misterio hayen

memoriaren guré espiritiaren barnian eçarteco, eta haren pitceco, eta hayetçaz orhitera citeeo.

Ne uré adisquidia cer eré baita costuma horçaz Erregué penitenç handi harçaz orhituric, eta harturic haren exemplia çuré guida, eta çuré mirail, ezta din iagoiti iaagan egunic, hemendic harat, non hiruretan, etcitian orhit çuré herioaz, hala eguin badeçaçu, esperantça dut David Erreguia, bekhatian beçala imitaturen duçula penitentian bici çireño, eta hiltcian oukhenen duçula çuré Arimaren paussia: eta Iencoaren benedictioné saindia.

Egun batez Ezechias Erregué handi hura beré ohian çagoen hiltceco pundian eritarssun handibatez colpatia, hala dio Escriturac, *Agrotauit Ezechias usque ad mortem*; Iencoac Isaya Propheta igorri ciā Erregué eri haren bisitatçera, bisita bartan Propheta mintçatu cen Erreguari guisa huntan, *Dispone domui tua, quia morieris, & non viues*. Erregué Ezechias Iencoaren parlez manatçen citut eta abortilcen, emandecaçun çuré Etcheari, çuré familiari eta çuré eguitecoei beharden ordria, eta errequeitia, eguiçu çuré ordeignia bihar hil behar duçu çuriac egindu. Erregué harc, entçun cian beçain fité Prophetaren ahotic beré herioaren berria eta meçia, Escriturac dio, beré beguitarzia paretiari itçuliric othoitz hau egutik ciala Iencoari, launa othoy, orhicité, neuré cecuria, eta neure dembora ahal beçanbat, çuré cerbitçuan eta çuré beldurraré pian emplegatu dudala, cer eré çuré beguien aitcinian vsté heinian, cela on eder iusto, eta laudablé, haren eguitera enxayatu niçala, eta oray, othoy indaçu dohaiñ, eta gratia neuré bekhatiez dolu, eta desplacer içateco; indaçu espatio, dembora, eta termaiñ neuré bekhatiez penitentia eguiteco, eta ber orenian beré orationia akhabaturic beré bi beguietan behera nigarrez, bi ithurri bañdiric eguiñ ciala *Fleuit Ezechias flectu magno*. Ordian guré Ienco mintçatu cela Erregué hari guisa buntan, *Audiui orationem tuam, & ridi lachrimas tuas, ecce adjiciam super dies tuos, annos quindecim, & de manu Regis Assiriorum eruam te, & Ciuitatem istam, & protegam eam*; Ezechias ené adisquidia, ençun dut çuré orationia, eta othoitça eta ikhussi ditut çuré beguietan behera ialqui diren nigarrae, sendo cira, aldi huntā emayten drauçut bicia, eta çuré egunac luçatçen ditut hamabotz vrthez, çuré contritionaren, eta nigarren amorecatie, Assiriae Erreguia, baita çuré etxaya haren escuetarie, cu çuré liria, eta çuré Erresuma oro deliuratuco ditut eta dessendatuco, mundu ororen contra. Neuré Adisquidia, soguiçu herioaz orhiteciac cenbat indar, boheré eta bertuté dian, bihotzbak beratçen du, den gogorreua hantic idoquitendu nigar, Iencoari edequitendu beré colera, eta armac, escuetarie, eta haren arestac, eta decretac eré aumens cominatorioac cambiatçen ditu, luçatçen, ematçen, eta moderatçen,eduçaçu solamenté herioa çuré gogoan, eta çuré bihotciañ, hura han baduçu ber, eguiñen duçu Iencoaz nahi,

[49]

Isay. 39.

[50]

eta bahar duçun oro, Iencoac eré beré aldetic eguiñendu çuc placer duçuna oro, hambatequi Iencoia, eta çu, biac bat içanen ciraté, çu Iencoarequin eta Iencoia courequin gratiaz lurrian, eta ceruan gloriaz.

Ezta edirceten legué caharrian Coraje bat vertute bat, constantia bat, eta patientiebat Iencoaren cerbitçaren artian hain handiric, ederric, miragarriric, eta quasi adorableric, nola içan baita lob saindiaren Corija virtutia, constantia, eta patientia, orienteco herrian cen iaunic handiena, lehena, edo lepenetaric bat cen lob saindia, Iencoaren cerbatçari handi hora, hala dio Escritura saindiac. *Erat vir ille magnus inter omnes Orientales.* Iencoac eman eian guiçon hari çazpi semé, eta hirur alaua beré emastearen ezcoutcian eman ceron oraño guré lécoac guiçon hari çazpi mille ardi, hirur milla Cameleon, bortz ehun idi paré, bortz ehun asto ama, lur etché, borda, eta bercé onie, eta ederric Franco, eta egunbatéz ikhussi cian beré buria goician ohetic laudan orienten cen iaunic handiena, eta aberalcena, eta arratzian oheracoan ikhussi cian beré buria oriente cen guiçonic miserablena, eta ezqueleric handiena, deabruac sathan gaixtoac, Iencoaré permissionez aldé orotarieb lob saindia attaccatu cian, affligitu, eta ruinatu, bena harc eduqui on sathanen tentationé ororen contré, eta iagoiti ez galdu Iencoaren beldurra, eta haren amudioa deabruac ousa attaccatu cian, eta lobec hobequi daffendiatu, trompurra trompatia guelditu cen attaccatçaliac ohoria, combata, eta victoria galdu, eta attaccatia cenac, ohoria, combata, eta victoria irabaçi.

Berri tristiac, eta dolorosac lob saindiari heldu dira beré etchian, meçubat heldu da campotic, eta dio lob saindiari guisa hunta, launa sabea herritic çuré etxaiac ginic armaturic, çuré bortz ehun idi pariac, eta bortz ehun astoae oro, alchaturic elguetic eraman ditusté, eta hayen beguiracaliac oro nitçaz berzciac elguian hillic colpez, eta massacraturic hedra heda diaudeçu, ni ihessi escapaturic helduniz çuri berriaren condateera.

[52] Heldu da bercé meçubat, eta dio, launa Cerutic subat erorida mendian çuré ardietañ, eta artçaiñen burietan behera, eta ardiae, eta artçaigñac oro su harc berac errateen hassiric, bortcha escapatu niz çuri berri haren contatçeco.

Hirurgaren mecia heldu da eta dio, launa chaldea herrico gendec çuré etsayec, gende handibat, eta armada handibat, equinie Infanteria, eta Caualeria helduric, choriac luma ayrian beçala, çuré hirur milla Camelonac alchaturic, herriz camporat eraman, eta idoqui dituzté, çuré Caualia, eta acienda oro galdu da hil da etanic colpe egundut itçurciaz çuri berri hunen errayteco.

Laur guerren meciae dio, launa çuré cazpi semiac, eta hirur Alauac çuré haurrac oro, semé primiaren eta guehienaren etchian elkarrequin

bona chera eguiten cirela, eta mahatx-arnorie hobenetic elquarren gratia onori beiriac beteric edaten cirela, eta elquarrequin beré ian, edanian placer hartçen, eta alagueratcen haicé hegoa handibat eta furiosbat, eguoerdi aldetic ialquiric, etchia, beré laur erro etarie, eta laur gontearie piaz gora ecarri diçu bat batian, eta beré pian oro etchiac erorten dela, arrabascatu, çitię herraustu, eta porrocatu, curé haurrac oro, curé familia oro galdu da, eta peritu, hayenac eguindu, aita çira haur gabé guertatu.

Berri tristé hoyen ondoan, Iob saindiaren gorpitça aztalian hassiric haren buru tinira draño, ezcabia, tigüa, hazteri, çaccar lodibatec, hartu cian, eta beztitu, beré gorpitça, gorotzaté batetan gaigñian hedaturic çagoela harrec haren gorpucoco haraguia biciric iaten çuela, Iob saindiæ ikhussi ciä, eto oraño manera hارتان çagoela, beré emazté propiac, milla des ohoré, eta milla mesperechu, beré beguien aiteinian, eguiñcioen eta deahru gaixtoac Iencoaren permissionez, aldé orotarie, beré onetan, beré ohorian, eta beré personan, arima salboric, milla inuirio, eta milla mesprechu eguiñ ciä/guiçon saindu hari, eta hanc oro soſſritu, eta patitu, Iencoaren amorecatie, patientia handitan, eta patientia hanc hura errendatu, Iencoaren, eta guiçonen aiteinian patientia ororen exemplu, eta mirail handia. Neuré adisquidia nahi ducia iaquin, nola, eta cer guisaz Iob saindiæ, miracullu handi hec eguiñ çutian erranen deraulçut, bere hiltciaz, eta beré herioaz orbitu çen, eta herioaren herhautzaz armaturic, beré buria garaitu çian dia-brua accaçatu, bere ohoriaren beré haurren, beré onen galcia, beré emastearen mesperechioac, beré gorpucoco eritassunac, eta penac curagosqui eta patiètqui suffritu, eta erreccibitu, sobat eguiñ çian beré sortciari eta beré hiltciari, consideratu çian, nondic giten çen, eta norat ioan behartcian, eta ené bidiaz orhituric, beré huriaren contra, eta beré etxay ororen contra victoria ederbat, eta khoroa handibat irabaci çian, eta ardietsi, ené errana, eguiia dela berac dio, ikhussi cianian beré buria estatu eta postura miserablé hartzan, beré beguiac behera lurrerat ap-haldioric hassi çen Iencoari guisa huntan mintçatcen. *Nudus egressus sum de rtero matris meæ, & nudus reuertar illud, Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit, ita factum est, sit nomen Domini benedictum.* Iauna badaquit, billuz gorri gorria, neuré amaren sabeltic ialqui niçala eta badaquit halaber hil behar dudala, eta billuz gorri gorria lurrerat itçulico niçala, çuc emanic nituen guciac eta çuc boteré cinduen beçala, edequi derauztatçu, cuc placer duçun beçala egunda, dela benedicatu curé icen saindia. Adoratçen çaitut, maylatcen, eta laudatcen, eta nahi çaitut bici naiceño, adoratu, maytatu, eta laudatu, estut ansia neuré onen galciaz, cu baçaitut ber, asqui aberatx, eta iauñ handi içanen niz.

Neuré adisquidia, Iob saindiaren arma hori harturic, ordu onez,

[53]

[54]

Iesu Christoren soldadu on bati emanden beçala, orbit eitè herioaz, *Memento mori*, eta çuré orena gin dadiñian, çuré arima khoroaturic iarrico da içarrac baño gorago, Ceruric goren gorenian, eta nola egui-teco orotan particularqui arimaren eguitacoan luçamendiac baitira dangerous, eta perillos guerotic guera, egunetic egunera, luçatu gabé, çuré herioaz orhituric, ené bide hontan sarcitè, eguiçu penitentia, onsa hiltceco eztaquicun guerta, noizpait guertatu cena behkatoré gogortu, harritu, eta obstinatu handi bati; Surcus historiano deuotac dio, guiçon gaixto harc erraiten ciela ardura, ardura, asqui ciela hirur hitzez saluatico, eta bere hiltcian beré hirur hitçac erranic saluatuco cela anartean etziala ansia trufatzen cela penitentia eguitiaz, beré confessoraz eta haren conseillu, eta auisu orotçaz, hirur hitz hec ciren, *Miserere mei Domine*, Iauna nitçaz misericordia euçu : çer heldu cen fiñian, lencoia, on beçala, baita iustu, permetitu cian, behhatoré gogor hura, igaran ladin çubi batetan, eta igaraiten cela çamariz çubi haren gaiñian, vrité, oragé, vhazté, eta tempesta handibat ginic, çubia eraman cian vrac, çamalduna eta Camaria berequin erortian vrean behera çamaldun gaixtoac erran lekhuan beré espechoan, beré hirur hitçac, *Miserere mei Domine*, deabruac haren memoria eta iuiamendia nahassiric, hirur hitz malhurus eta tristé hauc erran cituë hiltcian, *Rapiat omnia Daemon*, erran nahi baita, deabruac eraman detçala gueiac eta manera hartä guiça gaixto harc beré hiltciaz orhitu faltaz asqui ordu onez, eta beré penitentiaren sobera luçatuz, beré buria miserablequi galdu cian, eta damnatu.

Neuré adisquidia, vstedut capitulu vhuntan ediren duçula, curé herioari çorduçun ohoria, amorioa, eta orbitcia eta vstedut ediren duçula giten den capitulian, haiñ bercé occasioné heroaren maitatceco, bartacotz bidé huntan goacen aitciña.

× ×

ONSA HILTCECO

BIDIAREN

HIRVR GVARREN CAPITVLIA

*Capitulu huntan frogatçen da Escriptura Saindiaz, hambat legue
berriaz, nola Eliçaco doctor saindiez, nola onsa hiltçeco.
belia den herioaz orhitçia.*

[GVZQVIA orienten aguertcen, eta ialguiten den beçain fité, turrian arguïada, gañac, eta ilbumpiac ihessi doaz, arguiçaguiaç ere, eta bercé Cerueo Içarrec, eta planetec, ala duté beré arguia eta beré claritatea, beré naturaz, edo empruntuz, eta iessanez harganic, oro haren abalquez gordatcen dira itçalcen, eta ezcapateen, harc orienten goician beré beguitaté ederra, beré bisturac, edermen handiac, eta leignuriac, mundu huni aguercen dutian pundu berian. Errana eré hala da latiñez. *Quando, Sol lucet, Luna, & Stella latent, Igusquiac argui euguité dianian, arguiçaguia, eta berteé içarrac oro gorda bité, bihoaz ihessi, itçal bité.*

[56]

Ber forman, eta maneran, herioaren veldurra, eta memoria çuré arimaren, eta bihotçaren barnià deño, cer eré han abal bailicalequé, concupiscentia, Colera, Auaritia, Vrguillu, Luxuria, eta desircudé gaixto, hurac oro igusqui harc, herioaren orhitciae, accaçateen ditu beré presentiaz hiltcen, eta deseguiten, et Igusqui hura guré espirituán deño, nola han egonen dira bekhatiac, daducat, hala nola sua, eta vra, hotça, eta beroa, churia, eta beltça, leccubatetan, materiaabean deborabatez impossiblé baita elguarrequila egon ditian, elguar, eguar ahal deçaten, hala hala impossiblé dela, herioaz orhitcia eta bekhatiac biac elguarrequila, arimabaten camberan, beré egoitia, eta loiamendua ediren abal deçaten : gratia, eta bekhatia, contrario dira, exai herioaz orhoitcea da gratiaren dispositionea : herioaz ez orhoitcea Bekhatura Ioaitea : hartaracotz herioaz orhoitcen den Arima gratiara doa, eta herioaz orhoitcen esten Arima, Bekhatura Doa, manera berean nore eré baitu herioaren memoria, erran beça gratiara Doala, eta nore eré ezpaitu herioaren mémoria ; erran beça Bekhatura doala.

- [57] Bata içanen da bidé onean, eta Bertcea bidé gaixtoan, bidé huntarie campoan, Iesv-CHRISTO launa, guré Arimen salbatçalia mundu huntarajindenian, Eliça saindiaren, beré Esposaren edertcera, eta beré exēplu onez, eta predicu sainduez escolateera, guiten beha nola mintçatu den beré Euangilio saindian herioaz, eta ordian ikhussiço dugu, bidé hau onsa hiltceco, herioaz orhitcia, bidé segura dela.

S. Math. Euangelista minço da guisa huntan : *Si sciret pater familias qua hora fur venturus esset, vigilaret, nec sineret perfodi domum suam, ideo & vos estote parati, quia nescitis qua hora filius hominis venturus est.* Balaqui Aita familiacobatec, ohoiña gauaz cer orenez gin ladin, iratçariric egon laité presto, eta bigilant loac eliro attrapa ; eta beré etchia eliro chillatcera vtei : hartaçotz ciec eré çaudetzé presto, bigilant, eta iratçarriric, ceren ezpaitaquicié, cer orenetan ginan den Guiçonaren Semia.

Ecin hobequi guré launac passagé huntan abertilçen guitu eta manaten egon guiten presto gratian, bekhaturie campoā herioaren orena heldu deneco, hargatic comparatcendu herioa ohoiñari, guri eracasteco, hala nola ohoiñac beré colpia eguité baituguttien vsté dugunian, hala, hala, herioac eré beré colpia eguiñen diala gue gutienic vsté dugunian, edo nahi dugunian, hargatic dio, *Estote parati, çaudesté presto, eta presto egoiteco, hiltciaz orhit citezté.*

Halaber materia huntçaz beraz mintço delarie S. Marc Euangelistac, edo guré launac haren mibiaz, dio ederqui. *Videte, vigilate, & orate, nescitis enim quando tempus sit,* so eguicie, beilla citesté, caudeté bigilant, eta othoy eguiçie, ceren ezpaitaquicié noiz den, edo noiz içanen den dembora, hitz, guti, labur, eta on, erran nahidu guré launae, ené mecia herioa ginédela segurda baiña noiz ginenden eztaquicié meçu harc herioac trompa etcitcen, edo atrapa hirur gauça gomendantcē drauciet, so eguitea bigilantia, eta orationia, hirur arma hec ciequila badira, norc eguinendu cier guerla, nor içanenda cien contré, herioa içanenda flacco, cien peco, eta ciec azcar, eta haren guehien.

[58] Luc 21 S. Luc Euangelistac eré emandu eguiteco huntan bere abisu, eta conseillu ona, *Vigilate itaque omni, tempore, orantes, que futura sunt, & state ante filium hominis.* Dembora oroz çaudetzé bigilant, eta orationetan, herioaren orenian ginan diren malhur, desordré, eta confusioné orori ihessi eguin ahal deçacien, eta guiconaren semia gin dadinian, cien iuiatcera edo hilic, edo biciric, edirē citcen ez lo, eta iarririe, baiña çutic beré aitciniyan, eta iratçarriric.

Guré launac lekhu huntan abertiteen guitu, eta mehachateen herioaren veldurra, memoria, eta orhitmena eduqui deçagun oren oroz guré gogoan, eta guré bibotcian nahi baguira onsa biciric, onsa hil, edo nahi

Mat. 24

Marc 13

[58]

Luc 21

ezpaguira, gaixtoqui biciric, gaixtoqui hil manatcen guitu eta aberti-
tcen, *Vigilate omni tempore*, gauden bigilant, dembora oroz, ez sola-
mête gaztetarcunian, Caharcian, Vdan, Negnian, Asté oroz, Vrthé
oroz, Egun oroz, baiña dio, *Omni tempore*, Dembora oroz, ceren nola
baiquira dembora oroz mortal, herioae dembora oroz baitu bothere
guré hiltceco, eta biciaren edequiteco, hambatequi mania, eta aberti-
mendia dugun beçala lencoaren gratia oren oroz, *Omni tempore*, begui-
ra deçagun eta conserua, herioaren oren oroz estatu onian, ené
bidian, eguruquiteco, eta haren colpiaré alegueraqui erreccbitceco.

[59]

Lekhu huntan berian gure Iaunac auertitzen guitu egon guiten presto
orationetan, *State ante filium hominis*, çaudetzé bigilant presto prestoa
ené aiteñian ni cien aiteñian nago ikhusté çutiet oro, cer hari cire-
ten, eta cer egui nabiducien badaquit, ni cien beguien aitciñian
ikhuzten banunducié beçala, çaudetzé çutic gogoa eman eçacié, begui-
raucié galduco çuctiet ené mecia baita herioa, cien aldian da, heldu
da, meciaren ondoan heldu nitz, bai juiamendu particularrian, bai
juiamendu generalian hilic, edo biciric ené escuetara erorico cirate,
eztut ordian eguiñen gratiaric, ez misericordiaric, iustitia handibat
eta rigorosbat eguinendut ordia, Cerua eta lurra deseguiñen ditut, eta
cien Arimac, eta cien Gorpitçae sutan eta odoletan eçarrico ditut,
State ante filium hominis, herioaz orhituric, ené heldurra eduquacie cien
bihotctean, eta forma onian, estatu onian, gratian, bekhaturic campoan
iguruçacié cien azquen orena.

Ioan-doné Ioannes Euangelistac beré aldian eztu vtei ahaltcerat
materia saindu, hau orhitu da beré rebelationé, eta visioné handietan bidé
saindiaz huntçaz erran dianian ederqui, eta sainduqui, *Si nō vigilaueris
veniam ad te tamquam fur*. Ezpalin bacité egon bigilant, eta iralçar-
ririe, ginengen nuçu çugana, ohoinbat beçala. Guré Iaun Apostolu, eta
adesquidé handi honec hitz gutiz, hanitz errandu, *intelligenti pauca
adimendu onac hitz gutiz asquidu eta Arima onac eré Arimaz denian
questione, manu gutiz asqui du*.

Apoc. 3

Segurda guré Iaunac beré Apostolier Misterio handirie beré Espi-
ritu saindiaz erakhutxi eta reuelatu ciala, ceren beré Ministré beçala
hayetçaz cerbitçatu nahi baiteen, beré legué sacratiaaren, eta Euangilio
saindiaren mundu orotan barrayatececo, eta beré hitz benedicatiaren
aciaren lur orotan ereytemanía eré emancian eta boteria orori, Ministerio,
Oficio, eta functioné sacratu haren eguiteco, obratceco, eta
exerçatececo, noiz eré beré aho sacratiaz erran betcerayen, *Predicate
Euangelium omni creaturae*, predica eçacié ené Euangelia, éta ené Erre-
suma, creatura orori : baiña segurnitz bateré etcela haiñ barna pene-
tratu Iaunaren secretietan, nola Ioandoné Ioannes Euangelista, Escritu-

[60]

Marc 16

[61] rac eré badio, *Recubuit in cœna supra pectus eius, hic est discipulus, quem Dominus valde diligebat*, beré buria paussatu ciala Iaunaren altçoan, eta haren bularretan golcoan, eta hora cela dicipulua, çoin Iaunac handisqui mayté baitcian.

Beharda sinhetzi altço chahu, eta bulhar golco delicatu hartan, dici pulu mayté hare ikhassi, eta ikhussi ciala gauça ederric, eta miragar riric, segurnitz halaber han berian Iaunaren dicipulu digné hare ikhassi eta ikhussi çutiala guri orori, bidi hontçaz, Iaunaren partez erakhussi dutian hitz saindiac, errandudan lekhuan. *Nisi vigilaueris, reniam ad te tanquam fur*, ezpacité egon iratçarriric, ginene nuçu çugana ohoinbat beçala.

Labur laburra Apostolu saindu hunec eguitendu mentioné guré biciaz, eta guré hilteiaz, nola bici bebar dugun abertitzen guitu, eta gaizqui hillen guirela mehatchatzcen haren escola, eta haren doctrina saindia mesperecha badeçagu, biciaz dio, *Si non vigilaueris, ezpacira egoyten vigilantian, eta sentinelan, ezpadecaçu beguira, eta goarda onsa çuré arima gratian, epacité trauailla onsa Iencoaren baratcian, eta minateian, haren manu saindiac, eta haren Eliça saindiarenac deuotqui, eta religiosqui obserua, etsaya, baita bekhatia, vtei badecaçu sartcera curé Arimare gaztelian, eta çuré Arimare camberan, Veniam ad te tanquam fur*, ginene nuçu çuré edireitera ohoiñ anco, ohoingbat beçala, noiz eré içanen baitcira barnago bekhatian sarturie, ordu harten, bat batian ez vtian, cuc vste gabiric, gineneitz gauaz, suprenituco cirut, atrapatuko citut çuré bekhatiaren loan, eta lohian, eta beréhala hillen citut, eçarricodut, eta ehortcicodut çuré gorpitça lurpian eta çuré Arima ifternu çolan badea deus, biciaz, edo hilteiaz haiñ ederric, edo garbiric, nola théologo diuino hunen errana eguiabada, den beçala, ençunic, eta behaturic, haren erraney bai biciaz, bai hilteiaz, guiten, othoy, onsa bici Iencoarequila batian haren gratia saindian, affiñ eta ohoiñ trompur hora, herioa gin dadinian, edo egunaz edo gauaz guré contré, gue hora trumpa deçagun eta, ez harc, gu.

[62] Laur Euangelista saindiac arcordu honbatetan dira, guri eracasteco herioa ohoiñbat dela, eztela hari cer fida, trompur bat dela, nor içanenda persona haiñ simplia eta haiñ elguerra, non daquielaric etsaya bortan diala, eztadin egon iratçarriric armac escuan, beré ohoiñaren, eta beré etsayaren beré etchetic, eta beré bortatic accaçatceco, eta hantic apart loan eraciteco, halacoac behardu confessatu, itxutu dela, erhotu dela etxaya bortan, loac har badeça bada herioa oren oros inguru, inguru guré aldian dago, eta haren yeldurra, eta haren memoria galduric bekhatian barna sarturic, lo eguin badeçagu, erhoac, elgurerac, eta galdiac eternalqui içanen guira.

Eztugu cer dudarie har herioa, eta Iaunaren mecia, ohoiña beçala ginendela, lau Euangelistec egua eder hori erandute, hala dio oraño Joan doné Petri Apostoliac, *Adueniet dies Domini sicut fur*, ginenda Iaunaren eguna ohoiña beçala.

2. Pet. 30.

Hala dio oraño Joan doné Paulé Apostoiac, *Ipsi diligenter scitis, quod dies Domini sicut fur in nocte, ita veniet.* Badaquicie onsa, hala nola ohoiña gaüaz desorenian, ez vstian giten baita, hala hala herioa, Iaunaren mecia ginendela.

1. Thess. 5.

Badaqui mundiac, eta egun orozco vsantçac emayten du aditeera, communzqui ohoiñac beré iocoa iocatu nahi dianian eta beré colpia eguin, gaüaz ichilic, nehorc ikhussi gaberic, ebilten dela, gaüaz bertceren onac ebasten dutiala, gaüaz ohoiñqueriac, eta gaxtoqueriac eguiten dutiala, ilhumpian gendia lodatçala, etchiac; eta haciendas arrobatcen, eta ebasten dutiala, ceren egu arguias ezpaitu corageric aguertceco, eta beré colpu gaixtōē complitceco, lotzaz eta beldurres, egu arguiz beré gaxtoqueria eguin baleça haren falta aguerturic, eta iusticiae harturic, eta condemnaturic, beré faltaren punitionetan, edo recompensutan presonteguia, açotia, galera, edo vrquauias errecebileçan bolurbatec ere publiqui bidé handian, nahi dianian arrogatu marchanta, bideianta, passanta, ata messaiera, cer vsté duçu eguiten diala, bolurrae gordatçenda oyanean edo berte lekhu secretu batetan, bidé handiaren aldian, eta noiz eré marchanta, eta bideianta heldu baitira, bolurra eguertcenda armac escuan, hayen aitcinera, eta pistoleta bandaturic, eta daga punta, çuncurrera eçarriric, dio merchantari, dugun molsa edo bicia, dugun vrrea cilharra, dirua, eta hacienda, ordian merchant miserabliac, beré onac galteen ditu, eta hanitz orduz beré bicia, eta beré onac, iaquin faltaz bolurra bidé hartan gorderic çagoela manera hartan, bai aita familiazeoa, bai merchant passanta galduric, eta arrogaturic, guertatcen dira, baita iratçarriric gaüaz egon ohoiñaren aidura, eta beha, eta berteia, iaquin faltaz, cein lekhutan, bolurra bidé bandian, beha, aiduru, eta goaita çagoen, eta bidé hura vteirie, berte bidé onbaten eduqui faltaz.

[63]

Beré guisan eta maneran eguitendu beré iocoa, eta beré colpia herioac, ezta halaco ohoiñic, ez eta bolurric nola baita herioa, noiz eré baitcira bekhatiaren ilhumpian, lencoaren arguia galduric, baita haren gratia, gau hartan çuncurretic lotturic, çuré loric hobenian, larrutcen citu hiltcen citu, eta bicia edequirie, çuré haraguia, eta larria, ohoiñ bare dohaiñ, ez deusian salteen du lurraldi, eta çuré arima gaichoa deabruari, iratçarriric gratian, egon faltaz.

Volur haren bidé handian, egu arguiz, erran nahidut çuré ossaguarriaren hobenian, çuré adiñaren hobenian, çuré placeren erdian, goitatcen

- [64] citu eta nabi bacira, eta ez curé bicia; eta curé onac oro edequiric, curé haraguiaz eguitendu lur, eta curé Arimaz Iffernuko suaren egur, eta bazea.

Neure adisquidia, hementic escola cité, ohoiñbaten, eta bolurbaten artian gañaz, eta egunaz bici cirela, ohiñac gauaz bolurrac egunaz, trumpatu nahi çutiela, çaudé othoy gañaz gratian iratçarriric, eta egunaz goitan curé azquen orenaren beha, hala eguin badeçaü, herioac emanic eré beré colpu mortala curé haraguiari, eztu emanen curé Arimari, baiña, curé Arimac emanedu azquen colpia herioari, haraguia ren hilteian, eta guero, guré Ienca baita, biciaren eta herioaren launa, harc emanendu beré gloria curé Arimari.

Gaztelu, eta Iaureguy eder, eta bortizbat, etxayac campotic inguru, inguru, assetiaturic eduquiten dianian haren edo bortchaz, edo compositionez hartceco, eta haren guehien, eta nabussy içateco, gaztelu eta Iaureguy haren barnian balin bada garnisoné onbat, guerlaco, eta ahoco munitione franco, eta ororen burian Capitáña, eta soldadoa, badira coraiosac, eta deliberatoac behar denian, onsa deffendiatceco, eta onsa attacatçeco, barnecoac truffatcen dira campocoez, eta azquenecotz Gastelu, Iaureguia, ohorian gulditcenda, eta etsaya, beré pena, eta beré dembora galdurie, desohorez betheric, beré gendiarequila retiratçenda.

Baiña Iauregui harten ezpada armarie, ezpada cer Ian eta edan, ezpada Capitanic, eta soldaduric, edo içanic eré ezzadira coraios, eta deliberatu, eta diren poltroignac, eta bihotz gabiae, adios Gaztelia, adios Iaureguia, *Ville gaignée*, hiria hartuda, etsayac eguinendu Iauregui, eta gaztelu harçatz nahi diana.

[65] Guré Arima da, gaztelu, eta Iaureguy ederbat, eta bortitzbat, momento oroz gaztelu haur, campotic, eta barnetic assetiatuda, attaquatuda furiosqui, eta pausu gaberic, haren etsayac dira, deabrua, mundua, haraguia, eta berteé etsay visibiliac, eta inuisibiliac, guerla campotic, ota barnetic, etsay gaixto hec, Iauregui eder hari, Arimari, eguiten duté, hala, nola, Lehoiñ furiosac, eta oso gossé minthiac, ardi gaichoari eguiten baitu, hala dio Apostolu batec, *Tanquam Leo rugiens circuit querens quem deuoret*.

I. Pet. 5.
Baiña noiz eré arima eder haren camberan, gaztelian, eta Iaureguian, munitionia, baita franco, erran nahidut, orationia, bigilantia, humilitatia, eta berteé bertatia elguarrequila baitira iuntatcen, noiz eré Capitáñ çuhur hau, herioaren, hilciaren memoria, orhitcia, eta veldurra, soldado coraios, resolutu, eta deliberatu hau Iencaaren veldurra edireiten baitira adios campoa, adios etsayac, ohoria barnian, desohoria campoan guelditcenda baiña halaber arima haren, gaztelu Iaureguy haren Camberan, ezpada prouisioneric, ezpada bertuteric, ezpada Capi-

tanic ez soldadoric, ezpada herioaren, hiltciaren veldurric, ez orhitceric, ezpada Iencoaren veldurric, ez amrioric, hartu da Gaztelia, hartu da Iaureguia, Ioanda Arima, galdua arima, *Ville perdue*, hambatequi, neuré Adisquidía, has, eta akhaba, *A primo ad ultimum*, herioaren veldurra badu, asqui du, herioaren veldurra ezpadu galdu cira.

Arquabusariac churia honquitu nahidianian, eta ehiztariac beré ehicia caussitu, eta hil, nahi dianiā, batac eguitendu so beré churiari, eta bertciac beré ehiciari, esquin, ez ezquer, beré beguiac, beré bessoac eta beré Arquebusa makhurtu gabé, eta ordian bai batac, bai bertciac, haduté esperança, nore beré colpia onsa, eta hurosqui eguiñen diala, batac honquituco diala beré churia, eta bertciac beré ehicia : baiña den mendrena beré beguiac apartalcen badituztē batac beré churitic, bertciac beré ebicetic, colpiaren artiquitian dangerousda, lumac haragua craman deçan, eta Arquebusaria, beré bala, beré bolbora, beré drageac eta beré pena galduric, confusionetan, eta desohoretan gueldi dadin, eta haren irabacia oro içanen den bi çhabeté sudur, erran comuna den beçala.

Neuré Adisquidía Iencoac mundu huntan eçarri citu onsa bieiric, onsa hilçeo, eta onsa hilic, Ceruco gloria eternalaren emaiteco çuré hiltcé onaren pagutan, eta recompensutan hiltcé ona nahi badu, eguiú so ardura, ardura herioari, herioac çuri oren oroz so eguitendu, çue hari eguiú so, çue hora, edo harc çu trompatu behar çetu, locoa eta partida colpubatez doa, edo çue herioa edo herioac çu trompatu eta enganatu beharducié, ezta itçulceric, eztabihuriceric, edo gal, edo irabatz, lehen colpian doa gauça oro, onsa hil bacité, Parabissua çuré gaixqui hil bacité Ifernua çuré hartacotz errádu ederqui, eta çuburqui Apostoliac mundu gucier. *Statutum est omnibus hominibus semel mori*. Ordenatu dela guiçon eta emazté orori, behin oroc behar dutela hil, ezta biric, ezhiruric, erranda behiñ, *Semel*, colpu hari; gogoa emaçu, hari faltarieez eguiteco, çaudé presto gratian, bekhatutic campoan, hala eguiteco, herioaz eta hiltciáz orhiteit, eta colpu hartan iagoiticotz çuré Arquabusac herioaren contré eguiñendu colpu, eta herioaren arquabusac eztu eguiñen colpurie, çuré hiltcian, çuré Arimaren contré.

Æsopus, espiritu aleguera, eta placent harc, còdateendu ederqui beré librian, eta beré fabuletan, egun batez lehoiña, baita animal ororen Erreguia, eta noblena eritu cela, eta çahartu, edo aumens eguiñ ciala, eriarena, eta lecē barnabaten colara Ioanic, han çagoela heda heda etçanic, noiz lo, noiz iratçarriric, lehoiñ hunen eritassunaren berria bertce animalec entçun çutenian, oroc, nore beré aldián, bedera, bedera, beré visita eman çutela lehoiñ hari, eta oro Ioan cirela haren ikhustera, cer ysté duu lehoiñ harc, cer finecia, eta ioco eguiten

[66]

ad Hebr. 9

[67]

ciala, Ioan becaubat, hiltgen çutian oro, eta çuntçurretic loturic, odola orori edaten, eta egosquiten, eta moyen hartçaz eri çela eztacuria harten, beré chilotic, eta beré lecetic higuitu gaberic, bonachera eguiten cian eta beré dembora onsa, eta alegueräqui igaraiten, animalé misérable hayen odolareñ despendioz, finalqui cer heldu cen? Acheria, baita Animalé ororen fiñena, Ioanda beré tornian lehoiñ hunen visitateera, eta beré Erreguiari beré eguiñ biden errendatçera, heldu denian, lecé, et chillo haren tinira eta mugala, sobat eguiñic lecé hari ikuSSI ditu gaiñeti behera Ioan ciren Animalen hatçac eta herechac, eta eztu ediren, ez ikuSSI bateré hatcit, ez herecharic, peti gora, lecé çolatic goiti itçultcen cenic, hambatequi iuiatudu çuhurqui Acheriac lecé harrat Ioan ciren Animaliac oro galdu eta peritu cirela ceren ezpaiteen batere goiti itçuli, ez bihurtu, juiatndu halaber, etcela on, eta segur leçe harta, behera ioaitia, pensamendu harten çagoela, noizpait bassida Lehoiña mintçateen, eta dio, ma comere, sarcit, auança cité hericé oroc, cuc baici ikuSSI nuté, neuré ohian, eta visitatu neuré eritassunian, cuc eré ikuSS neçaçu, acheriac arrapostu emaitendu ederqui, lehoiñari, eta dio, ené Erregua, eri bacira, sendo cité, ordu honian, bementic çuré ikuStiaz contentniz, enaité haboro auantça, bidia ikuStendut çuganat giteco, baiña eztut ikuSten bideric çuganic hunat giteco, lencoia lagun daquicula, eta sendo çitçala, çuganat gin direnac, giteco balira, bat eliteçu gin, guisa harten acheriac beré bicia salbatu cian, eta itçuli guibelerat.

Neuré adesquidia, guré aitcincoac oro Ioan dira, hit dira, gu eré hillen guira, eta guré ondocoac eré bai, behiñ hil dira seculacotz, bat ezta itçultzen herioaren chilotic, eta hobetic, behiñ hari, othoy gogoa emaçu, ordian falta eguin badeçaçu, iagoiticotz galdu cira, eta azquen oren harten, çuré azquen urhatssa, eta laucia, onsa eguin deçaçun, çuré bici orotan prepara cité çaudé sentinelan, çuré dembora orotan eztu behar ikuSSI lectioné baicoitzbat baici, horida onsa hilcia, ikhas eçaçu onsa çuré lectionia gañaz, eta egunaz, orena gin dadiñia, çuré lectionia onsa ikhassiric, eta onsa erranic, lencoia baitan onsa hil citian, eta ceren lectione hori ecin ikuSten baitigu, guré bieian, herioaz ezpaguira orhitzen, bercé eguitecoac oro vticiric ala part, educaçu, çuhur bacira, oren oroz, çuré hiltciaren, eta çuré herioaren memoria, eta veldurra, çuré beguien aitciñian, eta çuré Arimaren camberaren erdi erdian.

Laborariac beré elguian, beré oguia, edo artoa vrté batian galçen diañian, harria, chicherra tempesta, oragia, odea, eta lanoa dela causa, eztu galtegen hargatic beré esperantça, ondoco vrtian beré damia, eta beré galteia vsté du reparatuco diala, vrtia gin badadi aberatz, eta prospero,

Arçaignac mendian beré ardia, eta aharia vrté batian galduric eré,edo berae hillic edo otsoac, eta hartçac Ianic, eztu galteen beré coragia, eta beré esperantça, vstez ginен den vrtian, guehiago fortuna, eta prosperitaté v Khanen dian beré Ardietan, eta beré aharietan.

Erreguiac, Princiac, Capitaigñac, Soldadoac, beré combata, eta batailla guerlan egun galduric, eré vstedu biharamenian, dicha, eta fortuna hobé, v Khanen diala, eta egun haren etsayaec badu hartan auantailla, harc bihar, hartan v Khanen diala.

Localariac beré urhia, cilbarra, eta morsa oro galdu dianian, eta iocatu, edo cartetan, edo datoetan, edo bertce coinbat iocolan, badu esperantça, lehen iocoan, iocatu cian dirua, irabacieu diala, eta nola iocoa, eta armac baitira erorten behin aldé batiala, guero berciala, Iacolariac, eta soldadoac, baduté esperantça, egun içanic eré malhuros, bihar içanen direla dohatsu eta huros, bata beré Iocoan, bercia beré armetan, hala dio eré poetac latinez, *Victorem a ricto superari sepe videmus*, ikhuste dugu banitz ordus garaitiac, garaicalia, garaitcen diala hitzbatez hanitz erran deçadan ezta mundian gauçarie hain galduric, eta desperaturic non eztia cerbait erremedio, eta confortu, herioac baici harc eztu, eta ez v Khanen, bargatic, neuré Adisquidia, çaudé beha, ceiñ aldetaric ginén den, behiñ ginен da, baiña ez guehiago, behiñ hartan, haren colpiac atrapateen bacitu estatu onian, gratian, Ifernuaz, Deabruaz, ikhatiaz, eta herioaz, iagoiticoz truffatueo cira, Ainguere artian, Arima hurosen artian, iarriric egonen cira. Baiña haren colpiac estatu gaxtoan, bekhatian, atrapatzen bacitu, erraçu adios, curé Paradiso parte onari, eta segurta cité ifernian ediren duçula Cambera gorribat, oro suz eguiña, eta han iagoiticotz chispilduric, eta erreric egonen circula gauaz, eta egunaz, erraiten dian beçala Escritura saindiac, minço delaric Dæmonioez, eta Arima damnatuez, *Cruciabuntur die, ac nocte in sæcula sæculorum*, Turmentatu içanen direla sæculacotz, gauaz eta egunaz.

[70]

Hala nola erran baitu, mintço delaric Ainguereuz, eta Arima benedicaciez, hurosez, eta salbatiez, Propheta Royalac, *Beati qui habitant in domo tua, Domine, quoniam in sæcula sæcularum laudabunt te*. Iauna huros dira, çurequila curé Eresuman, curé Etchian, curé Camberetan, curé Glorian egoiten, eta habitateen diren gendiac çeren halacoec, eternalqui benedicatuco çutié, eta laudatuco.

Hautia guré da, edo Paradusia, edo Ifernua, Paradusia nahi dianae, orhit bedi beré hiltciaz Ifernua nahidianac egün deçan lo alegueraqui beré hiltciaz orhitu gabé salbatu nahi denac, eta damnatu nahi denac, eztiro ediren conseillu, manu, edo erremedio hoheric, enia baiño.

[71]

Nahi nuque Guiçonac, eta Emaztiac, goician beré obetic ialquitian,

pensamendu hau, beré gogoan harleçan, egun aguiān, arratssa, eta ilhuna gabé, neuré oherat Ioan gabé, hillen nitz deçadan iguruqui neuré orena estatu onian.

Nahi nuque halaber, bai Guiçonac, bay emaztiac, arratsian, ilhunian, oherat Ioaitian, beré bihotcian, eta beré Ariman eduqui leçan abisu on hau beré buriarequila, aguiān bihar goicianneuré ohian hillic edirenén nuté aguiān gaur hillen nutéedo hillen nitz, egon behardut estatu onian herioaren aiduru, cer hel eré nagoen presto, enian usteric hel eztaquidano, hala haridiren guiçon eta emaztiac, edo oro, edo haboroac salbatiac doaça, hala hari eztiren Guiçonac, eta Emaztiac, edo oro, edo haboroac galdiac, eta damnatiac doaça, eta ceren hala haridirenac baitira guti, eta hala arrieztirenac, hañitz, guti dira salbatiac, eta hanitz damnatiac, Euangelistac erraiten dian beçala, *Multi sunt vocati, pauci vero electi.*

Figura, eta parabola ederbat dago iarriric Escrituran S. Matheu baitan, çeren onsa heldu baita bidi hunçaz ikuhi behardugu ceiñen ederqui, espiritualqui éta goraqui mintço den, onsa hilteco bidiaz, baita, hiltciaz, eta herioaz orhitecia.

Dio Euangelistac parabola sainctu harten, *Simile est regnum Caelorum decem virginibus quae accipientes lampades suas exierunt obuiam sponsos, & sponsae quinque autem ex eis erant fatuæ, & quinque prudentes.* Cetuco Erresuma hamar virginac idurida, eta hayē paré da, hamar virginā hec Ioan ci ren beré lampac harturie espos, eta esposaren bidera, hayen beha egoitera, eta hayer beré lampequin ohoré eguitera, hamar virginā hetarie bortçac heldu ciren erhoac, eta elguerrac, eta berte bortçac, çuhurraq, dicretac, eta modestac, bortz virginā erhoec etçuten cōdurie eguiñ, lampen hartcian berequin oliorie hartcera, baiña bortz virginā çuhurrec eguiñ çuten ordu onez prouisioné gauça guciez eta beré onciac eta lampac olio, onsa garniturie eduqui, virginā hec hâbat çuhurraq, nola elguerrac, aidura daudiala, eta beha espos esposaren, hayen asqui orduz gin, edo arriuatu faltaz egunaz gau ilhuna, eta beltça bilhatu çuten, hambatequin hamar virginā gaieho hec, nola berandia baitçen, eta desorena, loac inganaturie, eta trompaturie, oherat Ioan ciren, gaüerdiaaren ingurutan açantz, eta oibu han dibat heldu da erraiten dialarie, espos esposac huna dira, ialqui citezté hayen erreccibitcera, ordian virginac oro çutiturie, norc beré lampac, çuhurrec, bereré ornatu çutien, eta preparatù, virginā elguerrac hassi dira erraiten çuherrer, igucié parté cien oliotic, guré lampac hil dira, eztugu arguiric, baiña çuhurren arrapostia çen hau : çoazte ordu onian marchanten botiguetara, eros eçacié gue beçala, guretic cier parté emanie, ezcunduqué asqui cien, eta guré, arté harten, elguerrac olio erostera

Math. 20

[72]

Math. 25

ioaten cirela, esposos esposac, eta hequi la bortz virginia çuhurrae ezteitan sartu dira banquetian, eta ostatiaren portalia guiltçaz cerratu, *Clausa est Ianua noizpait bortz virginia erhoac heldu dira oibuz portaliaaren truccatceria, Iauna, Iauna, othoy idequicaguço portalia, baina barneco arrapostiac dio, çoazté passeura, etçutiet eçaçutzen, egon citezté higilant, eta presto, ceren ezpaitaquicié eguna ez orena, Nescio vos.*

[73]

Hamar virginen Euangelioa eçarridut eusquaraz ossoqui, ceren ederra baita, eta hantic esperança baitut idocico dugula gauça ederric ené onsa hiltçeco bidiaren fauoretan.

S. Augustin Eliçaco lehen doctorac dio bortz virginia çuhurrae salbatu cirela, eta Esposaren ezteletan vhençutela beré partia, ceren beré virginitatia Iencoaren amorecatie, baitçuten beguiratu, eta ez mundiaren amorecatie, oro lencoagatic, eta ez deus mundiagatic.

Halaber bortz virginia erhoac galdu içan cirela, ceren beré virginititia bai tçuten conseruatcen ez lencoagatic, baiña munduco ohoriagatic, oro mundiagatic, deusere lencoagatic, bortz virginia çuhurrae salbatu cirela humilitatia cela causa, eta bortz, virginia elguerrac galdu, vrguilia cela causa, hala dio Doctor saindiac. *Sed quia ista continentia partim coram Deo fit, ut illi placeatur interiore gaudio conscientiae partim coram hominibus tantum, vt gloria humana capiatur, quinque dicantur sapientes, & quinque stultae, etræque tamen virgines, quia etræque continentia est, quamvis diuerso fomite gaudeat.*

Virginitatia, eta chahutassuna, bi aldetic consideratecenda, edo conscientiaren barneco placeraren, aldetic, lencoaren amorioz conseruatcen denian, edo munduco aldetic, noiz eré mundiaren eta guiçonen amoroz beguiratzen baita, hargatic bortz virginiac ciren çuhurrae, eta bortz erhoac, oro virginia baiña bortceec Iencoa gogoan, eta bortceec munduco laudorioac gogoan.

Hom. 5
Aug. de verb.
Domin. sec.
Math.
Serm. 22

Eguia hori hala dela, segurtatçenda, ceren doctor saindu bare berac, erranden lekhuan baitio, *Multi enim quamvis de Christi bonitate plurimum sperent, gaudium tamen non habent, dum continenter vivent, nisi in laudibus hominum.* Haiñitz personac esperança duté Iencoaren ontassunian, eta misericordian, beré virginitatian eta puritatian baiña bere bihotcetan, eta concientian ez hartçen placeric, munduco laudorietan baici aguerida hantic, hamar virginen fortuna bortz çuhurrae saluatu humilitatiac, bost elguerrac galdu vanitatiae.

[74]

Galda haneçagu nontic heldu cen hamar virginia hayen dicha eta ventura differenta, erranendut, bortz çuhurrae orhitu cirela herioaz eta bortz erhoac etcirela orhitu herioaz.

S. Gregorio doctorac dio eztela asqui gaizquiric ez eguitia, saluateeco, baiña oraño behardela onsa eguiñ, euitatu bekhatu mortalac, eta eguiñ

obra onac, *Minus est mala non agere; nisi etiam quis studeat bonis operibus insudare*: Gutiché dela gaizquiric ez eguitia, bat bedera, ezpadadi enseia obra onen eguitera Doctor saindu harc berac dio oraño erran den lekhuan castitatis, virginitatis eztela on, gutti dela, ez deusa dela, castitatis, eta chahutassuna gabé. *Nec castitas ergo magna est sine bono opere, nec opus bonum est sine castitate.*

Hementic neuré arraçoña idoquitendut bortz virginia çuhurren aldé, eta bortz virginia erhoen contré, eta diot bortz virginia çuhurrae, ezcuela solamente, haraguiren bekhatia euitatu, faltaris ezçutela beré ohoriare cōtré egun baina guehiago beré obra honestan, misericordian, caritatian eta berteé actioné honestan perseueratu cirela heré lāpac olio betheric, pizturic eta arguirica presto eduqui çutiela, hartacoz espos espasac gin cirenian, ediren çutiela behatua gabé, eta obra honestan, eta forma, eta dispositioné hon, eta eder harten ediren çutialacotz, errecebuitu çutiala beré companian, eta iuiatu digniac beré ezteyen banquetian hayequila batian placer hartceco.

[75] Eta çeren host virginia erhoec vkhanic eré beré ohoria, eta beré virginitatis osso, ezpaitcuten beré lampetan arguiric ez olioric, erran nahi-dut, ezpaiciren emplegatzen obra honestan, misericordian caritatian, eta berteé actioné ederretan, eta meritorio direnetan, hori dela causa priuatu içan, ciren espos, esposarén compagiatic, eta hantic, eta hayen ezteyitaric, desohoré handirequi accaçatu.

Erran den beçala, saluatceco, bi gauça beharda, ez egun bekhaturic, eta egun obra honie, host virginia çuhurrec, bi gauça hoc baçutien, baina host virginia erhoec, etçuton bi gauça hetarie bata baicy, baina seonta ez, çeren hayen lampac hilic çaudian, olio gabé, argui gabé, hori da arraçoña, çergatic, host çuhurrae baitciren salbatu, eta host erhoac damnatu.

S. Gregorio doctoraren pensamendu saindia cōfirmatçendu guré launaren erranac, guisa hontan, *Sint lumbi vestri præcincti, & lucerna vestrae ardentes in manibus vestris.*

[76] Cien haraguia, cien erraignac, cien gorpitac, onsa guerricaturic iduqui itçacié, cien haraguiren acculiac, eta tentationé gaixtoac, dau-dian, onsa bridaturic, esteccaturic, eta mortificaturic, ez egun bekhaturic, eta guehiago cien lanternac, eta lampac ez beudé pisturic, egun beçaté argui mundu orori, egun eçacié obra honie, mundu gucier, cien obra honen moyenez eman eçacié exemplu honie, eta çeren hori, amo-recatic, mundu guciec, chipiec, eta handiec, guiçonec, eta emaztec, cien obra honac, cien exemplu honac ikhussiric, eta admiraturic, glorifica deçaten, lauda, mayta, eta adora, ené ayta eternala, ceruco, eta lurreco lencoia.

Soguię nola nabussia, eta dicipulua, biac accordateen diren bercé gaucetan beçala, pundu huntan eré eta biec bat erraiten, saluateco bi conditioné direla necessario, bekhaturic ez eguitia, eta obra honic eguitia, eta çeren ezpaita damuric, ez desohoreric, gauça ederren eta honen, biguetan, erraitia, *repetita placent*, biguetan erranendut, virginia çuhurren ventura eta fortuna hurosa içan cela cerē espos Iaunac ediren baitçutian gau erditan, bekhatu gabé, eta obra honen barnian.

Halaber bost virginia erhoen ventura, eta fortuna idorra, eta malhurosa içan cela, çeren ediren baitçutian bekhatu gabé, baina ez obra honen barnian.

Hemen soguię orano, nola ederqui guré Iaunac explicatcen dian doctor handi haur, eta doctorac guré Iauna.

S. Gregorio doctorac aipatu, eta icentatu dugunac dio guehiago, dia[77]larie explicatcen hamar virginen Euangilio saindia, gendé batçuc, beré buriac abstinentia, eta continentia handibatetan mātenatcen dituztē, beré gorpitzae, beré haraguiac, açotatcen eta mortificatçen, beré esperançac cilian eşarten, beré obra hon, eta triuallu honegatice, munduco, eta lurreco ohoriae, eta laudorioae refusatçen, halacoee beré ohoria, eta beré gloria eztuté eşarten guiçonen mihiān, eta ahoan, baina beré obra honen meritia, eta ohoria beguiratçen beré arimaren eta concienciaren camberaren barnian. *Hi nimirum gloriam suam, non in ore hominum ponunt, sed intra conscientiam contingunt.*

Bada bercé gendé batçu, eguiten baituztē obra honic, eta ederrie, beré gorpitzae, beré haraguiac, beré passioniac bridatçen, garatien, eta manatcen, baina guero, beré obra hon eta ederrē ondoan, müduco ohoria, eta laudarioa chercateen, eta desiratcen, oro mundiagati, deu-seré lencoagati, halacoē obra, hilac dira, alferac, eta inutilac. Hala dio doctor harc berac, erran den lekhuan, *Sunt plerique qui corpus per abstinentiam affligunt, sed de sua abstinentia humanos fauores expetunt.*

Hala guerlatu cen bost virginia çuhurrer, hec beré ohoria gincoagati beguiraturic, espozaren banquetian honquî gin içan cireu.

Eta çeren bost virginia erhoec, beré ohoria mundiagati baitçuten beguiratu, eta ez lencoaren gloria gati; espos, espozaren, gratia honac gal-duric, portalia ediren çuten cerraturic, eta galdu miserablequi espos, eta espozaren banqueta, eta bona chera handia.

Neuré adisquidia erranen duçu, sobera lucé niçala hamar virginia hoyen istorian, bada orano behar duçu pacientia hartu, nahibaduçu ikhussi istoria hontan onsa hiltceco bidiaren secretu, eta abantailla honbat, eta ederbat, S. Augistin, eta S. Gregorio, biac arcord dira, baquian dira, hamar virginen eguitecoan, hetaric landan emanendut neuré abisu eta conseillu hona, eta diot S. Augustin Iaunarequin batian,

bost virginia çuburrez, endelguaiçen direla, arima salbatiac, eta bost virginia erhoez, eta elguerrez, arima damnatiac, Iencoari datsala, equitecoa erditio Ioan dadin, hain veldurniz, damnatien parti handiago, içaneu den, eciez salbatiena, cere erran baitu Escriturac, *Multi sunt vocati, pauci vero electi, deitatiac hanitz direla, baina bereciac gutti.*

Math. 25.

Hom.
S. Augut. de
verbo Domini
secundum
Math.

Ené pundura gin nadin, bost virginia çuburrac dira salbatiae, eta bost erhoac damnatiac, hala dio S. Augustinec, *Decem Virginum quod quinque admittuntur, quinque excluduntur, bonorum, & malorum discretionem significat.*

Onsa hiltceco bidia, hementic poroga deçadan, erayten dut, eta eranendut, guré azquen orena gin dadinian, Iesv-Curisto launa baita guré arimen esposa, iuiamendu particularian ginen dela guré arimen iuiatçera, eta iuiamēdu generalian, guré arimen, eta guré eta guré gorpitzen, hilic, edo biciric seculacotz iuiatçera, iustoac edirenent ditu gratian, bekhatu gabé, beré lampac pizturic, halacoer emanendu bere gratia, eta beré gloria.

Gaixtocae edirenent ditu bekhatian, beré lampac hilic halacoer emanendu punitioné ifernuo su eternala, iustoac v Khanendu Paradusia, ceren herioaz orhit içan baita, bekhotoriac v Khanendu ifernua, ceren herioaz ezpaita orbit içan ené érrana hala dela porogatçendut, loa, eta herioa biae, bat dira, differencia ezta handi, poetac eré hala dio, *Stulte quid est somnus gelida nisi mortis imago.*

Erhoa, cer uste duçu dela loa, herioaren imagina eta figura baicy, guicona, eta emaztia loac artuz gueroz, beré lotic irat çar artino, hilac dira, sendimendu oro galduric, hila ere, hilez gueroz, considera badeçaçu hilaren gorpitça, azquen iuiamendia gin artino, Ioan dago, hila da, eguiá da hilaren arima bici dela, ecin hiltçen da, nola baita immortal beré naturaz, hambatequin loa eta herioa biae bat, arima eternalqui bicicoda Paradusian, edo Infernian, edo Purgatorioco penetan, gratian mundu hontarie partituric, beré bekhatien penaren pagatçen beré çorrac paga arteno.

Saintua saindiac eré loa eta herioa biac bardin estimatçen ditu, noiz eré Lazaro, Iesv-Christo. Iaunaren Adesquidé handia, Maria Magdalena, eta Maria Martha anderan anayé propia, hilez gueroz guré Iaunac piztu, eta resuscitatua baitcian beré, hitz saindiaren vertuté handiaz, guré Iaunac erran cian, *Lazarus amicus noster dormit, sed rado, et a sonno excitent eum.* Guré adisquidia Lazaro lo dantça, baina banoa iratçar deçadan. Lazaro hila cen, ala baina lo çagoela dio Escriturac, nic eré diot loa eta herio biac bat direla.

Ioan. II.

Iondoné Paulé Apostoliac eré erraytendu loa, eta herioa, biac bardin

direla. *Nos qui bibimus, qui residui sumus in aduentu Domini, non præueniemus eos qui dormierunt.*

Ad Thess.

Hilac, hil dira, guré aitcinecoac Ioan dira, gu orano biei guira, mun-dian guira, baina Iaunaren eguna gin dadinian, lo dançanac eta gu bardin Iaunaren aiteinera helduco guira, soguię nola Apostoliac, loa, eta herioa biac baten hartçen dutian.

[80]

Iaun apheçac eré aldare saindian, meçaren sacrificio saindia Ienco handiari, beré, eta beré populiaren partez, hilegatic, eta bieiegatic ohorescateen dianian, beré azquen mementoan erraitendu, *Memento etiam Domine famulorum, famularunque tuarum, qui nos præcesserunt cum signo fidei, & dormierunt in somno pacis.* Iauna orbiteité çuré çerbutçariez, mutil, eta nescatoez, guré aiteinian Ioan direnez, fedé honian, eta lo honian lo eguiten dutenez. Soguię nola Eliçac othoy eguiten dian meça saindian hilegatic, eta nola herioa, eta loa, bala bertciaren hartçen dutian.

In can.
Missæ.

Hamar virginen historian eré irakhurtçen dugu : *Dormierunt omnes, & dormitauerunt, oro loac hartu çutiala, hambat çuhurrac, nola erhoac, hantic errá nahida, iustoac, eta bekatoriac oro reserbu gabé loac hartuco dutiala, oro hilén direla, ordonançac erran diau beçala, Statutum est omnibus hominibus semel mori,* lehen eré passage haur allegatu gundian Apostoliac erranie, ordenatu dela guiçon, eta emazté orori, behin hil behar diala, ordu harten iuiamendu particularian, eta gene ralian, espos Iauna, baita Iencoaren semia, jugé ororen jugia, Iaunen Iauna, ama virginia baten sabelian gugati guiçon eguna, ginenda, eta arima miserabliac, eta galdiac, baitira rapresentatcen, virginia elguerroz beré lotic iratçarrirrie acaçatueo ditu beré ezteyetarie, beré mahañetic eta beré gloriaren portalia cerraturic, igorrico Ifernuco sura, eta pene tara. Hala nola arima hurosac, eta salbatiac errecebítuco baititu beré ezteyetara, beré mahañera, eta beré gloriaren portalia idequiric, eta çabalturic, emanen çelian seculacotz beré contentamentu, eta felicitaté æternala, çeren hori? çeren arima honac, ardura, ardura beré hilciaz orhituric, edirenен baititu espos Iaunae hilcian, bekhatu gabé, beré lampac pizturic gratian barnen, eta aldiz arima gaxtoac, beré hilciaz, iagoiti orhitu faltaz, edirenен baititu, gratiati campoan, bekhatiaren Ioan, eta Iohian.

Ad Hebr. 9.

[81]

Hambatequi neuré adesquidia, iaquin eçaçu segurta cité esteçaçula dudaric har, salbatiac salbatu direla, beré herioaz, eta hilciaz ordu honez orhitu direlaco, bost virginia cuhurren paré, eta arima damnatiac, damnatu direla, bost virginia erhoen paré, beré herioaz, eta beré hilciaz, ordu honez orhitu faltaz. Bide haur combat hon, eder, eta segur den, hortic iuiaeçaçu, eta nabibacira onsa, bici onsa hil; eta espos

launaren banquetian plaçer harku seculacotz, coaça chuchen bide hontçaz herioaz orhitcíté, *Memorare nouissima tua, & in æternum non peccabis.*

Egunbatez Espagnol bat beré bidian coala edire cian horbat bortabatetan, eta horac vssiqui cian Espagnola igaraitian çancotic, horalen contré asqui onsa defendiatu faltaz, berteé egun batez Espagnolac hor hura bera ediren cian borta hartan berian lo çantçala eta ezpata bait-cian beré saihetxian, idoquiric eta buluciric beré maguignatic, eta beré furreiotic, hora hilcian, ezpata colpubat emanic, eta guero ikhussi-cinian hora hilic, edo hilçen, erran cian horari, beré lenguagian, Espagnolez, *Inimigos tienez, é dormés, erran nahi baita guré lenguagian euscaraz, etsayac vkhen eta lo eguiten duc.*

Arraçoin cian Espagnolac hala erraitera horari, ceren etsayac dutianac, ezpaitu behar lo eguiñ, baina bai egon iratçarri, çoin aldetic ginendegunaz, edo gaúaz, haren attaquatceria.

[82] Bada neuré adesquidia, herioa baita guré etsaya, eta launaren mecia, eta haren mandataria arraçoin vkhendu çuri, eta niri, erraiteco, gin dadian, ezpaguité egon presto gratian haren aiduru eta beba, *Inimigos tienes, y dormés, etsaya oren oroz bortá dugu, guré etchian dugu, guiten egon prest, gratia, nahi ezpadugu ikhussi guré arimen hilecia, galicia, eta ruinamendu totala.*

Æsopus, filosopha eder, eta maîtragarrí harc dio, cicada deitatiçen den hegaztin, eta chori cantaçalé harc, vdan beré dembora oro, cantuz, eta alagaranciaz, emplegatcen diala, eta inihurria baita, animalé chipibat, eta çuhurbat, beré vda oro emplegateen diala, triuailluz, eta penaz prouisioné eguiten, eta bazca hiltcen, beré neguiaren onsa igaraiteco, gossiaren contré, eta guero neguia heldu denian, cicala elguerra gossiae hiltcen diala, vdan, neguiaren igaraiteco, beré bazcaren biltu faltaz. Baina gauça contra helcen dela inihurriari, nola harc vdan çuhurqui, eta ordu honez beré bazca, eta prouisionia eguiten baitu, beré neguijan, alegueraqi emplegatcen diala, cicada neguijan gossiac hiltcen, inhirria neguijan assiac, eta bona cherac, enteritenitzen, eta alegueratzen.

Hala dio philosophae beré fablian : *Cicadæ olim æstate assiduis cantilenis indulgebant, formicæ vero laboribus, fructibusque colligendis studebant, hieme adueniente, cicadæ fame perierunt, formicæ vero, ex ijs, quæ collegerant vescebantur.*

[83] Neuré Adisquidia, hala içanenda arima honez, eta arima gaixtoez, mundu hontan guireno, bici guireno, vdan guira onsa* guira ginenda neguia, ginëda herioa, ezpadecagu ordu honez eguiñ prouisioné obra honez, ezpaguité ordu honez hileiaz, eta herioaz orhitçen, guré arimac

bertc  mundian gossiae hilen ditu, Iaunaren auharian eztugu vkhane  parteric, ez bochiric cicada miserabl , eta elguer hayer, heldu cen becala, helduco caucu, guri er .

Hala nola segur baita, iniburriac becalo egui bade agu, gure vda, gur  gaztetar cuna, emplega bade agu, obra honetan, Iencoaren cerbutcian, gin dadinian gur  neguia, herio belt a, hotca, eta tristia, vkhane  dugula Iaunaren auharian gur  parte hona, ohor , laudorio, benediction , gratia, eta gloria, halaxeman cian ber  promesa gur  Iaunac ber  Apostolier, eta hayen personan guri orori, bat bederari; *Gaudete & exultate quoniam merces restra copiosa est in C『rlis.* En  Apostoliac, en  Dicipuliae, en  Fidelac, eta leyalac, cien paguia, cien recompensia, celian dago handirie, eta  abalie, cien aiduru, cien beha, edukhaci  hon amorioan, en  cerbutcian, en  heldurrian, en  leguian, eta Euangeli an, ez branla, ez cordoca, ez cambia, en  pian, enequin, enegatic, bicit eco, eta hil eco hartz ducien deliberamendu, eta resolution  saindia.

Math. 5.

Coroa irabaci nahi dianae, behardu onsa combatitu mundia, deabrua, haraguia, eta ber  passioniac oro, beharditu, gormandatu, a otatu, crucificatu, eta garaitu, bertcela, eztuqu  berte  mundian Coroarie, hala errandu Apostoliac, *Non coronabitur nisi qui legitime certauerit,* ezta coroatu i anen coriosqui eta legitimoqui combatitu eztena.

Neur  adisquidia ciren othoy, mundu hontan inihurria iduri, inihuria n par  egui  othoy prouisione obra honez ord u honez, hurac baituko  aut u berte  mundian, Iencoare  aitcinian, eta Ainguri n aitcinian, Ainguri  ogua, cur  gogara, placer du unian i anen du u.

[84]

Et cirela, othoy, cicada elguerra iduri, cicadaren par , chori erho hura imita bade agu, mundu hontan, iaquin e a u, Luciferren ogua, baita Ifernian, suz, eta khez eguna, i anen dela secula otz lab  gorri hartan, cur  ogua.

Ela  eren communsqui herioac gur  arimari edequit n, edo emaiten baitu ber  Coroa, edequi ezt a u un pundu hertsi hartan cur  arimarena, herioaz orhite t  ahal becain ardura, prepara cit  aicinetic, bilhoa vrdintcera, eta churitcera vt i gab , cer guisaz, eta nola, harequila comparitudo ciren, nola haren colpu mortala errecebitu o du un, nola haren so belt a vel uri, odeicia, eta beguitart  ichussia, eta horriblia, sofferitu o du un, pensamendu, eta meditation  saindu haur, cur  gogoan eduqui bade agu e arniro ehun, hamarren contr , edo mila ehunen contr  deabruaren despit, bekhatiaren despit, herioaren despit, cur  arima mundu hontaric, gratiaz, eta coroaz beteric, celurat ioanen du.

Baina medailla berte  alderat it ul de adan, enuqu  nahi apostatu

[85] biga, milaren contré curé gratiaren eta gloriaren aldé, expaduē ardura herioa bihotcia, eta gogoan ceren, neuré espissoa, veldur niz gal neçan, eta çuc, curé arima, nic daducat fermoqui, eta fedé harta nahinuē bici, eta hil, herioaz orhitçen eztiren gendiac oro, galdiac, eta damnatiac direla.

S. Augustin Iauna da ené bermia, eta ené autora rencontru hontan, erraiten dialaric ene aldé, eta ené fauoretan, *Vix potest bene mori, qui male rixerit, & vix potest male mori, qui bene rixerit*, nequez, eta borchaz gaixqui hiltçen ahal da, onsa bici içan dena, hala nola, nequez eta borchaz onsa hiltçen ahal da, gaixqui bici içan dena.

Eta nola quasi impossible baita, nehor onsa biciy ahal dadin, herioaz orhitu gabé, hargati diot, miraculuz campoan, impossible dela nehor onsa hil dadin herioaz orhitu gabé, eta herioaz orhitçen dena gaixqui hil dadin.

[Ioan. 9.] Guré Iaunac orano egun batez itxu sortučenbat arguitu cian, eman beré vista, beré ikhustia. Escritura saindiac dio, Euangilioan agueri den beçala, *Expuit in terram, & fecit lutum ex sputo, & liniuit lutum super oculos eius*: thu eguiñ ciala lurrali, eta thu hartçaz lohibat eguinic lurrian, itxu haren beguiac, lohi hartçaz busti, eta vrintatu çutiala, eta guisa harta itsua arguitu, vista & ikhustia hari emà,

[Psal. 148.] Cer faiçoin, eta ceremonia dira hoc? guré Iaunac etciana asqui boteré itxu haren arguitceco lurrali thurie eguiñ gabé, bai, bacian asqui boteré, çelia, lurra, laure elementiac, hitz bacoiz batez eguiñ ditu, *Dixit et facta sunt, ipse mandauit, & creata sunt*, errandu, eta eguiñ círen, manatudu, eta creatu círen baina ocasione hontan, guré Iaunac thuz eta lurrez eguiñ lohibat, orhebat, lohi eta orhé hartçaz, itxu beré beguiac sendotu, eta arguitu, eracusteco hari, nontic ialquiten cen, norat itçuli behar cian, lur çela, mortal cela, orhit ladin beré herioaren lohiaz, eta mundoço vrguillia, eta vanitatis msperechaturic, onsa hiltceco bidia, herioaren memoria, beré actioné ororen guida, eta regla har leçan.

[86] Neutré adisquidia, bekhatiaren loac, har etcitçan edo hartztu baçtu, hantic ialqui citian, curé herioaren lohiari eguiñ so ardura, lohi hartzaz curé beguier argui eguiñ, argui ororé arguia, eta vthurria, baita Iencoa, nahi baduē ikhussi bertcē mundiā, celuko Eresuma eternal, eder, eta hādi harta.

Escritura saindian ikhussi dugu passagé eder asqui porogatceco, onsa hiltceco bidia dela herioaz orhiteia, hambat legué çaharrian, nola graciazco leguijan, baina orano dugun ikhussi bidi honcaz eliçaco doctor saindiac nola minçatu diren beré pensamendu, eta meditationé saindian.

S. Bazilo handiac dio, eta othoy, behacité haren abisu honari, nahi bacira onsa biciric, onsa hil, *Si quando te senseris ad aliquod prouocari peccatum, ad mentem reuoca, formidabile illud, nee elli mortalium tolerabile Christi iudicium, & hoc quasi freno animum eohibe.* Bekhatu eguiteco vorunlatia, eta intentionia iagoiti gin badaquiçu, bekhatura erorteco tentationiac sæcula, attaqua bacitçar eçarçu çuré gogoan, çuré beguien aitcinian representa eçaçu Iesu Christo launaren iuiamendu icigarria, horriblia, eta latxa, eta brida harçatz, çuré temptationearé acculiac bridaturic, çuré espiritua, çuré arima eduecaçu lencoaren leguiaren pian humil, eta captiyo, eta çuré haraguia den humil, eta nescato arimaren leguiaren pian.

Ezta moyenic juiamendiaz orhit citian, herioaz orhitu gabé, biac, [87] bata bertciaren ondoan heldu dira, bataz orhit bacité, bertcia, etçauçu ahatçeco, bata duçunian gogoan, biac han diraté, çaudé han, eta erre-medio hoberic eztucu adiren, bekhaturic ez eguiteco, eta onsa hilceco, nola herioaz orhitcia, nahi baduçu onbetsi S. Bazilo Iauna.

S. Hieronimoe eztu guitiago erraiten pundu hontan, *Sive comedam, sive bibam, sive aliquid agam, semper insonat auribus meis vox illa horrifica, surgite mortui, venite ad iudicium.*

Ad. ver.
lapsam.
Cap. 8.

Ala niçan neuré Ianian, edo edauian, edo bertçé cer nahi baita Ianian, musica, airé, cantu, eta bolz tristé haur neuré beharrietan, beti ençutendut hātic ecin accaça dirot, hilac cuti citezté, ciauritzé ené juiamendiaren ençutera. Cer soldadoa çen doctor saindu haur, ian edanac ez deusec eré haren gogotic ecin idoquiten cian herioaren, eta juiamendiaren memoria, hala eguin baguendeça, erran niro oren honian sorttu guinela, oren hobenian hiltceco, eta hala eguiten eztianagatic, erranendut, euâyelio saindiac, Iudas traideragatic errandiana, *Væ homini, per quem filius hominis tradetur, bonum erat ei, si non natus fuisset homo ille.* Maradicatu dela/guiçona, coignec guiçonaren semia traditnuco baitu, eta salduco, hobé çuquian eliçan iagoiti sorttu. Halacoaz ere nic erranendut, ezpada herioaz ordu honez orhitcen, hobé çuquiala elian sæcula ekhia iguzquia ikhussi. Eliçan iagoiti amaren sabelian conœitu, eta hantic mundura ialqui.

Math. 26.

Autor denotbatec Climacus deithatcen denac dio, *Sicut qui esurit, recordatur panis, sic qui saluari cupit, non potest non recordari extremum iudicium :* gossiac onsa honquiturie dagoenac eztu bertçé pensamenduric nontic beré ogua iateco ukhenen dian baicy, hala hala, saluatu nahidenac, beré gogotic eta beré bihotcetic, ecin galtcendu beré hiltcia, eta beré iujamendia.

[88]

Gossé denac nahi du mundu hontan ikhussi beré ogua, saluatu nahidenac eré behardu consideratu beré herioa, eta beré arimaren

Hom. in Psal.
33.

Psal. 58.

iuiamendia, hala eguin ezpadeça, bertçé mundian vkhanendu gossé erraviatia, hor erraviatiac dian beçala, egua haur erran cian, badu dembora lucé, Propheta Royalac, *Conuertentur ad vesperam, & famem patientur et canes, & circuibunt ciuitatem*, Berandian conuertitudo dira, ibilico dira, inguru, inguru, hiriare, eta ciotatiaren murrailen aldian, edirenē dituzté portaliae cerraturic, eta gossé gaitça, eta gossé erraviatia, horec beçala, horen paré, patitu, eta sofferitu behar vkhanen duté, oguiric ecin edirenez, nor vsteduçu direla gendé hurac, herioaz, orhit eztirenae.

Bertcé autor deuot batec segurtatçen guitu guré azquen malhurra, eta, azquen bekhatia dela, noiz eré guré herioaren, eta guré iuiamendiaren orhitcia, eta memoria galdu baitugu, eta halacoaz nehore etssitu behardiala, conduric ez eguin, eduqui galduçat. *Magna iam est pena peccati memoriam futuri perdidisse iudicij.*

S. Hieronimo Iaunac dio, berritz, *Facile contemnit omnia, qui semper cogitat se moritum.* Norc eré egun oroz, consideratçen haitu, sinhesten eta ikhusten hilen dela, hil behar diala, halacoac mundia, munduço gauçac, vrrhiac, cilharrac, placerac, ohoriac, pena gabé, facilqui quicatcenduditu, mesperechatcen, hetçaz condu gutti eguittendu mundu haur ezta deus, eguiçu condu bertçé mundiaz, hala eguin cian, eta erran, guré Iaunac beré passionian, Pilato lugé gaixto hari, *Regnum meum non est de hoc mundo*, ené erresuma ezta mundu hontaco.

Saluatu nahi bacira, beharduçu, mundu haur mesperechatu, eta trullatu, eta perechatu eta ohoratu berté mundia, hala eguitecoz, doctor saindu honen mania eguiçu hilciaz orhitcé, eta içanic eré mundu hontan esquale eta miserablé, içanen cira bertçé, mundian Princé, eta Erregué.

S. Augustino Iaunac dio, *Hac animaduersione percutitur peccator, et moriens obliuiscatur sui, qui dum viueret oblitus est Dej,* punitioné iustobatez açotatçe dela bekhatoria, hiltejan eztela orhitçen beré buriaz, ceren bician, ezaipatçen orhitu lencoaz. Orhitu içan baliz bere herioaz, bician orbituco çen lencoaz hilcian, hambatequi bekhatoriaç fin gaixtobat eta malhurosbat eguitendu herioaz orhitu faltaz.

Guiçona eta deabrua guduecan, disputan, eta procesian bici dira, guiçona sortuz gueroz mundu hontan, guiçona hil den pundu, eta momenta berian, procetza finalqui, eta azquen ressortian iuiatcenda guiçonac nahidu arima lencoarençat, iustoden beçala, deabruac nahidu arima usurpatu eta arrimatu beretçat, sprocezaren pieça fondamentalac dira, obra honac, eta gaixtoac, eta nola proces handi eta important horen arima, eta preçaric hobena baita hilciaz orhitcia, herioaren memoria, guttun haur procezaren çaquian ediren badeça iugiac, baita

Eusebius
Emissen.

Ad. Potia-
nuna.

[89]

Ioan. 18

Aug. ser 10
de sanct.
tom. 10

[90]

Iencoaren semia, gugatik guicon eguna, iuiamendu emaitendu favorable
guiconaren aldé, deabruaren contré, eta arima guelditzen Iencoaren,
eta desohoria deabruaren baina, guttun hura, pieça eder, eta handi
hura herioaren memoria, expada caquian edireiten, guiconac galteendu
proceza despendio, damu, intrez ororequin, *lā tute reseruée*, eta arimaré
Iaun, nabussi, eta guehien deabru gaixtoa iagoiticoz guelditçenda,
eta arima gaichoa infernura eroric labé gorri hartan beré corren ecin
pagatuz egonenda Iencoa, Ienco deno, eparanca gaveric campotic
iagoiti vkhaneñ diala socorrieric, ez gratiaric, çeren haraz gueroz ezta
redemptioneric, *In Inferno nulla est redemptio*, Infernuco portalia
hayençat egonenda iagoiticoz guilçaz cerraturic, clausa est ianua, hantic
ezta bat ialguico, hala nola Paradusutic, Iencoaren gloriatic, arima
hurosetaric, bateré ezpaita ialguiten, ez ialguico, Iencoa Ienco deno.

Arima gorpitzteetic ialqui denian, beré hala iuiatçen dela, segurda,
hala dio Apostoliac, *Oportet nos manifestari ante Tribunal Christi, et recipiat unusquisque propria corporis, prout gessit, siue bonum, siue malum*.
Bat bederac behardu presentatu Iauaren gortiaren aiteinera, han erre
ceui deçan onsa, edo gaixqui cer eré beré personan eguin baitu hura
oro.

Apostoliac dio orano, bat bederac errecebítuco diala beré recompentia,
eta bere salarioa, beré triualliaren, eta penaré arau, *Vnusquisque recipiet mercedem suam secundum laborem suum*. Cer da hori, Iesv-Cristo
Iauaren tribunalera presentatcia baici, han dira arimac iuiatcen eta
hayer emaiten meritatcen duten paguia, hilez gueroz, Tribunal hartin
nahi denac ongui gin, eta ohoré errecebítu, hara heldu beno lehen,
harçatz, eta beré herioaz, orduhonez orbit dadin, çuhur bada bertçela
erho handihat içanenda, eta iugé iusto haren sententiaz, halacoac
vkhaneñ, açotia, galera, vrkhavia, eta damnatione eternala.

Iuiamendu particular harçatz, coin eguin en baita hil ondoan, guré
arimaz iuge iusto haren Tribunalia exemplu garrazbat, & icigarribat
irakhurtçë dugu Pariseco doctor handibatez, doctor handi hura,
fama eta reputatione handibatetan biciric, guicon saindia, sauanta,
guicon perestia, mundu guciec, particularqui Parisé oroc estimatecen
cialaric, gin çen hilcera hil ondoan, biharemanian, cleroa, eta compa
gnia handibat bilduric haren oheretara, haren gorpitçaren beré tomba
ra, eta hobera eçarteco, cleroa hassi çen obsequioen cantatçen eta
heldu çeniä Iaun Ap-hezbat lehen nocturnia accabaturic hilen officioan,
iobé lectioniare cantatçera, *Responde mihi*, hilac erran cian mundu
gucier bici içan baliz beçala, *Accusatus sum*, accusatianiz berri tristé,
eta icigarri harc cela causa cleroa, eta compagnia oro icituric, eta
harrituriç, cleroa retratatu çen eta compagnia oro, biharamonian, hassi

2. Cor. 5.

1. Cor. 9.

[91]

In vita S. Br
nonis apud
Surium &
alios.

da cleroa cantatzen obsequioē, eta Iau Ap-hezbat hassi denian erraiten, *Responde mihi*, ioben lectione haren beraren, hilac dio, *Judicatus sum*, iuiatuniz, herenen alidian eta heren egunian, cleroa eta quasi Parise oro bildurie, Iau Ap-hecā erran ciē beçain, *Fite responde mihi*, hilac eman cian heren, eta azquen arrapostia, *Condemnatus sum*, condemnatio nitz. Hantie harat, cleroac et Parizé oroe ikhussiric damnatio cela doctor handi haren arima, haren gorpitça, bela piquer hiriz, camporat eman, eta vrtiqui çuten, eta ez bateré ehortei lur saindian, ceren indigné estimatu baitcuten, doctor damnatu haren eçurree, lur saindia honqui leçaten.

[92] Accident tristé eta deplorable harc eman cian ocasione Pariseco Iau, eta anderé handiri beré bekhatiez, penitentia handiric eguitera, eta mundia quittaturic, desertietan, eta ermitagietan Iencoaren çerbu-chatceria, hala eguin cian S. Bruno Chartruzé religioniaren lehen fondaçaliac eta lehen autorac, ceren doctor damnatu haren desastria, eta malhurra ikhussiric ezpaitcian mundia edireiten segur, beré arimaren salbatceco.

Neuré adisquidia dudaric ezta, curé arimac behar diala iuiatu lenco semiaren tribunalian, eta curé arima eta gorpitça iuiatuco direla, iuiamendu generalian, iugé iusto haren beraren gortian, bi iuiamendu hetçaz orhitcíté, nahi bacira salbatu, eta ceren herioa lehen heduco baita, eci ez bi iuiamendu hec educaçu, curé hilteia, curé herioa, curé gogoan, hala eguiten duçularic, jugia, içanenda curé adesquidé, eta çu jugiaren, biac arcord, eta ordian erranen duçu onsa hilceco bidia, dela, orduhonez hiltciaz orhitcia.

[93] Neuré adisquidia capitulu haur lucezco içanda, giten dena ezta hau bat lueé içanen, consola cité ciauri ené ondoan, ikhussi behar dutu ené arraçoiñac porogatçeco ené bidia çonbat eder den, segur, eta hon, obra coroatecendu finac, veldur nuçu lana, eta languitia eztiren içanen curé gogoco, baina aguijan, lan egiliaren vorundaté hona ikhussi duçunian, lana, eta lanquilia maitatueo dituçu. Goacin aitcina ené bidian, educaçu hon, ené pena, eta trauallia, ezta galdu içanen, euc-çuria har badeçaçu ené ordoen, curé arimaren salbatceco, herioaz orhiturie, onsa biciric, onsa hil bacité.



LAVR GVARREN

*Capitulia Capitulu hontan frogatçen da arraçoiñez
onsa hiltceco bidia, dela herioaz, eta hiltciaz
orhitcia lehen arracoïña*

ERRANDVT, eta porogatu onsa hilceco bidia, dela herioaz orhitcia, oray presentian azquen capitulu hontan nahidut porogatu, eta erakhussi laur arraçoiñ differentez bidia haur hanbat bidé hona, eta segura dela, non ezpaita hoberic, neuré adisquidia beha cité onsa lehen arracoïnari, communzqui lehenac baliadu bigua, penaric eztucun hiltciaz orhitceco, harça eneganic secretu honbat, eta ederbat, soguiço curé miseria, curé cōditionia, curé içatia çembañ den flaco, ez deus, misera-blé, fragil, eta corruptible quant e quand orhituco cira curé herioaz, eta curé hiltciaz, haur da ené lehen arracoïña porogateco onsa hilceco bidia dela, herioaz orhitcia, considera deçagun guré miseria, guré conditionia, guré içatia, guré corruptioné handia.

Eguin behar dugu pauoac, chori vrguiluxu, eta superbios harc eguiten dian beçala, chori harc beré lumac ederrac ditu ahal den beçanbat chori harc beré luma ederrac çabaltcen ditu, eta hedatcen, eta arrotabat, edo mirailbat eguinie beré lumez, hetan glorificatcen da, eta beré placeraç hartcen principalqui noiz eré igusquia clar eta garbi baita haren leinburu, eta listurec chori haren lumagia guehiago aguertcen, eta ederteen baitituzté, baina cer guertatcen da chori harc, hanbat ditu beré çangoac, eta hoinac ichussi, eta diformé, nola baititu beré lumac eder, eta vrguilluxu; eta sobat eguinie beré çango eta hoin ichussier, beré lumagé ederra gorderic, ihessi doa, eta gordatecenda.

Gue eré hala eguitendugu, edo behar eguin, guré parté guehiena, eta superiora, baita gure arima ederra da, noblia da, Iencoaren imaginala, eta semblanciala creatuda. *Creavit Deus hominem ad imaginem, & similitudinem suam*, baina guré parté appala, eta inferiora baita guré gorpitça, ichussi da, diformé, lur eta erhautz, hala dio, Genesian, *Formauit Deus hominem de limo terræ*, eguin diala Iencoac guiçona lurretic, hambatequi eder guira eta noblé arimaren aldetic, eta ichussi, eta miserablé gorpitçaren aldetic. Hala erran cian eré Genesian Iencoac Adami, eta Eñari bekhatia eginez gueroz, *Puluis es, & in puluarem reuerteris*. Lur

[94]

Gen. 1.

Gen. 2.

Gen. 3.

cira, eta erhauts, lurtu, eta erhaustu behar duçu eguin badeçagu so guré miseriari, eta guré sortciari, consideraturic nola ialquiten guiren lurretic eta erhautxetic, guré vanitatiac eta guré vrguilliac vteiric orbituco guira, guré hilciaz, bidé hoberic cer nahidugu onsa hilceco.

[95]

In histor de
Berla & Iosap
cap. 12.

S. Damasceno Iaunac, guré miseria, onsa, eta ederqui eracustendu, figura, eta parabola eder hōtçaz, dio saindu harc, guïçonbat egun hitez, animalé gaixto, eta cruel batén ihessi, çuela, çoin deitateen baita vnicornis, erori cela, lecé, ocin, eta chilo handibatera, erortian lecé hartara, lotu cela ting tineca, çuhaincé edo arbré chipibati; çoin baitcen lecé haren bazterrian, ezparançá cialarié, segur cela beré hoñac leçé haren çolan bermaturic, eta beré escuyes, eta beré bessoez pareteco arbria tineccaturic, so eguinie, guïçon harc lekhu tristé hari, ikhussi du, bi sagu, bata churi, bertzia beltz çuhaincé haren çaiñen eta racinen, iaten, eta trenkatçen, eta quasi, çuhaintça, çaiñac trenkaturic erorlera çuela, ikhussi du halaber ociñ, eta lecé haren çolan, dragon terrible, eta horriblebat, ahotic su, etazé, vrtiquiten ciala, iduri eci ingurune-coac biciric, iretssi, eta deuoratu behar çutiala; ikhussi-du haboro lece ociñ haren bi baztertaric laur sugué bandiren buriac ialquiten cirela, ikhussi du goiti so eguinie, çuhaincé haren adarretan behera erorten cela, eztí goterabat, eta consideratu gabé pian, eta bazterretan, dangerac combat ciren handiac, guïçon hora çagoela, ahoa çabalturic, eztí haren goteraren iateco, eta goçatçeco.

[96]

Figura, eta parabola honen explicationia ençun eçaü, nahibaduçu ikhussi, eta eçagutu onsa çuré miseria, eta conditioné miserablia, Vnicornis, bestia gaixto, eta cruel hora da herioa, guïçonari, eta emaztiari guerla oren oroz eguiten diana ocin eta lecé hora da, mundia, tribulationé, eta calamitaté oroz bethia, çuhaincé edo arbré ttipi hora da, guré bicia, edo guré biciaren içaria, eta mesura, çoinen çaiñac, bi sagu hec, churiac eta belçac, gauaren, eta egunaren orenee, iaten, mutçen, herlçen, eta trenkhatçen baitituzté. Laur suguiac dira, laur elementen, laur qualitaté differentiac, hotça, beroa, idorra, bustia, dragon hora da infernia, eztí haren gotera da munduco placera, eta voluptatia, guré trompa garria, gure gal garria, hari beha gaudé, berteé dangerac oro abatcerá utciric.

Neuré adisquidia, considera eçaü çuré miseria çonbat handi dēn, gaña, eguna, beroa, hotça, idorra bustia, mundia, infernia, çuré contre dira, hayen artian gaixqui cira, miseria horczaz orbituric, orbitcíté çuré hilciaz, nahi bacira saluatu onsa hilie.

Curé biciaren corda oren oroz trenkhatçen da, soguiçá certan ciren, beharduçu onsa içan itssu, ezpaduçu nahi ikhussi çuré miseria, eta çuré dangera, eta horaç ikhussiric, nahi ezpacira çuré hilciaz orhi-

turic, conuertitu lencoaganat, eta eguin penitentia curé bekhatien gaiñian.

Iob saindiac baçaquian onsa guiçona çombat miserablé cen, erran dianian, *homo natus de muliere breui viuens tempore, repletur multis miserijs, qui quasi flos egreditur, & conteritur, & fugit velut umbra, & numquam in eodem statu permanet.* Guiçona, beré amaren sabalatic ialqui denian, arté eta dembora laburrez, miseria, eta doloré handiz betheric, bicida, lilia beçala, liliaren paré aguertcenda, eta gordatecenda, badoa itçala beçala, ezta jagoiti egoiten, ez baratcen ohi beçala estatubateten, bethi mutatcen da bethi cambiatcenda, ezta behinere ohicoa.

Job. 14.

Badeia deus eré mundian hain simpleric, hain flacoric, eta hain fité galteen abal denic, nola baita lilia igusquiaç coinbat orduz ikhustendu lilia goician sorteen, eta arratssian hilteen, goician eder, fresco, esperança handitaco; arratssian ichussi, tristé, beltz eta hil coloré. Goician amuros, maitagarri, aleguera arratssian haistiogarri, illumpe, gratia gabé.

[97]

Bada lob saindiac guiçona comparatcendu lilibatequi, eta lilia bada gauça simplebat; guiçona ecin daté gauça miserablebat, eta simplebat baicy. S. Gregorio handiac, liliaren, eta guiçonaren comparationia hon edireitendu, guisa hontan, *Quid sunt nati homines in mundo, nisi quidam flores in campo : homo etenim more floris procedit ex occulto, & subito apparet in publico, qui statim ex publico, per sortem retrahitur ad occultum.* Cer dira guiçonac mundian, liliac elguetan diren beçala baici, liliaren paré guiçona luppetic aguertcenda mundiā eta guero mundutic, guttien vsté dianian, badoa lupperat, gordatcenda, ezta haboro mundian aguertcen, lilia beçala aguertcenda, eta gordatcenda, *Quasi flos egreditur, & conteritur.*

S. Grég. Moral
17, cap. 17.

Iob saindiac, eta S. Gregorio, aita saindu, eta Eliçaco doctor handiac, erraiten baduté, guiçona, eta lilia, biac hardin simplé eta flaco direla, neuré adisquidia, dugun erran que, eta nic, guiçona gauça miserablebat dela, eta beré miseria ikhussiric, ezpada beré herioaz mundu hontan orhitcen, erho handibat datequiala, eta berteé mundian galdubat, eta miserablé handibat içanen dela.

Iob saindiac dio haboro, guiçona ihessi doela itçala beçala, *Fugit velut umbra,* dugun ikhussi itçala cer den, iaquin deçagun guré ez deusa cer den, itçala gauça falsubat da, eta gauça hila, erran ciniro, gauçabat mouitcen denian, eta lekhutic, lekhurra iguitcen, eta igarayten, haren itçala eré; gauça bicibat dela, ala baina itçala gauça hila da, eta ez deusa, ezta deuseré arguiaren priuationebat baicy, gorpisbat representateen du itçalac, eta gorpitça ezpalis artian, itçala, arguia licaté, ceren arguiaren eta itçalaren artian, gorpizbat, cer eré baita iarririe, arguia

[98]

empachatecendu gorpitçac, eta itçala hātic formatecenda eta eguiten, hambatequi itçala ezta deus, arguiaren priuationia baicy, gorpitçaren aldetic heldu dena, hala dio haren icenae, *Vmbra nihil est aliud, nisi defectus luminis ex obstaculo corporis.* Guré bicia, guré dembora, guré içatia, guré honac eztira deus eré itçalbat baicy, gauça hilbat, eta miserablebat.

Guré bicia, guré dembora oro hirur gauçac eguiten duté, igarenac, presentian denac, eta gitecoac, hala emayten du eré philosophiac demborari beré diuisionia, *Est ens secundum prius & posterius, & constat, præterito, præsenti, & futuro,* dembora da gauçabat, igarenaz, presente-coaz, eta gitecoaz eguiten baita, eta ceren hirur parté hayetaric guré biciae ezpaitu posseditcen bat baicy, bata presentecoa, eta bat hura baita bi priuationé hayen erdian, igarenaren, eta gitecoaren erdian, ala baina ezta ez bata, ez bertcia, hambatequi guré bicia ezta deus eré itçalbat, baicy badoa itçala beçala, *Fugit velut umbra.*

[99] Igarena ezta guré, gitecoa ezta guré, ezta guré presentian dena baicy, cer da presentian dena, igarenaren, eta gitecoaren artian pundu, eta momento bacoizbat, bata berteaganie erdiratceco, eta berhetceco, pundu eta momento bacoitz hura, hambat da labur, mehar eta ez deus, non, quasi ezpaita moyenic ediren eta attrapa ahal deçagun, ezta iagoiti guelditcen, lasterrez doa, haren içatia oro lasterrian da, *Consistit in continuo fluxu, fluit semper, & fluet,* hala doen gauçaz, erraçu itçalbat dela, eztela, gauça bicia, baina gauça hila dela.

Erraiten dugunian guré biciagatic bicia dela, trompatcen guira, eguiaren erraiteco, behargunduqué erran, guré bicia heriobat dela, ceren dena beno guehiago da, eztena, badu icena, baina ez içana, guré biciac hirur partetaric, eztu bat baicy, eztu igarena, eztu ginendena, eztu presentecoa baicy, eta present dena eré eztaquigu noiz dugun, hala guré bicia ezta bieibat, baina propioki minçatcera da eguiazco heriobat, hargatic S. Gregorio handiac errandu, *Temporalis vita aeterna vita comparata, mors est potius dicenda, quam vita :* mundu hontaco bicia berteé munduoco biceité eternalarequin comparaturic, ezta erran behar bicia, dela, baina erran beharda herioa dela, herioa bada, ezta deus eré biciaren priuationia baicy, priuationia bada, itçala da, eta Iob saindiaren errana eguija da, guiçona itçalbat da, eta haren bicia badoa itçala beçala. *Fugit velut umbra.* Propheta Royalac eré ederqui erran du guré miseria

Homil. 27 In
Euang.

Psal. 101.

[100]

Psal. 143.

combat handi den, gure bicia comparatu dianian itçalarequi, *Dies mei sicut umbra declinauerunt, & ego sicut fenum arni.* Ené egunac, eta ené dembora itçala beçala loan dira, igaren dira, eta belharra sorhoan dailliac ebaquiz gueroz beçala, ni eré ayhartu, eta idortu niz, Propheta harc berac dio, *Homo ranitati similis factus est, dies eius sicut umbra*

prætereunt. Guiçona guertatuda vanitatiaren, eta vrguilliaren paré, haren egunac Ioan dira eta ioaten dira itçala beçala.

Erran nahidu, guiçona erhobat, elguerbat, eta superbiosbat da, eta içanda, usté cian haren honac segur eta osso içanen cirela, eta haren bicia lucé içanen cela, baina beré vanitatian eta beré esparançan trompatu içan da, peren haren honac falsu dira, hilac dira, haren bicia laburda, heriobat da, itçala falsu, eta trompur den beçala, guiçonac nahi luqué sinhetz araci eztena badela, baina miserablé elgnerra, berandian ikhussicodu, ordu eztenian, dena eré eztela, ikhussicodu guiçonac guiçonaren bicia heriobat dela, haren egunac eta haren honac itçala beçala loayten direla. *Dies eius sicut umbra prætereūt.*

Guiçonaren bicia itçala idurida, ceren, hala nola gauaz, ilhumpian itçalian deno veldurti baita, eta ezpaitu corageric, hala hala guiçona mundu hontan deno, ala den gratian, ala den bekhatian veldurrian bethi, bethi, bicida, bekhatian bada, veldurda, herioac beré bekhatian atrapaturic, Iencoaren iustitia eternaliac, Infernuco pena eta su eternala condemna deçan, hargati errandu Escritura saindiac, *Pauor his qui operantur malum.* Gaixqui eguiliae, bekhatoriae, eta bekhatoressae, veldurrian oren oroz bici dira. Gratian bada guiçona, eta emazlia, orobat beldurrian vici dira, lotsaz, Iencoaren gratia, galdeçaten hargati erraien cian Propheta Royalac, *Timor, & tremor venerunt super me, & contexerunt me tenebrae.* Ené spiritia eta ené gorpitça, ené heçurrac, eta ené çaiñac, lotsatu dira, ikharatu dira, ilhumpian, eta itçalian banintz beçala, çuti bortcha nago, ceren veldur cira Erregué handia, lotsa nitz eta veldurnitz neuré Ienco honaren gratia gal deçadan. Guebiago diot, guiçon iustua eré ezta segur ala den gratian, ala bekhatian, beré confessioné hona eguin dianian laun Ap-heçaren aitçinian, harganic errecebbitu absolutioné saindia, eta aldare saindian sacramendu saindia, behardu esperançा hartu, gratian dela, eta guero eré bai, bekhatu mortalic eguiten ezpadu, obra honetan perseueratcen badu, baina segurta dadin dudarie gabé, infallibiliter, espiritu saindiac, edo çoinbat ainguruie Iencoaren partez, ezpadici reuela, eta berria erran, ecin diro. Hala dio Salomon çuhurrac, *Nescit homo utrum odio, vel amore dignus sit,* eztaqui guiçonac ala den gratian, ala bekhatian.

Hambatequi guiçona mundu hontan deno, ilhumpian eta ignorantian bicida, ala den iustu, ala den bekhatore, eta haren bicia itçala idurida, itçala beçala doa, *Fugit velut umbra.*

Guiçonaren bicia itçala idurida, hala nola itçalac guiçona hotcen, eta frescatcen baitu, hala hala, mundu hontan deno, bekhatian bici denian Iencoaren gratiaren, eta haren amorioaren sua galduric, bekhatiaren itçalac, eta lanhoac, hotcendu, eta larrointatcen eta manera hartan,

guiçonaren bicia itçala idurida, guiçona eta itçala biac bat dira, *Dies eius sicut umbra prætereunt*, gaüaz itçalian, eta ilhumpian guiçona hotçac hobequi, eta guehiago honquitendu, eciez egunaz, ceren egunaz igusquiac lurra eta guiçona arguitcen eta berotcen baitu, eta gaüaz aldiz ez, egunaz bai, gaüaz manera berià, nola guiçona bekhatiaren itçalian guehiago bici baita; iciez lencoaren amoriaren arguijan, guiçona itçal, eta itçala guiçon guertatzen da. *Dies eius sicut umbra prætereunt*. Vda gorrian eta beroan, beroaren contré chercateendu itçalbé honbat frescatceco, eta negu hotcian, eta gogorrian su honbat, edo iguzqui berobat, onsa berotceco, eta nola vdan itçalac guiçona hotçen, eta frescatcen baitu, eta neguian suyac eta iguzquiac gorlcen, eta berotcen, hala hala bekhatian denian, bekhatiaren itçalac hotcendu, eta itçaltecen haren bihoca, hala nola lencoaren amorioac, subatec, eta iguzquibatec beçala, baitu azcarlcen, eta berotcen, eta ceren guiçonaren bihocien mundiaren amorioa hobequi, eta barnago lantaturic, eta iossiric egoiten baita, eciez lencoaren, eta ceruco gaucen ohoria, mundiac, eta bekhatiac haren bihoça, hotçac, eta itçalac beçala deseguiten duté, desbistatzen, hotçen, eta itçaltecen, hargatic errandu Apostolu Euangelistac,

1. Ioan. 2

Qui diligit mundum, non est caritas patris in ipso. Mundia mayté dianae, eztu caritateric, halacoaren bihoça hoztu da, eta larrointatu, ceruco sutic eztu parterie.

Ionas Propheta Ninie herritic ialquiten cela orienteco herrian, igusquia, bidian çøela, subatec beçala hurren chilpiltu, eta erré cian, gure lencoa, dolu eta compassioné v Khan cian beré Prophetaz, eta eraguinic itçalbé honbat huntz orstoz, itçalbé hartan, Propheta goiçoa frescatu, cen, paussatu, eta desalteratu. *Præparauit Dominus Deus hedera, & ascendit super caput Iona, et esset umbra super caput eius, & protegeret eum, laborauerat enim, & letatus est Ionas super hedera, lactitia magna.*

[103] Itçalbé hartan ceno, Ionas Prophetac, etcian ikhusten igusquia, ez senditzen eré haren bero handia. Figura handibat cen itçalbé hura, guiçon bekhatioriaz mundu hontan, guiçona mundu hontan bekhatiaren itçalbian deno lencoac, igusqui eder harc, eztu ikhusten, haren arguiac, haren suyac, eztu arguitcen, eztu berocen, huntz orsto hayen pian gorderic dagoen bekhatioriaren bihotca, guiçon harc eré, bekhatiaren itçalbé hartan deno, eztu ikhusten, ez senditzen ceruco suya, espíritu saindiaré suya, hambatequi belz belça, hotz hotça, itçala beçala, dago guiçona mundu hontan, eta nore eztu erranen guiçona itçalbat, dela eta itçalac beçala beré egunac, eta beré dembora igaraiten diala. *Dies eius sicut umbra prætereunt.*

Guiçonaren bicia itçala idurida ceren itçalac eta ilhumpiac guiçonari

loa lehen emaiten du, eciez egunae, edo arguiac, lo eguin nahidianae
eré egunaz communzqui beré camberaren bortac, eta leyhoac cer-
ratcen ditu loaren eta paussiaren hobequi hartecero. Hala hala guiçona
mundu hontan munduko hon demboralen itçalaren pian, loac hart-
cendu, eta celuco gaucer beré beguiac cerraturic, Iencoaren cerbutcian,
eta obra honnetan aurher, lacho, negligent, eta berandiar guertatcenda
bekhatiaren loan eta lohian, auariciaren suyac erreric, haren egar-
riac alteraturic, haren gossiac ianic, munduko honen itçalbian bicida
iagoyti beré pausia ediren bagué, eta alterationia frescatu gabé. Elias
[104] Prophetac ené eguiua eder haur, beré demboran figuratu cian, eta
representatu, egun batez beré etsayen ihessi çocla desertian behera,
genebria deithatcen den çuhainteé baten itçalian loac bartu cian, eta
aingurubat celutic ginic, iratçarri cian eta minçatu guisa hontan
Iencoaren partez, Propheta Elia, çuti cité ian eçaçu, edan eçaçu, eta
oguizco opilbat eguinic, hauspian erreric, eman ceron ogui opil harta-
ric iatera, eta vr edatera, eta erran, ian eçaçu, edan eçaçu, bidé^{3. Reg. 19}
lucebat, eta handibat orano iguaren beharduço. Propheta gaiçoaç, beré
ian edana eguinic, eta azcarturic beré ian edanaz, berrogey egunez
eta gañez ibilicen desertu hartan, eta arriuatu hurosqui, Oreb, Ienco-
ren mendi benedicatu hartara. Hala dio Escritura saindiac, *Obdormiuit Helias in rumbra iuniperi, & ecce Angelus Domini tetipit eum, & dixit illi, surge, & comedere, grandis enim restat via, ecce ad caput suum panis subcinericias, ut ras aquæ, comedit ergo, & bibit, & ambulauit in fortitudine cibi illius, quadraginta diebus, & quadraginta noctibus, usque ad montem Dej Horeb.* Hala hala eguitendu guiçonac mundu hontan, beré placeren,
beré honen, beré bekhatien itçalaren pian loac hartcendu, lo eguitendu,
ala baina beré loan, eta beré placerian, lo honie eztu eguiten, ez placer
honie hartcen, ceren haren loa, haren placera, baitira labur, falsu, eta
trompur, hala eré representatcendu, geneura, çuhaincé idor harc,
haren frutiac, eta haren itçalac guti valia duté, haren frutiac eztira
hon, eta haren itçala eré ezta çabal edateen hertcé çuhainteen itçala
beçala, haren orstoac, liliac, frutiac, itçalac, ez deus dira. Halaco dira
mundu hontaco, placerae, ohoriae, honac, eta boteriae, ala baina gui-
çona hayen itçalaren pian, laquetda, placer hartcendu, lo eguitendu,
eta ezpaleça lo hartarie çoinbat aingurue, iratçar Propheta Elia, eguin
cian beçala herioac lo hartan atrapaturic, Infernura seculacotz, lo
eguitera loan laité.

Norc nahi du erran guiçona eztela itçalbat ené raçoiñac libru hontan
ikhussiric, eta ezpadeça, beré miseria ikhussiric, beré herioaren memo-
ria, beré beguien aitecinian ardura ardura eduqui, nic erranendut,
guiçona dela arstobat, çamaribat, eta brutalbat.

[105]

Itçalbé hontarie ialquiric, dugan ikhussi, guicona cembat miserablé den eta cembat obligationé dian beré hilciaz orbitceco, nabibada mundu hontarie landan, hilez gueroz, Iencoia baitan bici, eta saluatu.

Apostoliac, hari nabi bacirabehatu, erakbutxico drauçu curé miseria, erran dianian, *Habemus thesaurum istum in vasis fictilibus*. Badugu thresor handibat, badugu gauça aberasbat, baino thresor, eta gauça aberatz haren vncia, lurra da, lohiada, guré arima eder da, noblé da, baina gorpitça, baita baren vncia, cerda lur, eta lohi, herioac beré colpietaric mendrenaz honqui badeça, Ioanda vncia, gorpitça lurturie, lurrerat doa, lur eta erhantz guertatcenda.

Propheta Royalac eré, lur guirela dio, eta minço denian, bekhatore gaixtoez, hayen contré, guisa hontan bere othocia Iencoari eguiten du, *Tanquam ras figuli confringes eos*. Bekhatoriaic, gendé gaixto hec obstinatiac, lurreco vnciac beçala, deseguin, itçaçu, gal itçaçu, mila pieçatan iarbité.

Apostoliac, eta Propheta Royalac, biac arcord dira, biec dioté guicona lur dela. Iur bada, cerda appalagoric ez miserabliagoric, nola baita guicona.

Propheta Royalac, dio, guehiago, onsa consideratcen dianian guiconaren miseria, eta haren itsutarçuna, *Dormierunt somnum suum, & nihil inuenerunt omnes viri duitiarum in manibus suis*. Lo eginduté, eta ametz lurrian, beré dembora oro loan, eta ametzetan igaren duté, lurreco gendé aberatzec, eta guero beré lotic, eta beré ametzetic iratçarri direnian, ezquiaç hutxic guertatu dira, gendé gaiço hec, eztuté deuz ediren beré escuetan : *Nihil inuenerunt in manibus suis*, curé mendian heldu cira, gaüaz loan curé ohian ametz eguiten, eta curé ametsian iduri eci, guicon pochanbat, laun handi bat cirela, vrré, cilhar, hacienda, eta honic asqui escuetan baçundiala eta guero, edo gaüaz, edo arguiteian, curé ametxetic iratçarri cirenian, curé escuetan eztuçi deus eré ediren lehen baino guehiago, *Nihil inuenerunt in manibus suis*, ametsa hañsiz gueroz akhaua artian, aberatz cira, ametsa akhauatuz gueroz, pobré cira lehen beçala, ohicoa cira. Erran communa eré bada ametz oro, gueçur ezpada ametsa celutic gina, Iencoaren reuelationez, edo haren manuz, çembait ainguruz errana. Ametsa, eta guecurra biac bat dira, eta guicona bada amestbat Prophetac errayten dian beçala, erraçu, ametsa, guecurra, eta, guicona, hiruracbat direla.

Enian vsté, baina orano minçatu behardugu itçalaz, eracusteco, guicona mundu hontan, çombat miserablé den San Bernard doctor deuotac dio, *Dies hominis sicut umbra super terram, nulla est nora, & tunc propè nihil est cum stare videtur : cur ergo thesausat in terra homo, cuim sine dilatione transeat, & illud quod colligitur, & ipse qui colligit*. Et

[107] S. Berna. in medit. cap. 17 *Et*

tu homo quem fructum expectas in mundo cuius fructus ruina est, cuius finis mors est. Guiçonaren egunac badoaz itçala beçala lurrian ; vste dianian guiçonac cerbait dela, ezta deus, badoa guiçona baratu gabé.

Bada guiçona, cergatik hanbat hon lurrian biltzen duçu, honē bilçalia, eta hon bildiac, hain fité, garaicen, galteen, deseguiten, eta itçaltcen direnaz gueroz, çuc guiçona cer esperançça duçu mundian, haren irabacia oro, eta fructia, cer da galcia, eta ruina, haren azquen fina, cer da, hilcia herioa.

Saindu deuot harc berac dio çuri, niri, eta mundu orori, guré miseria ikhussi dugunian mundu hontan, considera deçagun guré arimare noblecia ; eta handitarçuna, mundia quitaturie, Iencoaren onsa maytalceco, minço da guisa hontan.

In omni namque creatura, quæ sub sole mundi vanitatibus occupatur, nihil humano corde sublimius, nihil nobilius, nihil Deo similius reperitur, quapropter nihil aliud à te querit, nisi cor tuum, munda ergo illud per puram confessionem, & assiduam orationem et mundo corde Deum videre possis.

Iguzquiak eztu deus, ikhusten celiaren pian, habat ederric, hambat nobleric, hambat Ienca, iduriric, nola baita guiçonaren bihoça, eta haren arima, dio saindu deuotac, bartacoz eztu galdatcen guiçonari beré bihotçabaici, bada, guiçona, chahat eçaçu, purga eçaçu curé bihotça, confessione hon batez, eta orationé honbatez, amorecatik, curé Ienca chahuqui, eta purqui ikhussi ahal deçaçun.

Saindu deuot honec dio, miserablé guirela, eta noblé, guirela, miserablé gorpitçaren aldetit, noblé arimaren aldetik, gu nur baguira, biez içanen, guira noblé, eta huroz, baina ezpaguira nur, biez içanen guira miserablé, eta malhuros, guiten orhit guré miseriaz, orhitceco onsa hilteiaz, dugun guré bihotça, eta guré arima, onsa purga eta chaha, guré Ienca chahuqui, et purqui ; egun batez ikhussi eta contempla ahal deçagun, *munda cor tuum, et mundo corde Deum videre possis.*

Guré conditionia, eta guré içatia combat den miserablé, behacité S. Augustin launari harc dio ederqui, *Magna miseria, cù nihil sit certius morte ignorat tamen homo finem suum, & cùm stare putat, colliditur, & perit spes eius, nescit enim homo, quando, vel ubi, vel quomodo moriatur, & tamen certum est, quod eum mori oporteat.*

Miseria bandia da haur, ezta deus hambat segur denic, nola baita herioa, ala baina eztaqui guiçonac beré azquen eguna, eta azquen orena, vste dianian çuti dagoela, lurrian daté eroriric, vste dianian cerbait dela ; hura, eta haren esparançac oro hilen dira ; edo hilac diraté. Eztaqui guiçonac combat agudo ahal beliaté, noiz, edo non, edo nola hilen den, ala baina segur da hil behardiala.

S. Bern.
in medit.
cap. 11

[108]

S. Aug.
soliloq. cap. 2

Miseriaz hontçaz egunian behin orhitcíté, hala eguin badeçaçu, ni sartuco nitz curé hermé, hilcé honbat eguinen duçula, curé orena gin dadinian, mundu hontan, eta berteé mundian bicitcé eternalbat vkhenen duçula.

[109] Guré miseria dela, hilciaz orhitceco, bidé hobena, segurda, baina gue bidé contria eduquiten dugu : badaquigu guré arima dela immortal, eta guré gorpitça mortal, badaquigu guré arima dela anderia, eta gorpitça haren nescatoa : badaquigu guré espiritu dela Iauna, eta gorpitça haren mutila, gorpitça, ala baina anderiaz eguitendugu nescatobat, Iaunaz mutilbat, eta gorpilçaren gogara eguiten, arima et mes-perechaturic, eta herioaz orhitu faltaz, gorpitça, eta arima deabruari largeteen, emayten, eta salteen.

Suri, hist.
Ecl. lib. 4
cap. 18

Hermita saindubat, Pambus icena cianbat, egunbatez S. Athanasio Iaunac othoituric, Alexandriaco hirira Ioanceen, eta ikhussiric Anderé vrguilluxubat beré buriaren, bilhoen, beguitartiaren, eta gorpitciaren soberaché ederteen, eta affaitalcen, nigar eguin cian bi beguietan behera, eta interrogatu cenian, cergalitc nigar eguiten cian, arrapostu eman cian, bi arraçoinez nigar eguiten ciala, lehenic ceren anderé hura, galcera çuela, ikhusten baician, bi garren arraçoïna, ceren ez-paiteian harc hâbat pena eta triuaillu hartcen Iencoaren cerbutcian, Iencoari placer eguiteco, nola anderé harc harten baitcian tormenta, eta fatigu, guiçoner placer eguiteco. Anderé harc haboro estimateen cian beré gorpitçaren, eta haraguiren placera, eciez beré arimaren osagarria, eta salbamendia, ceren ezpaiteen beré herioaz, eta hilciaz orhitcen, baina Hermita saindu harc Iencoaren ohoria, eta beré arimaren salbamendia haboro estimatu cian, eciez, beré gorpitça, eta beré haraguia, ceren beré hilcia, eta beré herioa oren oroz beré beguien aitcinian eduquiten baiteian.

[110] Thomas morus, personagé saindubatec communsqui beré adesquider erraiten cian prouerbio, eta sententia eder haur, *Quam plurimi in hac vita Inferni morcari solent, cuius vel diuidio Cælum lucrati fuissent.* Hanitz gendec pena, eta triuaillu handirequin infernia aquisitcen, eta ardias-tent duté, eta nur balira, edo nahi balira, pena eta triuialu haren erdiaz Paradusia, eta Celuceo Erresuma, irabaz, eta ardiaz liroité.

Ibidem

Saindu harc berac dio, egunbatez ikhussi ciala andere ederbat, beré bilhoen, eta arropen arrankhura handirequin eta delikhatuqui trenacen, iresten, eta chuchentcen, eta ikhussiric haren pena, eta haren arrankhura handia, erran cerola, *Nisi Deus tibi pro hoc tuo tanto labore Infernum reddat, magnam tibi profecto iniurian faciet.* Anderia eguiaz erran behar drauçut, curé penaren, eta triuailliaren recompensutan, eta pagutan, Iencoae ezpadicäa eman Infernia, oguen handibat, eta

iniurio handibat eguin, drauçu. andere harc mayté cian beré gorpitça, eta saindu harc maytiago beré arima eta çuc neuré adisquidia, nahi ba-
duçu salbatu berteé mundian çuré arima, eta çuré gorpitça, lurrian çuré
gorpitça onsa gaztiga eçaçu, corregi eçaçu, arima den anderé, eta gor-
pitça nescato ; orhitcíté hiltiaz, onsa hilceco, eta héríozaz orhitceeo,
othoy ené adesquidé maytia, çuré miseriaz orhitcíté, haur da ené lehen
arraciña, nahi bacira oasa hil, hiltiaz orhitcíté, nahi bacira, heríozaz
orhit citen, çuré miseria considera eçaçu çuré miseriaz orhitcíté, lur
cira, itéalbat cira, ametsbat cira, figurabat cira, ez deus bat cira, oren
oroz hilteen cira, éçoaca ihessi, gordicité, eta eguin ducinian niguar çuré
bekhatiez, gincit bidé hontaric bidé hontçaz gin dadina, ezla galduco,
salbatucoda, Iencoac placer badu.

[111]



BI GARREN ARRA-

*goiña frogatceco, onsa hiltceco
bitia, dela heríozaz, eta hiltiaz orhitcia.*

CAPITAN onbat, eta generosbat, aitciña duenian armac escuan beré
etsayaren cōtré combatitcera, eta erakhusten beré soldadoer, nola
behar duen combatitu eta gouernatu victoriaren hayen contré irabas-
teco eta reportatceco, dudarie gabé halaco Capitáñac amorio, eta boron-
daté hādibat erakhustendu obraz badiala beré soldadoençat, eta solda-
don ezpadadi onsa gouerna, nahi ezpada coraiosqui combatitu beré
Capitáñaren ondoan Ioanic, beré guida, beré guehiena, nahi ezpadu
onsa seguitu eta imitatu, eta guero nahi ezpadu soldado harc, beré
Capitáñ Iauna, remerciatu eta ohoratu, norc eztu erranen, soldado hura
ingratu, dela bihotz gabia, poltroíña, eta legué gabia, Capitáñ Iauna,
on, noblé, eta maitagarri, daté, baiña soldadoa, gaixto, ohoré gabé, eta
hastiogarri içanenda.

Baiña noiz eré Capitáñ hura, baita hain on, eta bihotz bera, non beré
bicia ioca deçan, odola issurdeçan, beré buria liura deçan, eta aban-
donaurreun escuetara, eta bocheria harten, massacra dadin, eta hil
dadin beré soldadoen, eta armadaren salbatceco, eta beré hiltiaz, beré
armadaco gendé ororen bicia salbateen dianian, ber bera orogati
hilcé, eta soldadoac oro beré hiltiaz salbateen, erran beharda ordu
harten, Iaun Capitáñ hura, dela onen, hobena, noblen noblena, maita
garrien, maitagarriena, eta soldadoa datequiala gaixtoen gaixtoena,

[112]

desohoratienna, eta ororen artian, bastiogarriena, ezpadeça beré guida, beré guéhiena, onsa ohora, lauda, mayta, remercia, eta orhituric beré Iaunaren hilciaz, epadeça haren bilciaren dolia ekhar, eta eduqui beré bihotcian, ezpadeça considera mortal dela, eta hil behardiala, soldadoa ezta handiago Iauna baiño, Iauna hilda, soldadoac eré behardu hil, iuamendu hora ezpadu, ezdeusbat beno sordeich içanenda niç errandudana içanenda, ezdeusaz baiño haboro gendé pereztuec, eztuté eguiñen casurie, ez conduric, halacoaz, eta halacoetçaz, eta Iaun Capitáño haren plaçan banintz, halacoer, so onbat eniro eguiñ, ceren halacoa ezpaitabila bidian hontan çouin baita onsa hilceco bidia, erran nahi du hilciaz orhitcia.

Bada neuré adisquidia, çu eta ni, eta mundu gucia han guira. Iesv-Curusto guré Iauna da guida, guré guehiona, guré Capitáño handia, eta gu oro guira haren soldadoac, hora Ioanda gurutcia escuña, gure aitecian, gu oro cumitatcen guitu, Ioan guiten haren ondoan, guré buriac arnega ditçagun, ezteçagun eguiñ eta compli guré berondaté propria, baina bay barena, harde çagun norc guré curutcia, eta guero haren hatçari iarraiquiric huna segui deçagun, hala, Euangelistac dio, *Qui vult ceni re post me abneget semetipsum, tollat Crucem suam, & sequatur me.* Ené ondoan gin nahi denac, beré buria arnega beça, har beça beré curutcia, eta segui neçä. Iaun hon harc orori erakhustendu bidia, bera lehenic doa; armac escuan, eta gu miserabliac, gu galidiae, gu erhoac ezquira ioaiten haren ondoan, haren bidia vtcirie, bekhatiaré bidé gaixtoaz gabiltça mundu hontan, guida honda, Capitanoa honda, baina soldadoa, gaixto, ceren ezpaita haren bidiaz ibilten : considera baleça soldadoac, nola guida hâdi hora Iesvs guré salbatçalia, hargati hil dë, haren salbatceco, haren herioz orhituric, beriaz orhitlaité, eta elaité makhur haren bideric, ez esquin, ez ezkbuer.

Gugati, eta guré salbamendiaren amorecatic celuti iautxi da, eta incarnatu espiritu saindia, Maria Virgina ganic, eta guicon, eguiñ, gugati crucificatu, herio, eta passioné igaren eta ehortci, Pontio Pilato iudiaren pian, dio conciliobatec, *Propter nos, & propter nostram salutem descendit de Corlis, & incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine, & homo factus sst, crucifixus etiam pro nobis, sub Pontie Pilato, passus & sepultus est.*

Hilda gugati, et guré bekhatiac direla causa, eta piztu eta resuscitatu, guré iustificationia dela causa, dio Apostoliac, *Traditus est propter nostra delicta, & resurrexit propter iustificationem nostram.*

Guré herioa hildu, eta ruinatu beré herio propiaz hilcian, eta guré bicia reparatu, eta alegueratu, pitciā eta resuscitateian, cantatecendu Eliçac prefacioan, pazco demboran. *Mortem nostram moriendo destruxit, & vitam resurgendo reparauit.*

[113]

Mat. 16

In symb.
Nicaeno

ad. Rom. 4

[114]
In Prefa.
Temp. Pasch.

Gugati celuti lurrera iautxi da, incarnatu, eguin guiçô, hartu arimabat eta gorpitchat, Virgina ama baten sabel benedictatian, sortu bederatçu hilabeteren burian, onci sacratu hartarie, beré amaren virginitatiari oguenie deusetan eré eguin gabé, hala nola Prophetac erran baitcian lehenago dembora lucez, *Ecce Virgo concipiet, & pariet filium,* virgina hatee concebitucodu, eta sortuco du semebat, gugati bici içanda lurrian hoguey eta hamirur vrtez, eguin erran hanitz signo, eta miraculu dandirie, beré passioné dolorosian, odol eta bur icerdi egoitei, beré buru sacratian ilhoriz coroatu, borreuen escutie, host edo sey mila agoté vkhaldi recebitu, tustatu, chofleztatu, vsticataz colpuz, maredictionez beté, gossia egarria soffritu, curuteia soiñen carreyatu, Curutian, Calnariooco mendi tinian, bi ohoinén artian vrecatu, eta crucificatu.

Gugati horie oro soffritu-ditu guré guidac, guré Capitano handiac, Iesv-CHRISTO iaunac, Trinitaté saindiaren second personac, aita eternala-ren semé naturala eta bacoitz.

Neuré adisquidia, othoy considera eçaçu çuré iaunaren amorioa, çuganat combat handi içan den, orhitcíté çugati hildela, ordian, çu baiteira haren soldadoa, que eré behar duçula haren ondoan hil, orhituco cira, eta bidia haur hon edirenē, ezta possiblē norc eré Iesu-Christen hilcia eta passioné dolorosa bere bihotcian eduquiten baitu, eztadin beré herioaz orhit, eta bekhatu mortaletaric ezteçan beguira beré arima gaichoa, haur da remedio handibat, beré hilciaz orhitceco, Iesv-CHRISTEN herioaz orhitcia, eta haur da ené bigarren arracoïña, coinee obligateen baicatu guré hilciaz orhitcera. [115]

Gugati combat vrhatz, combat iauci, eta laster eguin dian, guré iaunac, considera eçaçu, esperança dut iauci eta laster hetan, edirenен duçula, haren herio delorosa, eta ezpacira, iudu, edo mairu, orhituco cirela çuré hilceco orenaz, behacité S. Gregorio doctor handiari, nola minço den guré iaunac gugati eguin dutian vrhatsez, eta lauciez. *De Cœlo venit in etrum, de etero venit in praesepe, de prosæpe venit in Crucem, de Cruce venit in sepulchrum, de sepulchro redijt in Cœlum. Ecce vt nos post se currere faceret, quosdam pro nobis saltus manifestata per carnem veritas dedit.* Celuti ginda sabelera, sabeletic ginda establiala, establia-tie ginda curutciala, curucetic ginda tombala hobiala; tombatic iteu-lida, eta ioan da celurat; soxeguiçu çòbat laster, eta vrhatz eguin dian haraguiaren pian aguertu, eta manifestatu içan den eguiac, guré beré ondoan lasterres ioan eraciteco.

Neuré adisquidia, çuré herioaz orhitceco, guré iaunaren bide lucé, vrhatz, laster, eta passeyu handi horiez orhitcíté, bidia luceohé baçauçu, passu orotan nahi ezpacira guelditu, aumens gueldicité curucian, han edirenen duçu haren ohia, haren herioa, han edirenē duçu

Iesusbat çugati hilie, Ienco guionbat, eta guion lencobat, çugati vrkhaturie, crucificaturie, beré bessoac curbaten contré hedaturie, eta itçaturie, beré hoiañ elkarretan gaiñen plegaturie, eta içaturie, curé corren pagatzen, beré odolaren despendioz, eta curé baquiaren eguiten bere aita eternalarequi batian, egunian behin passeya bacité bidé har-tan, hambat sobera içanen cira Iesus haren adesquidé eta bura curé, non bician ohoratu, eta adoratu duçun curutciac, hilian curé etxayen contré desfendiaturie, guidatuco baititu chuchen celuco resuma handi har-tara.

[116] **Guré amorecatie, guré salbatcera ginda celutic lurrera, guré launa, erran dugun beçala, eta erran dian beçala Apostoliae, *Commendat autem charitatem suam Deus in nobis, quoniam cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est*, guré Iencoac, beré ontatçuna, beré charitatis, eta misericordia gutan handizqui; eta goraqui erakhustendu, ceren behkatoré, eta indigné guinelarie, gugati hil baita.**

Iencoac baciā bertce moyenie eré natura humanaren redemtionaren, eta erospenaren eguiteco, baina ororen cruelena, eta garrateena hautatudu, çoiña baita herioa, guri beré amorioaren eracusteco, eta guré bihotcen bereganat eracarteco.

[117] **Lehenic Iencoac guionna redemitzen, erosten, eta salbatzen ahal cian placer v Khan balu, *Per merā condonationem*, beré faltaz hari barkhamendu eguin, beré misericordiaz, eta beré liberalitatez, guionari beré oguena, falta eta bekhatia barkhaturie, Ienco cen offensatia, guionna offensaçalia, offensatiac placer v Khan balu. Offensaçaliari barkhatu beré offensa, norecer erranen cian Iencoaren contré, edo erranie eré deus cer ansia çuquian Iencoac neoren erranaz, Ienco sobera da handi, poderos, eta infinito, non ezpaita obligatu conduric rendateera beré actionez, beré burriari, baicy, oro dira haren peco, bura ororen guchien, celia eta lurla, Ainguriac, eta guionac oro haren pian ikharateen dira, eta harc orori leguia eguitendu, hargati dio Theologiac, *Deus est Ens à se*. Ienco da içatebat, eta gauçabat bera beraganic, berebrutic eguna; hambatequi Ienco handi harc, celuco, eta lurreco launac, hitz bacoitz batez, Adam eta haré posteritalia oro, placer v Khan balu, salbatzen ahal cian, erran' balu hitça Adami, Adam, gratia misericordia, eguiten drauçut, curé culpa, eta bekhatia, barkhatiada mundia oro salbatu cen, redemtioné, eta erospen sacratu hura complitu çatequian, baina remedio, hura vtecidu, guri beré amorioaren hobequi eracusteco.**

Secontian, mundia redemiteen, eta salbatzen ahal cian guré Iencoac, *Ex imperfecta iustitia, per quamque satisfactionem*, recebitzen ci-alic guionaren aldetik beré faltaren punitionetan, eta hari egun cian oguenaren reparationetan, cerbait satisfacione, ez hain graue, eta hain

handi, nola baitcen oguena eta iniurioa, bena apalago, mendriago, eta gutiago satisfactionia, eta cer eré baitçatequian guehiago eguin behar satisfactioné, guehiago hura, Iencoac guïçonari barkhatcen cialarie, guisa harten, mundia salbatuco cen, Iencoac guïçonari bere faltaren, eta corraren partebat pagueraciric, eta corraren bercé partia, liberalqui hari barkhaturic, corra parté pagatu, parté quittatu, eta Iencoa, eta guïçona biac contët, eta satisfatu. Bainaz ezta nahi içan cerbutçatu erremedio hontçaz guré Iencoa, guri hobequi beré charitatiaré aguertceco.

Herenian guré Iencoac mundia salbatcen ahal cian, *Ex prefecta iustitia, edo, ex vigore institutae, cialarie recebitcen reparationebat, eta satisfactionebat, hain handirie, eta infinitoric, nola baitcen offensa handi, eta infinito, hantic Ioanda eguitectoa, bercé moyenac quitaturic, ororen garrat cena, eta vigorosena hautatu du, çoin baita herioa, eta beré herio propiaz, eta beré odol pretiosaren issorciaz, mundia oro salbatu du, eguin beré Aitari reparationebat offensa beçain handirie, offensa infinito cen, reparationia eré infinito içanda, corra vigorosqui pagatu içanda, bata hain handi, nola berteza, biac bardin, biac egoal.*

Reparationé admirablé, eta miraculos hartçaz, guré Iencoac guri beré amorioa ahal beçain goraqui erakhassidu, eta guri manifestatu camporat beré hirur perfectioné, eta attributo handirie, çoin baitira, iustitia, misericordia, eta çuhurteia, eta çoubateré, hirur perfectioné handi hec iduri baita, beré artian contrario direla, eta elgarren artian, elgar ecin eguarté dutela, hanc elgarrequila redemptioné vigoros hontan, iuntatu ditu, eta arcordu ederbatetan ecarry.

Erakutxidu beré iustitia, ceren beré semé propria gugati incarna eraceric eta gugati hileraciric, recebitu baitu guïconaren aldetic satisfactioné infinitobat, nola offensa baitce infinito. Erakutxidu beré misericordia, eta bere ontarçuna, ceren eman baitu guïçonari gratia moyena, eta boteria eguitecto beré satisfactioniaren iustoqui eta egoalqui, deuseré corretic pagatceco ginbelerat vtei bagué.

Erakutxidu beré çuhurteia, ceren lan batetan eta obrabatetan bi vertuté, eta bi perfectioné elgarren artian contrario cirelarie, iuntatu, iossi, eta tineatu baititu, çoin baitira iustitia handibat misericordia fiandibatequila, arcordu eder, eta handi hartçaz, minçatu cen aspaldian Dauid Erregué Propheta, errandianian, *Misericordia & veritas obuiauerunt sibi iustitia & pax osculate sunt.* Misericordia, eta egua heldu dira eta rencontru eguin duté elgarrequila, iustitiac, eta baquila, elgarri pot bessarkha eguin duté.

Guïconac Iencoari ecin eguiten cian, behar cen peparationia, ceren nola offensa baitcen handi eta infinito, eta guïçona baita, herssi, flaco,

[118]

[119]

Psal. 84.

pobré, eta finito, ecin emaiten cian pagurie, corra beçain handirie, ezpaítcian nontic eman. Iencoac eré lenco beçala ecin eguiten cian berac reparationé hura, ceren reparationé eguiiac behardu içan apalago medriago, behardu içan inferior, eta suiet, nore baitu recebitcen reparationia, hari : baina lencoac ecin daté nehoren eré peco, nehoren muthil, ez baichal, guisa hartan, ez guïconac berac, ez lencoac berac, satisfactioné behar cena ecin eguiten çuen, guïconac lencoac gabé, eta Iencoac guïcona bagué lan handihura ecin compliteen cuten, cer eguin du Ienco Eternalac, makhilare bi buriac, bi bazterrac, batetan bildu, eta iuntatu ditu, egindu beré semé lencoac guïçon, guïcona lenco, virginabaten sabel sacratian, eta Ienco guïçon haren egindu mundu orogatic, beré Aita Eternalari satisfactionebat hain handirie, eta infinitoric, nola baitcen offensa eta iniurioa handi, eta infinito, guïçon beçala mendriago cen eta apalago, eciez lencoac, lenco beçala bardin cen eta egoal beré aita Iencoari ; hambatequi paguia hain handi, nola çorra,
[120] *Vbi abundauit delictum, super abundant & gratia,* dio Apostoliae, falta, eta culpa, handi içanda, haina, gratia, eta paguia orano handiago ; reparationé haren behar cian bi conditioné, mendre tarçuna eta bardintarçuna, biac baçutian, mendre tarçuna guïçon beçala, lendo beçala bardin tarçuna eta egoalitatis, hala reparationia içanda hain handi nola offensa, paguia hain handi, nola çorra, ceren reparationiaren eguiilia, baitcen IESV-CHRISTO Iauna, eta haren actioniaren vitioa meritia, eta pretioa baitcen handi eta infinito, eta lan handi eta adorablé harten guré lencoac colpubatez erakussiditu beré hirur perfectioné handiae, institia, misericordia, eta çuhurteia.

Neuré adisquidia, çuré Capitano Iauna hilda çuri biciaren salbatceco beré hilciaz, eta çuri hobequi beré amoriaren aguertceco, cu cira haren soldadoa, eztadin othoy çuré gogotic haren hilcia, iagoiti ialgui, orhituco cira çuré hilciaz hala eguiten baduçu, çuré bicia, çuré hilcia, eta cu, hirurac huros, eta benedicatu içanen ciraté, baina, neuré adisquidia çuré Iaunac, çuré salbatceco eguin dutian miraculu handiez eta principalqui haren hilciaz, ezpacira ardura orhitcoen, nola orhituco cira çuré hilciaz, eta çuré hilciaz ezpacira orhitcoen, nola nahi cira onsa bici, ezpacira onsa biciteen, nola nahi cira onsa hil, ezpacira onsa hiltcoen, nola nahi cira salbatu, den ardura çuré gogoan, eta çuré bihotcian IESV CHRISTO Iaunaren herio, eta passioné dolorosa, onsa bicirie, eta onsa hilic, deabruaren despit, çuré arima gaichoa salbatucoda.

[121] Egun batez Franciaco Princebat, çoin deithatcen baitcen LOVIS DE BOVRBON, COMTE DE MONTPENSIER, eta çoin baitcen Charles çortci garrena, Franciaco Erreguiaren Naples, Erresuman, Bisarregué, eta Lieutenant Generala, heldu cen Italietan, Pouzols deitatcen den hiribatetan,

eta ioanic Eliçabatera, cointan haren aitaren gorpiçea ehortcirie baitça-goen hobebatelan, halaco guisaz beré aitaren doluz cen nigarrez, hazperenez, cincuritz, eta heyagoraz, non beré hala, hobiaren gañian çagoela beré aitaren dethoratcen hil baitcen, eta arima Ieneoari rendatu, Prince gaztē harc erakhustera eman cian, semé hon beçala, beré aita maité ciala, eta haren hilcia, beré bihotçian barna, baino barnago eduquiten ciala.

Neuré adisquidia, çu non cira, cer ari cira, nola bici eira nola nabi cira hil, IESV-CHRISTO Iauna duçu, curé Erregua, curé Iauna, curé Princia, curé aita, curé anayé Curutcia duçu haren hobia, ohia, thôba, eta sepultura, han çugati hilda, vrkhatu, eta crucificatu, hari eguiçu ardura so, eta hari so eguinic, eguiçu nigar haren doluz, haren hilciaç eçarricodu curé hunian, curé herioaren orbitcia, onsa hilceco, non da bidé hoberic.

Franciacao eta Poloñé berriko Erregué, Henry, icē hartaco hirur garrena Pariseco hiria assetiaturic eduquiten ciala, saint Cloud, dethatcen den hiri tipito bartan, hilcen, eta massacratu bi ganibet colpuz, Fraide gaxto baten escutie çoin deithatcen baicen Jacques Clemēt, Dominicano Fraidé gaxto, Erregué gaiço haren bihotça, eta haren erchiac, Saint Cloud Eliça harten ehorcirie, hobiaren eta thombaren gañian, çoin baiteen harri marbrez egina, epitaphio, eta deuisa eder haur, iarri cen carta batetan beçala ezribaturic moldé hontan.

Andreas Faunus in Historia Nauarreæ

[122]

*Cor Regis in manu Dej,
Asta viator, & dole Regum vicem.
Cor Regis isto conditum est sub marmore,
Qui iura Gallis, iura Sarmatis dedit,
Tectus cucullo hunc sustulit siccarius.
Abi viator, & dole Regum vicem.*

Erran nahi baita euscaras guré lengagian, Erregueren bihotça Ien-coaren escuan da.

Bara cité igapailia, Erreguen sortia deithora eçaü Erregueren bihatça harri marbré honen pian estaliric, eta gorderic diagoçu. Francia, eta Poloñé, harc manatu dutu çapabatez estaliric çagoenbatec haur hilduçu, eta degoillatu. Çoaca igaraila, Erreguen sortia deithora eçaü.

Neuré adisquidia, que eta nic IESVS guré Erregua hil dugu guré behkatiez, eta guré iniquitaté gaxtoez, Iudas traidoria, eta Iudu gaxtoac içanic eré instrumendu haren hilceco, eta haren crucificateco, guré bekhatiac içan dira ganiuetac, eta dagac haren massacratoceco, gu içan guira haren herioare causa principalac, harc guré bekhatiac beré bizcarrian curutciala eramanic, eta carreitaturic, han hayetcaz egindu behar den paguia oro, Apostolubatec erran dian beçala, *Peccata nostra*

ipse portavit in corpore suo super lignum, hilda gugati eta gu oro beré herioaz salbatu ; possiblé dea, ikhusten dugunian haren ohia, eta haré thomba, baita curutcia, edo Eliçan, edo guré camberan, bain ingratac, eta gaixtoac guiren, non ezquiten orbit, gugati hil den Iaunaz, eta Erreguiaz ; eztaquit norat nahi guiren Ioan, baina vsté badugu celurat Ioan, guré hilciaz orbitu gabé, eta vste badugu guré hilciaz orbituco guirela, IESV-CHRISTEN hilciaz orbitu gabé, nor içanenda trompaturie, eta damnaturie gu baicy.

[123] Andreas Fauinus in Histor Nauarre

Franciacio bertee Eregué handibatec, Henri handia, icen hartaco laur garrenac, erraiten cian communzqui beré gortian beré adesquider, proberbio, eta sententia eder haur, *Qui bien aime, tard oublie*, erran nahi baita, norc eré onsa mayte baiatu, berandian ahateera vzten diala. Princé bandi bare, bi persona bertcen artian ahal cen beçanbat mayté çutian bata cen beré areba propia, Princessa Catharina, Lorrenaco Princiaren emaztia, eta ezposa, bertela een Marquisa ederbat, coïnec beré qualitaté ederrezz abantailla handiric, eta gratia handiric, Erregué harenbihotcian ardiatsi baitcian, hain barna, non herioac ezpalu sobera sarry mundu hontaric arrapatu, Erreguec deliberatu baitcian anderé eder haren beré emasté eta espresa legitimotan meçatcera, edo erromec et çuquian boleric hari dispensaric emaiteco, cer guertatu cen, nola herioac egoalqui beré colpia emaiten baitu handier, chipier beçala, Erregueren bi anderé maytiac, hil ciren, bata beré herio naturalaz, bertzia violenciaz, borchaz, eta poçoaz bi creatura mayté hayen hil berria ençun cianian, Erregué bandi harc, ardura ardura, erraiten cian, bi persona hayen dolia, eta regreta, bici ceno Beré bihotcianeduquico ciala, eta deusegatic eré, egun oroz, bici ceno, etcela hambat beré hilciaz orbituco, nola bi persona mayté hayen hilcia cela causa.

[124]

Ieneoari datsala pensamendu saindu bura cian beré gogoan gue esperanca dugun beçala, egun, eta oren tristé, eta malhuros hartan, noiz ere Pariseco hirian, egunaren erdian beré carrossan, François Rauail-lac, sacrilego murtrer gaixto, eta maradicatu harc bi ganiuet colpuz Franciari edequi, eta arrapatu baitcian, franciae egundano ikhussi dian Princeric handiena, hobena, eta maylena.

Ioan. 15

Neuré adisquidia, ezta adisquidé hoberic, ez halacoric, nola noiz adesquidiac, beré adesquidiaren aldé, eta fauoretan beré bieia galteen, eta iocatzen baitu, hala dio eré euangilioan espiritu saindiae, *Maiorem charitatem memo habet quam vt animam surm ponat quis pro amicis suis*. Halaco da çuganat, eta çureçat, eta niganat IESV CHRISTO Iauna, gugati hilie, beré odol pretiosaz erossi guitu eta celiétrat iganez gueroz eré, Eliça saindian, aldarian vtci dian sacramendu saindiaz, beré odol adorabliaz, eta haragui propiaz, eta sacratiaz, behar dugunian, eta placer

dugunian, guré arimae hatcen, entertenitcen, eta sainctificateen ditu, gu nor baguira, gutan ezpada faltaric, dignequi presenta baguité ber mahay sacratu hartara, berac erran dian beçala, *Caro mea verè est cibus, Sanguis meus verè est potus*, ené haraguia da eguiazco edatecoa. Badea halaco adisquideric, hain lealic, honic, eta sécuric? ez, ezta içan ez içanen nola hora gugunat, *Amicus est alter ipse*, dio batec, adesquidía dela gu guihaur den bat, gu iduribat; guré adesquide handiac Iesus honac, ezcutu solamenté mayté vhen beré buria beçanbat, baina orano mayté vhen gutu beré buria beno haboro, ceren beré bicia eçarriric comparationelan guré biciarequin, eta guria, beriarequila, beria galdu baitu eta iocatu, eta guria salbatu, eta hartan eracussi obraz, bata habaro estimatecen ciala eciez bertcia, haren amorio handia gugunat consideraturie Apostoliac manalceen gutu bat bedera, elgar maita deçagun, harc gu maitalu gutian beçala : *Ambulate in dilectione, sicut & Christus dilexit nos & tradidit semetipsum pro nobis oblationem*. Ibil citezté caritatian, eta amorioan, elgar maita eçacié IESV-CHRISTOC gu maitatu gutian beçala, eta harc beré buria gugati eman, eta ohorascatu dian beçala, guré Jesus hona, guré adesquidé hona mayté eztiana, içanenda desnatura tu gaixtobat haren hilciaz ezta orhituco, ela ez beriaz eré halacoa nola nahi cira onsa hil dadin, nola nahi cira salba dadin, ezta lekhurric, ez remediorie, oray guerozco, halocea bieirie dagoela, galdia datça, eta damnatia, ceren ené segond arracoñaz ezpaitu conduric eguiten, coïnc eaitio, guré hilciaz orhitceco, behar dela orhit içan IESV-CHRISTEN hilciaz, eta passioné dolorosaz.

Istoria ederbat irakhurtcen dugu bi adesquidé handiz, eta leialez coïñac deithateen baitciren, Damon eta Pythias, biac adesquidé fidelac, eta segurac, bi adesquidé hayetçaz eguitendu mentioné, Ciceron, et Valerius, bi author bandi bayec, istoriac dio, eta ederra delacoz, nahidut ené libruto hōtan ezhiribuz ecarri, Denis Syracusaco Tyran handi harc bi adesquidé braué, eta leyal hayetaric bata condemnatu ciala hilcera, criminelac gualdo eguin cian hamabost egun heppé, eta spatio, presonteguitic ialquiric, beré adesquiden, eta ascacien ikhustera ioaiteco, iusticiac reffuzatu cian criminelari galdu cian heppé, eta spacioa, ueldurrez behin larguança balu presonteguitic ialquiteco, eladin bihur carcelura, eleçan beré hitça eduqui, eta iusticiaz truffa ladin behin campoa, eta libertatia ardiaz baleça : cer eguindu bertcé adezquidac, sarteen da carcelian adesquidé condematiaren bermé, pacto, eta conditioné eguinic, cōdemnatia ezpaliz bihurtcen hamabost egunen barnian, harc iguaren behar cian pena, eta suplicioa patituco ciala haren lekhufan, pacto horren azpian, bata ialguida carceletic, eta bertcia han sarthu haren plaçan, cer guerthatu da, hitça cen beçala,

Ioan. 6.

Cicero de
amicitia

[125]

Eph. 5

Cicer lib. 3.
de Officiis
Valerius
de amicitia

[126]

hamabost egunen barnian, criminela itzuli cen presunteguiala, beré adesquidiaren beré bermeguoatic deliuratcera, Denis Tyranae ikhussiric bataren amorioa, eta bertciaren leialtatia, eta amiraturic bi adesquidé hayen coragia, criminelari, eta condematiari eman cian bicia, eta biac othoitu, bera heren adesquidé beré compañian recebi leçaten hayen adesquidé nahicela bici, eta hil.

Norc eztu amiraturen, eta ohoraturen bi paganoren artian amorioabat hain leialie, eta religiosic, eta hayen alderat, Tyran handibaten cortesia, eta clementia handia. Bainan neuré adesquidía, norc eztu amiratuco, eta adoratuco, Iesus guré Iaunac, gratiazco leguian, guri orori erakhussi dian amorioa, eta adesquidetarçuna, gu oro, natura humanoa oro, personer çagoen, eta captiuo deabruaren carcelian, cer eguindu guré Iaunac, guré adesquidé bandiac, eta leialac, carcelian sarthuric guré plaçan, hantie idoqui guitu oro, eman orori bicia, eta libertatia, eta berac beria galdu, eta iocatu, guré salbatceco, *Exinanivit semetipsum forman serui accipiens, & habitu inuentus, ut homo*, beré buria, ezdeüstudu, eguindu beré buria esclauo, eta captiuo, eguinda guïçon, guïconaren salbatceco. Eztu nahi deus guguanic guré adisquidiac, bere amorioaren, eta adesquidetarçunaren recompensulan guré amorioa, guré bihotça, guré borondaté hona eta guré adesquidetarçuna baici, hora baita guré adesquidé, erraitendu gu haren adesquidé içanen guirela, haren maniac eguin baditugu. *Vos amici mei eritis, si feritis quæ præcipio vobis*, ené adesquidiac içanen ciraté ené maniac, eta ené leguia beguiratzen baduqué. Guré honac, guré ohoria, gure bicia, guré içatia, guré conseruationia, guré Iaunari, eta guré bermiari, çor dugu dugun othoy ohora, eta maita guré honqui egilia, guiten haren adesquidé hora guria içan den beçala, eta nola guré obligationiac harganat, handiac haitira, guré amorioac harganat, eta guré adorationiac, iusto da handi diren eta ceren, hora guré adesquidé den beçala, gu ecin beiquiraté harenac, ezpaditçagu haren maniac onsa beguirela, eta ezpadugu haren legué saindia, eta berondaté saindia complitcen, guré borondaté propia abandonaturic, dugun harena bessarkha, han bici, e'a han hil, resolutioné saindu horren hartecoco, guré hilciaz behardugu orhitu nic eztaquit remedio, ez secreta, ez bidé hoberic, eta guré herioaz orhitceco, dugun ezquiriba vrhezco leteretan beçala, guré bibotçaren erdian IESV-CHRISTEN passioné saindia, eta haren hiltcé dolorosa. Adesquidebatec beria gaztelutic, presonteguiticidoquiten dianian, haré bermé sarturic, eta haren çorra beré gain harturic, hartceduna beré morsatz, eta diharuz, beré hō propitic pagatzen dianian eta 'guero hari oroz quitança eguiten, eta donationé, promez emaiten hari iagoiti ez deus galdatcera beré hartciaz, eta beré pretentioniaz, baina solamenté errai-

[127]

[128]

ten drauconian content nuçu çuré borondaté honaz, maita neçaçu, eztut nahi euganic deus, çuré amorioa baicy, erran beharda ordu harten halacoa, adesquide hona dela, leiala, fidela, eta quasi pare gabia, amens egunco egunian, elaita ediren ehunetaric bat, edo bigua; cecuria hambat da gaixto, eta corrompitu, non adesquidetárçuna mundutic akhaçatu, eta arras galdu baita, ezta edireiten, tromperia, perfidia, gaixtakharia, eta adesquidé falsuric baici.

Bada Iesvs guré Iaunac halaco adesquidia içanda guganat, non guré corrac oro pagaturic beré odalaren despendioz, deabruaren presonte-guietarie, eçarri baikhutu libertatian, eman orori bicia, eta berac beria galdu ororen salbatceco. Ez tago deüs guri galdez, guré amorioaren, eta bishotçaren baici, norc eztu halaco adesquidia maitatuco, eta haren herioaz orhituric, nor ezta haren ondoan beré hilciaz orhituco, onsa biciric, onsa hilceco.

Guré Iaunac beré buria çordun eguin du guganat, ez deüs guganic harturic, baina berac beré placierala promez eguinie. Hala dio S. Augustin Iaunac, *Debitor nobis factus est Deus, non aliquid accipiendo, sed quod ei placuit, promittendo.* Hongui eguilé handi hontçaz, haren hilciaz, eta beriaz orbitcen eztene, ezta nabi onsa bici ez onsa hil, ez eta salbatu. Bainabai, bidé handitic, eta largotic loan infernurat.

S. Augus.
Serm. 16
de verbis
Apostoli

[129]

Maitaçaliac behardu maitatu gauça maitatia, harganic deüs honic, esperança gaberic, eta harganic deüs damuric ahal duquienaz, veldur gaberic, adesquidé bonac beria behar du diot maitatu, beré adesquidiaren amorecatic, damiaren veldurra, edo honaren, eta prouechuaren esperança consideratu gaberic, hura daté adesquide bona, eta han daté adesquidétárçuna osso, eder, eta complitu, hala dio Ciceronec, *Amare, nihil est aliud, nisi cum ipsum diligere quem ames nullā indigentia, nullā quæsitā utilitate;* amorio, edo adesquidetárçun hura deithatcenda *Amor benevolentiae* amorio chahubat, eta purbat, noiz eré, çuré adesquidiae, çuré cibauren amorecatic maithatcen baiçetu, eta çuc hura, hala hala haren beraren amorecatic. Bada hertcé amoriebat ezpaita hain noblé, ez hain eder, nola lehana, hura da, *Amor concupiscentiae*, noiz eré gauça bat, edo personabat, maithatcen baitugu, hantic, edo harganic esperança dugun prouetchua gatic, eta ez beraren amorecatic, halacoac beré burua maitiago du, eciez beré adesquidiae, eta eliro maita beré adesquidiae espalu cerbait harganic esperança eta haren adesquidétarcuna ezta generos, noblé, eta delicatu, lehana den beçala.

Cicero
lib. de
amicitia

Bada Iesvs guré Iaunac maitatu gutianian, erossi, eta salbatu, eta gugatic hil, eztu deüs eguin beré buriagati, oro gugatic, guré amorecatic egindu, guc ezcundian deüs hari emaitecoric, eta etcian deusetan eré guré beharric harten erakhussidu cenbat haren amorioa guganat

handi cen, noblē, pur, eta deliciatu, eta gue nahi ezpadugu hura maitatu
[130] haren beraren amorecatie amens dugun maita, ohora, eta adora, har-
ganic vñken dutugun eta esparançia dutugun dohain, gratia honqui
handien amorecatie, edo amens, ifernuco pena bandien veldurrez
bereré, bertcela ingratac, eta gaixtoac içanen guira, eta orhitu faltaz
IESV-CHRISTEN herioaz, guriaz ezquira orhituco, eta gure hilcia, içanenda
hiltce gaixtoa, eta malhurosa, *Mors peccatorum pessima*.

Alexandrē handia egunbatez Ioan cen, Darius Persaco Erregua guer-
lan garaituric, haren amaré, emaztiaren eta alauaren, hirur Princessa
eder hayen ikhustera, eta visitatcera eta consolatecera, ceren guerlan
hirurae prisoner hartu baitçutian, andere hayen camberan sarthu
cenian, anderé hayetaric guehiena bassi cen lehenic salutatcen Ephes-
tiō deithateen cen, Alexandrec cian Aitoren semeric maitenaren, vstez
hura cen Alexandre : anderé gaicoa, eçaguti cianian trompatu cela, eta
bata berciagatic hartu ciala, ahalqué handibatec beguitartia estaliric,
confusionetan baratu cen : baina Alexandrec berehala consolatu cian,
erraiten cerolarie, Anderia, etcira trompatu, ephestion bertee Alexā-
drebant da, *Ephestio est alter Alexander*, Ephestioneec valiodu Alexandrec
beçanbat. Prince harc consolatu cian anderé hura heldu çaucon vstegab-
iaz, eta erakhustera eman Ephestion cenbat mayté cian, eta nola beré
buria beçanbat estimatecen cian.

Baina Iesvs guré launac erakhustera emandu beré passionian, beré
buria beçanbat, eta guehiago maité guntiala, ceren guré plaça harturic,
gue meritatu gundian pena, eta tormenta, berac, guré lekhutan beré
personan igaren baitu, eta patitu, deliuratu gutu condemnatz gueroz
burreuen escuetarie eta berac beré buria gugatic bayer largaturic, eta
abondonaturic, beré bicia eta odola galdu, eta issori, guri salbatceco
guriaren, estimatu gutu, eta maitatu beré buria beçanbat, eta guehiago.
Adesquidé maité harçatz, eta haren passioné dolorosaz orhitzen eztena,
ezta orhituco beriaz, eta beré behar ordian; eztu edirenren adesquideric
lurrian, ez celian, eta bai etsay franco ifernian.

Antiquitatiac hertce orduz amiratu du, eta ohoratu, Orestes, eta Pilades
bi adesquidé handiren amorio handia, eta amorio leiala, Erregué
Thoantesec, Orestes galdu nahi cian, eta condemnatu hilcera, emandu
manu beré soldadoer, orestes har deçalen, eta massacra, soldadoac
heldu dira, eta ediré Orestes, eta Pilades elgarequila, eçagutu gabé
coiñ, coiñ cen, iaquin gabé, coiñ cen Orestes, coiñ cen Pilades, galdu
eguin duté Orestes coiñ cen, bassida mintçatcen Pilades, eta dio, ni niz
Orestes, haur niçala Orestes, oré beriā, Orestes minçatuda, eta dio, ni
niz Orestes, cen beçala, bata berteiagati hil nahi ciren bi adesquidé
handi burac, eta innocentac, oguendunari bicia salbatu cian, Thoâtes

Erreguiac, eta haren soldadoec eçagutu faltaz, çoin cen Orestes, çoiñ cen Pilades, çoiñ cen ogenduna, çoiñ cen oguenic etciana.

Eguiaz erran beharda bi adesquidé hurac leyalac, eta segurac cirela, ceren inocēta nahi baitcen hil, criminela gatic, eta criminelac ezpaitcian nabi inocenta hayatic hil ladin.

Neuré adesquidia, amira eçaçu, ohora, maita eta adora, guré adesquidé, hona, leyala, eta segura Iesv Christo Iauna, gue behar gundian hil, bekhatia cela causa, emā cen arresta, prononciatu sententia, leguia paussatu, guiçon oroc, hil behar ciala eternalqui, heldu da Iesvs guré adesquidia, oguenic etciana, faltaric etciana, inocenta, guiçona cen oguenduna, falta egulia, criminela, inocenta hil da, condemnatu cengatic, iustoa, iniustoagatic, bala dio Apostoliac, *Christus semel pro peccatis nostris mortuus est, iustus pro iniustis.* Eta berac beré bicia galdu guiçonaren salbatceco.

[132]

I. Pet. 3.

Errandu lesvs guré adesquidiac beré aita eternalari, guiçanaren aldē, berteé orduz poetac erraiten cian beçala Nisus eta Eurialus, bi adesquide handy.

*Me me adsum qui feci in me conuertite ferrum,
O rutuli, mea fraus omnis, nihil iste nec ausus,
nec potuit.*

Vir. lib.
9 Enéi

Ené aita eternalala, ni niz oguenduna, guiçonae eztu oguenic, ni pati deçadan, eta salba dadin guiçona. Neuré adesquidia, lesvs çuré adesquidé honaz orhit bacité, bide honian cira, çuré azquen orenaz orhiturie, onsa hilen cira.

Codrus Athenasaco Erreguiac, ençunic, victoria beré etsayan contre ecin irapaizten ciala bera ezpaladi hil combatian, eta ençunic oracliac eman ciala errapostu haren etsayer, galdia cirela, Codrus hil balecaté, ençunic halaber, haren etsayec eman çutela defensa biciaren penan, beré armadaco soldadoer, oguenic eleçaten equin, eta ez colpuric eman Codrus Erreguiari, oracliac erran cian beçala, victoriaren hobequi irapaitzeco; Erregué hon harc, cer eguindu, bere resumaren salbatceco, esquale pobrebaten abitiae harturic, eta bere buria desgusaturic, bere buria hileraci cian colpuz, beré armadaren, eta beré herriaren, beré biciaren despēdiox salbatceco; Erregué hona cen Codras, harc beré populiaren bicia maitiago cian, eciez beria.

[133]

Baina lesvs guré Erregua, oraino Erregué hobia içanda guretçat, salbatceen ahal cian, lehen erran den beçala, beré populia, bera hil gabe placer vkhén balu, baina guri eracusteco maite gundiala, guré adesquide hona cela, bere Diuinitate adorabliaren abitu ederrac gordé ditu, eta estali, guré humanitaté miserabliaren pian, eta desgusaturic guré haraguiaren pian, beré buria deabruari, eta mundiari quasi eçagutu

1. Cor. 6 eraci gaberic, hilda gugati Caluariaco mendian, salbatu eta erossi heré populia, beré odolaren despendioz, Apostoliac erran dian beçala, *Empti estis prætio magno*, pretio, eta soma handitan erossiac guirela

Neuré adesquidia, Iesvs curé adesquidé honçaz orhitcté, nahi bacira, eta ez orhituco cira curé hilciaz, eta bidé hontan sarturic, onsa hilen cira bidé ederrian ezta behar guelditu, goaçau aitcina ikhussi behar dugu hirur garren arracoïña.



[134]

HIRVR GARREN

arracoïña porogatceco, onsa hileco

bidia dela herioaz orhitcia.

2. 2. q.
164. art. 1

Rom. 6

Rom. 8

Rom. 5

HERIOAZ minçatu diren guciac arcordu hōtan dira, herio dela behatu originalaren pena, haren arranda, eta haren irabacia, *Mors est pæna peccati originalis*. Herioa ezta deusere bekhatu originalaren pena baiei hala dio S. Thomasec, Apostoliac ere ber gauça dio, *Stipendia peccati mors*. Bekhatiaren gagia, eta irabacia herioa. Hapalago hanc berac dio, *Corpus mortuum est propter peccatum*. Gorpitça hil dela, bekhatia dela causa. Epistola hartau berian Aposfolu hanc berac dio, guisa hontan minço delaric herioaz, *Per eum hominem peccatum intravit in orbem terrarum, & per peccatum mors, & ita in omnes mors pertransiit in quo omnes peccauerunt*. Guiçonbat dela causa, bekhatia sartu da, eta ginda mundura eta bekhatiaren moyenez herioa eta herioae gucia direnac oro igaren ditu, colpatu ditu, eta guiçon haren personan, oroc egun dute bekhatu.

Hambatequi herioa ezta deusere priuationebat baicy, biciare priuationia, eta ceren gauçabat hobequi nehore eçaguteen, eta ikhusten bai, gauça haren contrario eçaguturie, eta ikhussiric, hala nola churia, belçarèn aldian, Philosophec erraiten duten beçala, *Contraria contrarijs opposita magis elucent*, gauça contriae, beré contren aldian hobequi aguertcen direla, dugun ikhussi, privatione honen contria baita bicia, combat manerataco den, bantie ikhussico dugu prouationé haur baita herioa, nolaco den.

Arima da biciaren, eta operatione corporalaren, principiobat, *Anima est principium vitæ, & operationis corporalis*.

Gratia da biciaren, eta operatione spiritualaren, eta meritorioaren

[135]

hatsarria, eta principioa, *Gratia est principium vita, & operationis spiritualis, & meritoriae, lumen gloriae est principium vita, sine operationis beatificae, et aeternae, Gloriaren arguia da, biciaren, eta operatione beatifico, eta eternalaren hatsarria, eta principioa.*

Hargati errayten dugu, bicia hirur manerataco dela, corporala, spirituala, eta eternala : eta ceren herioa baita biciaren priuationia, hantic enseguitcenda, hirur herio suerté direla, corporala, spirituala, eta eternala, herio corporala da arimaren gorpitetic priuationia, edo separationia, herio spiritualada, gratiaren arimatic priuationia, edo separationia, çoin eguiten baita, culpa, eta bekhatia dela causa. Herio eternala da, gloriaren arguiaren priuationia, çointan baita consistitzen, bicité eternala paradusia.

Hirur herio mota hauc, nahiceren aldetic consideraturie, horriblé dira, cruel, belz, icigarri, izagarri, principalqui lehana, baita corporala, bada guiçona segurda etsay handi, terrible, horriblé eta icigarri honen escura erori behardiala, eztaqui eguna, ez orena, eztaqui noiz, eta nola, bena badaqui haren colpiari ihesiric ecin eguiten diala, badaqui etsay horriblé haren beguitarté belça, eta terriblia behin ikhussi behar diala, eta ez guehiago, ezteia possiblé guiçona so eta beha egon dadin animale gaixto haren colpia nontic ginengen çayon, bay, egon behardu, goyaita, eta sentinelan gañaz eta egunaz, çuhur bada, bercela harenac eguin diala condu emaçu. Haur da ené hirur garren arraçoiña, porogalceco libru hontan, onsa hilceco bidia, baita herioaz orhiteia, dela ardura consideratcia, herioaren cruentarçuna, horribletarçuna eta haren malecia handia.

Gauça naturala da, animalé orori beré biciaren mayté ykhaitia, eta haren conseruatceco moyen onroren, eta remedio ororen curiosqui cherkatcia, hala nola bercé aldetic, baita natural gauça orori, herioaren hastio ykhaitia, hari ihessi eguitia, haren beldur içatia. *Bonum est, quod omnes appetunt, hona da oroc mayté dutena, oroc desiratē dutena, dioté Philosophec, eta gaitça, baita haren contria, hura oroc hastio, oro haren ihesi, oro haren beldur dira.*

Ardiac eta achuriac, ikhusten dianian hartça, edo otsoa beraganat giten, haren beldurrac içiturie, ikharatcenda, et marrakhaz, lasterca ihesi doa arçaiña, eta arçan hora, non baitira, hayetara, cerē baitaqui onsa naturaren leguiac, eta instintoac erakhutxiric, otxoa dela haré etsaya, eta haren ialia, eta harc attrapa badeça, bicia galdu behar diala.

Guiçona, baita animale ororen Erreguia, baditu harc eré beré leguiac, beré sendimendiac, eta arraçoiñaren arguiac, Philosophec eré hala emayten deraucoté beré içena, *Homo est animal rationale*, guiçona dela animale raçonablebat, baditu beré etxayac mundu hontan visibiliac, eta

[137] invisibliae, baina ez bat hain cruelic, eta hain maleciosie, nola baitu herioa, berteen contré noicie behin deffendiatcenda, bena herioaren, contré ezta armarie, ez deffensurie. *Contra vim mortis non est medicamen in hortis.* Herioreni colpiaren, eta haren maleciaren contré, ezta belhar honic baracetan edireiten.

Halatan natural da guiçonari beré biciaren, eta haren conseruatiōniaren mayté vkhaitia, eta haren contria baita herioa haren hastio vkhaitia, haren ihessi ioaitia, haren veldur icatia harçatz orbitcia : ala bena guicona hanbat gaixta da, eta miserablé, nor daquialarie herioaren colputic dependitzen dela haren onsa, edo gaixqui iagoiticoz, icatia, ezpaita, nahi herioaz orbitu, mundiac eta bekhatiae vtsurie daduca, eta noiz eré içanen baita, herio vtsiac, guiçon vtsiari colpu vtsubat emanic, emanendu vtsiac, vtsiaren gorpitça lurrari, eta haren arima deabruari.

Guiçon vtsia, idequitçaçu çuré beguiac, so eguiçu herioa çonbat den malicios, eta trompur çuganat, haren tromperiez, eta maleciez orhiturie, harçaz heraz orbitcian onsa hilcco.

Herioa, eta otsoa biac bat dira, otsoac iatendu, iresten, eta deuorateen, otsoac beçala, bena deusec eré ecin assetzen, ianago nabiago, gormand, eta gulos da animalé hora, bertece ororen artian, deusec eré ecin assé diro.

Halacoda herioa, bere sortzia, eta icatia Adamē, eta Ebaren bekhatutie, vkhenez gueroz, egunco eguniala drano, iandu eta iretsi sey, edo eazpi mila, vrthé hontan, edo vngureno hontan, eztaquit çonbat milione guiçon eta emaztē, condia eztaqui Ieneoae berac baicy, iandu eta iretsi, otso hare, ala baina orano ezta content, ezta assé. Natura humanao oro arras akhaua, ruina, hil, eta atarra artino, eztu honic vkhenen, azquen iuiamendu generalian assecoda iagoiticoz, an hartino ez, ordian Elia, eta Enoc Prophetac, eta Antechristo gaixtoa hilic eçarri dutinian, heda, heda, beré azquen colpia emanendu bici orori, bena egun hora gin artino otso haren hortz baguinetan treues igarendate, eta igarenen bici, sortu oro. Guicona soguiçu certan ciren, oren oroz otso minthu, cruelbat dabila çuré alidian inguru, noiz ianen çutian, gogoa emaçu ora drano beçala bekhatian egon bacité, bekhatian vssquiric, bekhatian ianen çetu.

Herioa, Vipera sugué mota gaixtobat idurida. Sugué hartçaz minço direnac, dioté, haren humiac, beré amaren sabelian concebitu, eta formatu direnian ez tutela eguruquilen sortecoco dembora, naturac behar dian operationé, eta termaiño ordinaria, bena beré amaren sabela mocoaz chilaturie, eta hautsiric, sortezen direla ordu gabé eta sorteian beré ama hiltzen, hantic ardiatsidu sugué harc beré içena, *Vipera, quasi vi, pariens*, vipera dela violentçiaz, eta bortchaz sortezen diana.

Mo'dé berian herioac eguitendu guiçonaren côtré, nola sugué hari beré humec, ordu gabé naturac beré corsu eta dembora bethé, eta complitu, gabé guiçona, eta emaztia beré adinic hobenian, beré gaztetarçunian, beré indar, eta ossagarri handieniā atrapateen ditu banitz orduz, hiltcen eta massacratcen, eta beré colpu mortala ichilic, ez vstian emanic, hambat gende gastiarí; nola çaharrari prôqui, eta subitoqui, bortchaz, eta violentiaz, hata eta bertcia hoberal, eta thombalat era maiten ditu, eta han lurrez estaltcen, aguijan, Iesvs, erraiteco, beré arimaz, eta beré eguitecoez, pensateco lekhurie, ez demboraric eman gabé, halacoen hilcia da, hilce tristia, belça, eta malhurosa, ceren dangerous baita, halacoac hiltcen diren, hirur herio suertez, corporalqui, spiritualqui, eta eternalqui, eta galtzen dutila hirur bicitce suerté direnac, biciteé corporala, spirituala, eta eternala, hargati Eliça saindiac othoiteé haur eguitendu lencoari letariñetan beré haur fidelen aldé eta faboretan, *A subitanæ, & improuisa morte libera nos Domine.* Iauna othoy, goarda, eta delibra guitcatu herio subito, ez vstian, pensatu gabe giten den, herio gaixto hartaric. Neuré adesquidia, combat eré ezpaituçu ikhosten, sugue gaixtobat mocoa poçoaz betherie, curé aldian dabila oren oroz curé çaurtu, eta colpatu nahiz, haren maliciaz, eta cruentarçunaz orhitcité estatu honian haren colpiaren errecebítceco.

Herioa, hor errabiatu, gaixtobat idurida horac gendia edo Cabalia vssiquiten dianian, partebat eramaylendu, eta partebat quittaceen, bena eztu peça oro eramayten eta hora errabiatu bada, vsiquiten dià gauça beré vsiqui saxiaz, eta corrompitiaz, coçatcendu eta corrompitcen, halaco moldez, non lehen beno lehen ezpadu itxasoco vrian vkhutcen, eta chahatcen, errabiatcen baita eta hiltcen, beré forman, herioac, guiçona, eta emaztia vsiquitendu, eta beré vsiqui gaixtoaz coçaturic, eta corròpituric partebat guiçonari eramaitendu eta hiltcen, eta herteé partia ossorie quitateendu, eztu hunquiten, gorpitca arras eramaitendu, eta arima, ecin baitiro, hunqui gabé, quitateendu ossoric, ceren imortal baita beré naturaz eta ecin hiltcen baita, hargati herioae du icena, *Mors à morsu, siuè à mordendo,* eta harc gorpitçari eginten dian vssquia, hambat da cruela, eta poçoatia, non haren çauria, eta colpia, baita incurablia, eta erremedio gabia, ezta vrie, ezta itxasoric, ezta cõtrepoçoaric, ez barberic haré cocia sendotcen ahal dianic, ala den Aita saindia, eta Cardinalia, a la den Erreguaia, Princia edo laboraria, aberatza ala pobria, hor harc behin vsiquiz gueroz hil behardu, eztadila nehor trompa, gogoa eman beça hor haren vsiquiari, hargatic errandu Poetac ederqui; *Mors æquo pede pulsat pauperum tabernas, regunque turres, bardin bardina, eta egoalqui galcen,* eta rui-nateen dutiala pobren bordac eta cabanae, nola Erreguen torriac, eta

[139]

[140]

iauregui gazteliac, ezta han differentiaric, reserburie, ez eta priuilegioric aberatzaren, eta pobriaren artian.

Neuré adisquidia, que vté beno lehen hor errabiatu hura ginen da curé vsiquitera, nontic nahi baita, ala den cangotic, azpitie, burutie, bessotic, bihotcetic, ala sabeletie, vssiqui bacit a, non nahiden, hunqui bacit a ber, ioan cira, galdu cira, hil cira othoy, hor errabiatu haren vsiqui gaixtoaz eta maliciosaz orhit t , nahi bacira onsa hil, eta salbatu.

Herioa, soldado gaixtobat, Capitano cruelbat, tyranno misericordia gabebat idurida, guerla handibat, eta horriblebat eguitendu gui onari, eta emazliari, gorpit a porrocaturic eta arrabazcaturic, guerla hartan erhauts, eta lur guertatcenda, haren cai ac, eta e urrac hurturie, ikhara dabilt a, haren odola nahassirie, heraquitcenda.

[141] Haren arima gaichoa, nabi gabez ber  lekhutie, eta engonguiatic ialqui, ezlaquianez nor t doen, ala infernurat, ala celurat, dolor , eta regreto handirequin ber  gorpitcetic, ialquitenda, eta tristura handitan, harganic cong t har en, eta hari azquen adioa erraiten. Particularqui soldado cruel har atz colpatia, edo den gui ona, edo den emaztia, bekhatoria bada, eta bekhatian biciric, bekhatian hil en bada, ber  conscientia propiae erratecendu, eta iaten barnetie, eta campotic, ald  orotarie, hala dio scritura saindiac, *Foris rastabit eos gladius & intus paucor*. Ezpata  orrotzbatec campotic deseguinen dutiala gaixtoac, eta barnetic, veldurrac eta apprehensioniac, glosac dio, *Foris, id est in corpore, rastabit eos gladius, id est mors, diuidens animam a corpore : & intus paucor diuini iudicij animam condemnantis*. Campotic herioae ruinatuco dutiala, trenkhateian, eta heretcian arima gorpitcetic, eta barnetic Iencoaren iuamendiaren veldurrac, ceren arima iuaturie, condemnatuko baitu pena eternaletarra.

Deut. 32 Halacoaren concienciae vkh nendu guerla handibat, soldado traidor  harc emanic, ber  contr  campoan ikhussicodu ber  ingia samurturie, eta coleraturie, barnian ber  culpa falten accusationia, eta borreua, ber  aldian ber  etsaya armaturie,  oin baita deabrua, bere pian infernia, ahoa  abalturie, haren hantic barna iresteco.

[142] Heb. 10 Guerla hura, pundu hartan icigarri i anenda gui on bekhatoriari, ezta i anen bat, non eztadin ikhara gudu eta batailla hartara gin dadi ian, hargati dio Apostoliac, *Horrendum est in manus Dei viui incidere : Horribl  dela, eta icigarri erortia Ienco biciaren ezcura. Prophetae er  min o denian guerla handi har atz, bekhatore momento trist  hartan sofferituco duenaz, dio, horrore nimio formidabunt, veldur eta lotsa handi batec harturie iorie egonen direla. Baino orano handiago i anenda veldurra beno, pena, tormenta, supplicioa, punitionia,  oin arima gaicho,*

miserablé harc infernian iagoiticoz patituco baitu, soldado gaixto harc, herioac, pundi hertsi hartan separa badeça beré gorpitetic bekhatu mortalaren estatian, haren conditionia hambat içanenda miserablé, eta maradicatu, non haren aypamenac berac ené luma ené escuan ikharetan baitu, eta nigarra ené beguietan behera ialqui eraciten baitu. *Desiderabunt mori, et mors fugiet ab eis.* dio spiritu saindiac Apocalip-sian, nahi diraté hil, bena herioac equinendu ihesu hayeganie. Arima damnatico herioaren esqué eta bilha ibilico dira su gar handi harten, bena eztuté ediren herioa, hayen ihesi ioanenda, gorderic egonenda.

So, eguiqu miserablé hec, certara erori diren, herioa da biciaren corruptionia, eta priuationia, biciteia da içatebat bicidiren orori, *Vivere riuentibus est esse*, eta içaté oro hon da, *Omne ens est bonum*, Philosophiac erakhusten dian beçala, ala bena, miserablé hec, beré penen handitarçuna dela causa, maitiago eta nahiago vkhaneñ dute ez içatia, eciez içatia, herioa eciez bicia, ceren miseria harten, sugar harten biciric egoitia beno, hayençat hobiago baita, ez içatia, eta hilecia, eciez içatia, eta bicia, Philosophen Princiac errandu arrçoiña, *Carere malo est, quoddam bonum*, gaiteic ez vkhaitia baita cerbait hon; eta halaber Doctor Angelicoac dioen beçala, *Melius est non esse, quam male esse*. Hobeda ez içaitea, gaixqui içaitea baino. Hargatic orano, errà cian Iesvs guré launac, ikhussiric eta eçaguturic beré iaquitiaren miraillian, Iudas beré dicipulu traideriaren bekhatia, desperationia, eta haren damnatione eternala, *Bonū erat, si natus nō fuisset homo ille*. Hon çuqueyen sorthu ezpaliz guicon harc, edo sorthu, eta beré hala hurtu, hondatu, eta ezdeus bihurtu baliz.

Hobé liçaté beraz desdichatu oren gaiteian sorthu diren miserablé hayencat, hilecia, eciez bicia, hiltcen ahal balira, bena ibilico dira herioaren ondoan, bena ez ediren herioa. *Querent mortem, & non inuenient eam.*

Neuré adesquidia soldado traidero haur, baita herioa, honen cruetarçunaz, eta misericordia gabiaz, orhituric, biceité bakhian, lencoaren gratian haren maleciez, eta tromperiez, haren colpu mortalez trufaturic, mundoço guerlac akhabaturic, lencoа baitan bakhian hilen cira.

Venturaz ediren da çoimbat spiritu gaizto, eta curioz çoiñec erranen baitu, hor errabiati harc soldado traidero harc, herioac, beré vsiquiaz, eta beré colpiaz guicona oro, gorpitça eta arima, biac hilteen dutiala, eta aguian beré erran gaixtoa, eta falsia, nabi luqué porogatu esquirituraz lekhu hontaric, eta passaie hontarie, *Vnus est interitus hominum, & iumentorum, æqua est utriusque conditio, sicut moritur homo sic & illa moriuntur*. Aberen eta guiconen hilecia bat da, guicona, hiltcen den beçala, aberiac eré hiltcen dira, bien conditionia, bat, da.

Apoc. 9

Eth. 5
[143]

S. Thom.
39. q. 9
art. 3. in
corpore

Math. 26

Apoc. 9

Ecles. 3
[144]

Eclesiast.
vitimo

Horren errapostua ezta gaix emaiten, lekhu errà denian endelguatcenda gorpitçaz, eta ez arimaz, çoin baita gauça spiritualbat, eta immortalbat beré naturaz erran dugun beçala, hala dio ere escriturac *Reuertatur puluis in terram suam vnde erat : & spiritus redcat ad Deum, qui dedit illum.* Bihoa erhautsa, itçul bidi erhautsa beré lurrerat, nontie ialqui baiteen harat : eta spiritua bibur bedi, itçul bedi Iencoaganat çoiñeganic ialqui baiteen eta çoiñec eman baitçian. so eguiu nola escriturac, deithatcen dian guïçona ; lur, eta spiritu, gorpitça lur, et arima spiritu, erran nahi baita, gorpitça mortal dela, hil behar diala, arima ecin hiltcen dela, immortal dela, eta iagotticoz berteé mundian immortal içanen dela, bieico dela, edo Iencoarequin haren glorià eternalqui huros, edo infernuan deabruaruquin eternalqui malhuros.

Erran dugu lehen eré herioa volurbat dela, eta ohoinbat, guré errana eré scritura saindiaz porogatu dugu asqui onsa, eta larguoqui, heben orano dugun ikhussi haren voleriae, eta ohoinqueriae combat handi diren, eta malicios, guiconaren contré, hobequi consideraturie haren cruetarçuna, haren horriblè tarçuna, eta malecia, hobequi harçatz orhit guitian, onsa eta hurosqui Iencoaren gratian hiltceco, ceren, eztugu berteé intentionerie libru hontan, haur baici, porogacia, onsa hileco bidia dela hilecias orhiteia.

Herioae guicona, buluz gorri gorria ecartendu hileian, edequiten derauzeo azquen passagé hartan, beré honac, gueia, beré vrhiac,

[145]

cil harrac, lurrac, haciendae, echiae, deuseré vtei gabé, hurosdaté ahorrabat, mantharbat, edo mihisebat badu hoberat ioaitian, hala erraitendu lob saindiac, *Nudus egressus sum ex vtero matris meæ, & nudus reuertar illuc.* Buluz gorriric gin ninçan neuré amaren sabeletic mun dura, eta buluz gorriric noa lurrerat.

Tim. 1. 6.

Hala dio orano Apostoliae, *Nihil intulimus in hunc mundum, haud dubium, quod nec aliquid afferre possumus.* Eztugu deus ekharri mundu hontara, eta eztugu deus mundu hontarie eramanen. S. Bernard Iaunac dio, *Mirabilem ianitorem, scilicet mortem in exitu, posuit mundus, qui nihil suum secum trahere permittit.*

Portal çain agudobat eçarridu munduac, baita herioa, azquen passuan, portal çain, eta ieulier haren eztu nehori eré deus vzten, beré honetarie berequi eramaitera. volur, eta ohoin haur gaiztoa da, eta agudoa, bicia, eta honac oro edequiten ditu guïçonari mundu hontarie partitcian, sosbot, edo franbat vtei gabé beré bidiarén igaraitiaco, berteé mundiala helceco.

Volur eta ohoin gaixto haren, herioac guïçona, bulutcendu beré placer, voluptate, contentamentu orotarie, eta nola comunzqui guïçon behatoriae, mundian beré placerae maité baititu, *Trahit sua quæque*

voluptas, nor beré bekhatiac tirateen diala, dio poetac, dugun erran, desplacer handiric eguiten diala herioac guiconari beré gauça mayten edequitiaz, edequitendu, herioac aita semiari, semia aitari, ama, alhauari, albaua amari, areua anaiari, anaie arenari, senharra emaztiari; emaztia senharrari, adesquidia, adesquidiat, Erreguiac Erresumer, Erresumac Erreguer, aita saindia Eliçari, apezcupiac beré Dioceser, guc guré demboran galdu dugu guré herrian, bi maytia, mayteric, eta Gassion, baiña gineoae eman drauco, Sanson handibat, guré consolatceco, eta guré nigarren vchucatceco, lenco honac eman badiço osagarri, eta bicité lucé, guré desira den beçala, gure Eliça, eta guré herria, handi, eta azkhar içanenda guré etsayez traffatceco, eta hayen veldurric ez vkhaitco.

[146]

Labur erran deçadan, herioac, gauça maitia, eta maitagarria, maita caliari, ez vstian edequitendu, eta doloré, desplacer, bihotzmin handiric hari emayten.

Herioac, volur, eta ohoin bare, doloré, tormentu, eta min handiric eguitendu guiconari hilcian, haren gorpitceco membriac oro hambat ederqui elguarren artian beiçaudian iossirie, eta vniturie, ohoin bare, descosutcen, eta barreiateen ditu placer dianian, erhausten, eta deseguiten, eta nola arimaren eta gorpitçaren vnionia, orapiloa, amorioa, baita herti, askhar, eder, eta maitagarri, herioa giten denian, vniione haren barreiatcera, orapiloaren lachatecera, amorioaren deseguitera, gauça eder, askhar, herti, eta maitagarri haren flakhatcera, beltcera, eta ichussi rendatcera, nore eztu erranen herioa dela, gauça cruela, horriblia, belça, eta terriblia, eta halacoa bada, den beçala, nor ezla egonen haren veldurrez, haren beha, eta nor ezta harçatz horit içanen, haren aiduru egonic, onsa hilceco.

Volur, eta ohoin hura, herioa dela causa, haren cruel tarçunac, eta maleciac direla causa, errandu Philosophen princiæ : *Omnium terribilium terribilissimum est mors.* Ororen belceña, gaixtoena, terriblena, herioa da.

Ethic. 3

[147]

Erran nahidu, erharçunac, presunteguiac, pobrecia, mesperechiac, holça, beroa, desohoriae, eta berteé mundoço disgraciæ, desplacent dira haziogarri, eta guiconari, hanitz doloré, eta tormenta emaitë baina hateg eré ez banbat, nola herioac. bura da ororen lehena, eta azquena, harc du guicona, eta guiconaren gorpitça, eta arima, nahasten, lotsalcen, ikharatcen, eta beré gonetic, eta clotetic idoquiric, bata lurerrat, eta berteia celurat, edo infernurat iagoiticoz akhaçateen.

Herio terrible hori, ieigarri da mundu gucier handier, eta chipier, iustoer, eta iniustoer, baina principalqui nor eré bekhatian biei baitira eta bekhatia hiltcen, hayençat, huraç dira miserabliac, eta malhurosac,

Psal. 33

hayen herioa da, herio gaiztoa, eta herio helça, hargati errādu Propheta Royalae, *Mors peccatorum pessima*, bekhatoren hilcia dela, hilcé gaixtoa.

Bekhatoren herio gaizto, eta maradicatu hura, guerta eztaquigun, guré Iaunac gomendio eguitec draucu guré arimaz, hura perecha deca-gun, eta mundocho honez casuric ezteçagun eguin, erran dianian, *Quid protest homini, si eniversum mundum lucretur anima vero sue detrimentum patiatur?* cer provetchu du guiçonac, mundia oro irabaçarie, eta bereturie, beré arima gal hadeca. Asqui clar, eta garbi minço da guré salbaçalia, bataz dio mundia, eta mundocho honac ez deus direla, eta bertece aldé dio guré arima baita immortal, harçatz arrankhura har de-cagun, eztadin ioan infernurat, guré bekhatiac direla causa, baina guré obra honen moyenez, Iencoaren Erresuma eternala irabaz ahal deçan.

[148] Job. 1 Job saindiac eré baçakhian bekhatoren herioa, combat cen gaixto, eta miserable, oihu, eta heyagora eguin cianian mundu orori, *Pellem pro pelle, & omnia que habet homo, dabit homo pro anima sua.*

Larria, larriagatic, eta beré honac oro emanenditu guiçonac, beré arimagatic. Lurreco honac oro eztira lur baiei, lurreco honce eztituté balio arimabat, guiçonac, çuhur bada, beré honac, beré larria, bere bicia galbitça, beré arimaren salbateeco, beré odola oro, ezquen gote-lara drano isor beça guiçonac, sua, burduiña, vrkauia, lehen sofferi bitça, eciez bekhatu mortalhat eguinie, gaixqui hilic, bekhatian hilic, seculacoz bere arima damna deçan. Neuré adesquidia, so eguiü Job combat herioaren veldur cen, eta combat, beré arima mayté cian, nahi nuque, haren veldurretic, eta haren amoriotic gundian bigua, edo birur bibi, esperança nuqué ezquindiriola eguin, bekhatoren hilcia, baita hilee gaixtoa, baina bay justoen hilcia, baita hilcé hona.

Comunsqui herioa ororen da terrible, erran dugun beçala, baina principalqui, nor eré mundu hōtan baitaudé iossiric, eta itéaturic, beré placeretan, beré honnetā, eta voluptaté gaixtoetan, hayen ororen da horrible, eta icigarri, ceren herioac halacoac bat batian, ezystian beré gauça maytetaric, separatecen baititu, eta apartatecen iagoiticoz, eta çonbatenaz baitituzté mayté mundocho honac, eta placeraç, hambatenaz da hayen regreta eta desplacera handy, haye galciaz, eta bayetaric separaturic, eta priuaturic egoitiaz, hala dio Salomon çuburrac, *O mors quam amara est tua memoria homini habenti pacem in substantijs suis.*

[149] Ecls. 4 O berioa, a la baita quré memoria, çuçatz orhiteia, aspré, mingar, tristé, eta karratz guiçonbati, mundo hontan, bere aisala, honez, eta ederrez betheric, bakhian bici denian. halacoac eztu nahi ençun aipamenic beré hilciaz, eta dangerousda, halacoac beré vsatu gabarequin, herioac beré bekhatiä atrapaturic, hilcé malurosbat eguin deçan.

Neuré adesquidia, nahi ducia çuhurqui eguin, ezteçaçula mundia

sobera mayta, curé placerac, eta curé honac gutiago, emaçu curé bihotça, eta curé amorioa lencoari, halatan, herioaren orena gin dadinian, mun- du hontarie partitiac, eztrauçu dolu eguin, eta herioa, combat ahal beliciaté horriblé, eta terriblé, haren veldur gabé lencoaganal alague- raqui ioanen cira,

Estugu behar dudatu herioa eztela gaúca ororen horriblena, eta gaix- toena, Iesv-CHRISTO bera haren ueldur içanda, guiçon beçala, eta ikhussiric haren arima sacratiæ, çoin beiçagoen haren gorpitz benedicatua- requin hain ederqui, eta bortizqui, uniturie, eta orapilaturie, behar eiala harganic partitu eta separatu, herioa cela causa, haren verdurra, eta apprehensionia, guiçon beçala honquitu cian, eta lotsatu haren bihotça, eta herioaren veldurra erakhustera eman cian, beré aita eter- nalari, egun cian othoiciaz oliueteco barateian forma hontan. *Pater mi, si possibile est, transeat Calix iste à me.* Ené aita eternala, possible báda, ni ezeapa nadin hil gabe, iguaren bedi calitça haur eneganic, bihoa calitça haur ené ganic.

Ezta amriorie, ez orapilorie, hain hertsiric, ez azearragoric, eta maitingoric nola arimarena, eta gorpitçarena, eta bi adesquide maité hayen elgarganic partitcia, eta separatcia, da halaber doloren, eta minen handiena, eta cruelena, halaco guizaz non, ezpaitaqui nehorc eré, com- bat cruel, eta sensible den hura sofferitzen dianian baici, eta guré mihiac ecin erran diro nolaco den tormentu hura, guré orena gin dadinian iaquin en dugu haren berri, hargatic guré launa icitu cen, eta lotsatu, guiçon beçala, ikhussiric beharciala hil, guré salbatceco. Eta hargati, erran cian, *Pater mi, si possibile est, transeat Calix iste a me,* ené ayta, possible báda, Calitea haur aparta bedi niganic.

Gure launac ohoitce hura egun cianian oliueteco barateian, herioa- ren veldurrez, edo oratione hura ençun cen, haren aitaz, edo ez, ençun bacen, etcian hil behar, ençun ezpacen, haren orationia inutila cen, behar gabuerie eguna : difficultaté, eta orapilo haur garbitu behar dugu errapostu bacoizbatez. S. Thomasec dio, *Non orauit, sed simplex naturæ desiderium proposuit, non fuit oratio, sed explicatio naturalis affectus, quo Christi humanitas abhorrebat à morte.*

Guré launac barateian etciala, hitz hayen erraitian ohoitceric egun, baina solamente, representatu ciala bere aitari, desircundé naturalbat beré biciaren conserbatceco, guiçon beçala, halaber hastiotareun natu- ralbat, çoin baitçian Iesv-CHRISTEN humanitatiac herioaren contré, ceren hura baitzen haren biciaren etsaya eta priuationia.

Actione hartan erakhustera eman cian, eguiaz goiçon cela, eta guiçon beçala herioaren veldurra baciala ceren herioa baita guiçonac ikhusten, eta recebitzen ahal dian gauçaric horriblena, eta cruelena,

[150]

Math. 26.

Q. 21. ar. 4
in fine

[151]

Halaber eracustera eman cian, ordian hanc erran çutian hitçac, etci-rela orationebat, baina haren humanitatiaren representatione naturalbat, ceren ordu hartan berian, minçatu baitcen beré aitari forma hontan, *Non sicut ego volo, sed sicut tu.* Ene aita, eguin bedi euc placer duçun beçala, eta ez ni nahi niçan beçala beré borondatia, beré aytaren horòdatiari ohorescatu cian, eta hantic ioan cen eguitecoa, beré aytaren decreta complieçan, herio eta passioné dolorosbat gugati iguaré cian, eta soffritu.

Eztu eguin guré launac othoitce, eta orationé inutilic behin eré, noiz eré absolutoqui cerbait beré aitari galdu bai, baren othoitcia, eta orationia ordu oroz ençun eta exanditu içanda, ez solamente bera, ençun içanda, baina oraino, guri promes emandu cereré guc haren icenian, haren aitari galduco baicundian, hura oro ardiatzico gundiala. *Siquid petieritis patrem meum, in nomine meo, dabit vobis,* cer eré galdo eguiñen baitucie ené icenian, ene aitari, hura oro v Khanen ducie. Erran den actionian, ez tu deus galoric eguin bere aitari, baina bai representatu desireundé naturalbat coin baitciā haren humanitatiac beré biciaren conseruatceco, agueri den beçala ordian berian haren ondoan errā çutian hitz saindiez, *Verumtamen siat non et ego volo, sed et tu sis :* Ené aita, nie hartu eta esposatu dudan natura humanao herioaren veldur duçun, eta harganat badię odio, eta hastiotarçun, orotrat eré baur nuçula çuré semé obedientia, eta humila, eguiçu nicatz placer duçuna, complituden curé borondalia, eta ez bateré enia.

Gauça naturala da animale orori, beré biciaren maite vkhaitia, eta haren conseruatcia, eta herioaren baita biciaren etsaya, eta ruinamendia, hastio vkhaitia, eta ihetsi eguitia. *Omne animal vitam tueri laborat, mortem vero, perniciemque decitat,* dio Philosopho christino handibatec desircundé natural hori erakhussi cian guré launac, hilcian, eta herioaren veldur hori, guion beçala.

Ezta miretsi behar, ceren herioa den bain gauça gaixtoa, itchusia, beltça, cruela, icigarria, terriblia, eta horriblia, eta guionari hamhat othoy, eta remonstranca eguiten badut ené libruto hontan, bare vel-durra, eta memoria, beré bihotcian eduqui deçan onsa hilceco.

Iencoac eguin dutian gauçac oro hon dira, hayetan ezta deus gaixto-rie, hala dio Escritura Saindiac, *Vidit Deus cuncta quæ fecerat, & erant valde bona,* Iencoac ikhussi ditu eguin dutian gauçac, eta bere obrac oro, et oro gauça honac ciren, eta obra honac : eta nola bekhatiac ezpaitu deus honic, ez tu hura Iencoac eguin : eztila herioac deus onic, segur da, ceren ez tu içaterie, ez deusbat da, priuationebat, ecinduqué deus honic. Philosophiac dio, *Omne Ems est bonum,* içaté oro hon dela ; herioac ez tu içateric, ezta beraz hon, baina da gaixtoa, cruela, eta horribla.

Ioau. 15

[152]

Boccius

Genes. 1

Sapi. 1

Herioa eztu Iencoac egun, hargatic eztu içateric, ez deus honic. Hala dio Escritura Saindian Salomon ciburrac, *Deus mortem non fecit, nec latatur in perditione viorum.* Iecoac eztu egun herioa, eta eztu hart-
[153] çen placeric bicien gualcian, eta ruinan, hargati da herioa, gaixloa, belça, eta monstrebaten paré, itchusia, poçoaz bethia, maradicatia, eta hastiogarria.

Herioa dela ez deusbat segur da, ezta priuatione bat baiei, priuationia ez deusbat : hambatequi herio, ez deusa, eta priuationia, hirurac bat.

Hori bera errandu Evangelistac, *Omnia per ipsum facta sunt, sine ipso factum est nihil.* Iencoac egun ditu gauacae oro, eman orori beré içatia, baina eztu egun ez deusa, baita herioa, biciaren etsaya, eta içale ororen priuationia.

Iencoac egun du celia, eta lurra, beré boteré infinitoaz, laur elemen-
tac, celian eta lurrian diren gauçac oro, visibiliac, eta inuisibiliac,
sensibiliac eta insensibiliac, spiritualac, eta corporalac, baina ez herioa,
ecin eguiten cian eré, ceren ezpaiteen possíble egun leçan, gauça possíbiliac oro eguiten a hal ditu Iencoac, baina ez impossibiliac, halaco cen herioa ; çoin baita privationebat, eta ezdeusbat, erran den beçala.

Ezta behar hargati deus erran Iencoaren botere handiaren contré, hori da perfectionebat harten, eta ez imperfectionebat, *Non esse effectus, sed defectus.* Eguiten ahal diren gauçac, egun ditu, edo egunen placer badu, placer dianian, guré Iencoac, baina ecin eguiten diren gauçac, ezta eman baren hoteriari, eta ciburciari egun ditçan, falta, eta estakuria ezta harten, baina ecin eguiten den gauçan berian, gauça impossibilian.

Iencoaren obretarie berheteiric egonda herioa, hala nola adar idorra, eta ayhartia trenkhaturic baitago cibaincetic, eztu vhen lekhurie, ez içateric Iencoaren creaturen libru handi harten, hanti campoan egonda, eta egonen eternitate oroz.

Nore egindu heratz, edo nontic ginda herioa ? Errandugu lehen arrapostu hori : *Per unum hominem peccatum intravit in Orbem, & per peccatum mors.* Guiçòbat dela causa ginda eta sarthu bekhatia, eta bekhatiac ekharridu ondoan herioa.

Aita eta ama gaixto harc ekharridu, eta sorthu alhaua gaixto hura, ezdeusac emádu ez deusa, itçalac itçala, priuationiac priuationia, poçoac poço, gaixtoac gaixtoa.

Adamec beré desobedienciaz hautse cian Iencoaren mania, eta galdu Iencoaren gratia, hantic ginda bekhatia, bera ginda nehorc manatu gabé, gratiaren priuationiac, emandu bekhatia, eta bekhatiac emandu herioa, baita biciaren priuationia.

Neuré adesquidia, dugun akhaua hirur guarren arracoñ haur,

[153]

Ioan. I

[154]

Rom. 5

ikhussi duę, eta ençun asqui garbiqui nahi baçundian ber, herioaren beguitartia nolacoa den, mira eçaü, eta considera egunian behin haren coloré belça, horriblia, eta icigarria, aguian haren veldurra eta haren memoria curé bihotciä sarturic orhituco cira curé hilciaz, onsa hilceco.

Salbatu nahi denac, eta Iencoaren veldurra dianac, comunzqui beré gogoan herioaren orhitmena, aipamena eta veldurra, eduquitendu eta lotzaz herioac trompa deçan, beró goardetan egoitenda.

In vittis
Patrum [155] Arsenius deithatu içan den ermita saindubatec, çoin bici baitcen Arcadius, eta Honorius, Emperadoren demboram, ikgussiric beré buria herioaren orenian, eta articulu terrible hartan, coloria gualduçian, eta coragia harequin, haren coloriaren câbia, eta haré coragiaren flakhacia, remarkhaturic haren dicipuluec, hassi ciren hari erraiten, *Quid pater iam times*, guré aita, eta guré nabusia, erraguçu, ceren veldur cira, Ermita saindiac errapuesta eman cian beré dicipuluer, *Semper in illo timore viri*. Neuré haurrac, neuré dicipulu maitiac, egundanoz gueros veldur borequin bici içaniz, eta banoa veldur borequin.

Neuré adesquidia, saindubat herioaren veldurriä biciric, haren veldurra bihotcian hiltcen bada, cer eguiñen dugu guc bekhatian guré bicia, eta guré dembora empleguatcen baitugu. Den othoy, biciä, eta hilian, herioaren veldurra curé gogoan, bidé hontan ez salbatcecoz, non nahi cira salbatu? goaçan aiteina bidé hontan dugun ikhussi onsa hilceco bidiaren ené azquen arraçoña, bideco pena, eta fatigua, ezta gogor, dulcé, eta emé da, Iencoaren cerbutcian eta guré arimen prouetchuan hartcen denian.



[156]

LAVR GARREN

*arraçoña porogatceco, onsa hilceco
bidia, dela herioaz orhitcia.*

MEDAILLA behar dugu berteé alderat itçuli, eta edirenen dugu herioac, balin badu beguitarte belça itchusia, terriblia eta icigarria aldé batetic, dian beçala, eta erakhussi dugun beçala hirur garre capitulian, berteé aldetic badiala beguitartebat, ederra, onesta, eta maitagarria, eta oro consideraturic, herioa behardugula, ohoratu,

maitatu, eta haren yeldurra vteiric a la part, Iencoaren borondatiaren pian, haren plácer a hala bada, haren orena gin dadinian, boztario, eta alegrancia handirequi, hura recebitu.

Principalqui gendé pherestuec, Iencoaren cerbitçariae, Iencoaren veldurrian, eta haren amorioaren pian bici diren gendec, guehiago ocasioné duté alaguezatececo, eciez tristetecco, herioaren aiphamenaz, eta haren gitiaz : bargati dio Propheta Royalac, *Prætiosa in conspectu Domini mors sanctorum eius*, Saindien hilcia valiosa, preciosa dela, alegranciaz, eta consolamenduz bethia dela, Iencoaren aitcinian, haur da ene azquen arraçoiña, eta diot, herioaren itchusimena, deformitatia, eta horriblé tarçuna dela causa, haren veldurrez nahi ezpaguira, harçatz orhitu, amens, amorioz berere, haren edermenac, ikhussiric ~~na~~ eta harc guri emaiten dutian abantailes, eta prouetchuez orhituric, obligatu guirela haren veldurric ez vkheitera, haren maitatcerera, harçatz orhiteera, nahi baguira onsa bici, onsa hil, eta salbatu.

Psal. 113.

[157]

Socrates Philosopha çuhurra egun batez interrogatu içan cen, cer moldez, eta formaz erresumabat, prouinciabat, herribat onsa, et huros-qui, guidateen, regitzen eta gouernatzen abal cen, errapuesta bertan eman cian, erresumabat huros, eta prospero içanen cela, gaixtoa onsa punituric, eta honac, onsa recompensaturic, bici halira.

Tim. 2

Guré Ienco honac beré forman muudu haur gobernatzentzu, edo veldurrez, edo amorioz, nahi gutu gu oro salbatu, handiac, eta chipiac, hartacoz ere oro eguiñ eta creatu gutu, apostoliae errandu hargatil, *Deus vult omnes homines saluos fieri*, nahidu Iencocac/guiçon oro salbadin, eguindu paradusia honen eta infernu gaixtoen ; eta ceren parodusia ecin ardiasten baitugu, bekhatu mortaler ibessi eguiñ gabé, eta haren manu saindiad beguirat gabé, recompensu eternala proposatu du guré beguien aitcinian, celuko gloriaren edermen, eta hanco delicia h andien esparançaz, eta desircundiaz, guré bihotzen beraganat ioan eraciteco, eta tiratceco : eta recompensiaren amorecatie, nahi ezpagundi deus eguiñ, amens ifernuco phenen, eta tormenten veldurrez, guré bekhalietaric, guré guibel eraciteco, eta haren borondaté saindiaren compli eraciteco, ifernia proposatu du guré beguien aitcinian, amorecatie edo veldurrez, edo amorioz guré arima gaichoac salba litçan iagoiticoz.

[158]

Eta ceren, ez phenen veldurra, ez recompensien amorioa ecin baituguegu herioaren, veldurra edo amorioa gabé, eguiñ dut eguiñ ahala, haren veldurrare çuré bihotçare barniā sar eraciteco, haré terrible tarçuna, eta horrible tarçuna çuri aitcineco capituliā eracussiric, orai, nahidut, Iencoré socorria badut ber, ené trabaillu appurrari, beré conclusionaren, eta baré coroaren emaiteco, çuri eraklussi laur gar-

ren, eta azquen capitulu hontan, herioaren edermenac, haren begi-tarlé ederra, eta maitagarria, eta harc guri orori, gu nor baguira, emaiten dutian auantaila handiac ikhussiric herioa dela, ororen gaixtoena aldé batetic, eta ororen hobena bercé aldetic, haren veldur-rez, edo amorioz, haren orhitmena, curé gogotic eztadin iagoiti aparta.

Lehenic herioac sendotcen gutu, eta deliurateen mundu hontaco, eritarçun, miseria, calamitaté orotarie mediú barbarec, dembra appurbaten guré gorpitzat beré doloré, min, plaga, eta çaurietarie, sendotcen ditusté, mina eta doloria solaiateen, arhinteen, baina arraz iagoiticoz, ecin diroté. Ezta mediçuric herioaren paré denie, harc orotarie iagoiticoz sendotcen gutu, eta guré minac arraz iagoiticoz chahatcen, eta akhaçateen.

Guiçona, dio lobec, amaré sabeletic ialquiz gueroz, arté laburrez, gaiçac, eta miseriacl aldé orotarie inguru, inguru çabateen du, cer-

Iob. 14

ratcen, eta vrichquité *homo nat⁹ de muliere breui viens tēpore repletur multis miscrijs*. aurqui tristé da, guero alaguerra, aurqui osso,

[159] eta sendo, guero eri, eta flakho, behin hotz, guero hero, behin aberatz, guero paubré, eta miserablé, ardura cambiatcenda, ezta behin eré ohicoa : deusec eré ecin contenta diro, baina herioac, beré phena orotarie sendoturie, eta deliuraturie beré aisé handian eçartendu, hambar-tequi herioac*guiçonari abantailla handirie, eta hontarçun handirie handiric emaitendu. Apostoliac baçaquian mundoaco miseriend berri, eta herioac guri eguiten dian honquiaz, erran dianian, *Infelix homo, quis me liberabit à corpore mortis huius?* Ala ni bainitz guiçon miserablia, norc ni delibratuco nu, gorpitz mortal hontarie ?

Ezta deus mundian, boteré dianic, herioa bera baici, guré deli-bratceco, mundoaco tribulatione corporal, eta demboraletarie. Harta-coz dio Apocalipsian, *Absterget Deus omnem lachrimam ab oculis sanctorum, etiam non erit amplius, neque luctus, neque clamor, neque neque dolor erit ultra.*

Apoc. 19

Iencoac vehucatuco dutiala nigarrac oro beré saindien beguitarie, ezteila içanen guehiago, hazperenic, cincoriric oihuric, doloreric, ez desplaceric. Eta bercé passaiebatetan dio, *Non esurient, neque sitiunt amplius, neque cadet super illos sol, neque illus aestus.* Gossiac, ez egarriac eztitu guehiago ioren, ez hunquituré, beroac, ez hotçac eztitu haboro erreren, ez carrointaturen.

So eguiçu çonbat abantailla, eta prouetchu herioac emaiten dian guiçonari, guiçona nor bada, iustoia bada, Iencoaren gratian herioac atrapa badeça ber, handira cinac, eta minac, handa pundia, *Aqui está el punto.*

Dugun bada erran herioac guiçonari gratia eta cortesia eguiten diala, haren beguitartia, ederra dela, eta maitagarria, eta haren gitiac,

Apoc. 7

eztiala behar guicon pherestua, Iecoaren cerbutçaria lotsatu, eta ikbaratu, baina au contré alegueratu, eta consolatu.

[160]

Segontian, herioa da anderé noblia, galanta, liberala, eta maitagarria, edequitendu guiconari, eta emaztiari bat edo bigua, edo hirur, edo nabi bacira guehiago, baina, baten emaitendu ehun, biden mila, hiruren milionebat, eztaquit ceinbat, edequitedu bicitce corporala, eta dëborla, baina emaiten beré hala bicitce spirituala, eta eternala, corporalac eztu comparationeric, spiritualarequin, ez demboralac, eternalarequin, a la baina, spirituala emaiten du coporalaren, eta eternala demboralaren, nore eztu erranen herioa delo anderé noblebat, eta liberalbat ?

Persona saindiare eta iustoaren, mundu hontaco bicia honda, eta prouechutako, ceren beré obrr honen medioz, lencoaren gratian, eta amorioan baren meritia bethi goiti baitoa, et caritatian deno, meritia hala hala gorateen, eta auançateen baita, cere, *Charitae est radix, & principium merendi*, Caritatis baita meritu ororen çaiña eta hatzarria : baina ceinbat munduko bicia iustoaren hon baita, herioa hobeda, eta preciosago, biciac emanen dro meritu, baina ez recompensia, eta iustoac ezpadeca persevera, bere meritian, galducodu beré meritaren valioa oro : Hobeda bada herioa iustoaren, eciez bicia, ceren herioac emaiten betrauco beré coroa, eta recompensia, iustoari. Hayatic cioian Apostoliac, *Mihi vivere Christus est, mori lucrum*, ene bicia Iesv-Christo da, baina ene irabacia, eta ene auantailla handia da hileia, Erran nahidu Apostoliac, mundu hontan, Iesusen gratian, bicitciaz, ohoré dut placer, consolatione eta esperança, baina hileia ené hobeda, harc emanendraut neuré coroa, irabacia, eta recompensu handia, *mori lucrum*.

Philip. 5

[161]

Maytaçalia, ezta bici bera baitan, baina bici da gauça maitatia baitan, ceren amorioac, maitaçalia eramaiten baitu, eta transformateen gauça maitatia ganat.. Hala errandu Platonec, *Amans magis est in re amata, quam in amante*, eta nola Apostoliac maité baitcian Iesv-Christo, eta IESV CHRISTOC Apostolia, IESV-CHRISTO bicecen Apostolian, eta Apostolia IESV-CHRISTO baitan, ceren batac bercia, beraganat, amorioac tiratcen eta arrapaten baitcian. Aithormen eta confessione hura eguin du Apostoliac berac, *Viuo autem iam non ego, viuit vero in me Christus*, eniz ni bici, baina Iesvs ené Iauna bicida nitan, Erran nahidu Apostoliac, Iesusec arrapatu du ené arima, ené bihotca, ené borondatia beraganat, nic barganat dudan amorio saindia dela causa, eta nic hala hala Iesusen bihotca tiratudut nehaurganat, harc niganat dian amorioa, eta gratia dela causa, halatan Iesvs bici da nitan, eta ni, Iesusetan.

Galat. 2

Bacian bada bacian Apostoliac ohoreric asqui, esperança, eta consolatione franco, IESVS-CHRISTO Iaunaren gratian, içatiaz, harequin

biciteiaz : baina prouechua, eta irabacia handiago hilciaz, *Mori lucrum* ; berac errandu egua eder hori, nic eré diot, haren ondoan, iustoen hobe dela herioa, eciez bicia ; batac emaitendu esperança, eta berteiac coroa, hambatequi dugun oroc erran, eta confessa, herioa anderé noblia dela, liberala, eta maitagarria, eta iustoen hilcia, hurosa dela eta benedicatia.

[162]

Berritz diot, pretiosa *In conspectu Domini mors sanctorum eius*, saindien hilcia, valiosa dela, eta preciosa Iencoaren aiteinian, obra honac, barurac, orationiae, humilitatia abstinentia, mortificationia, meçaren deuotqui ençutia, ardura confessatia, pobrecia, leku saindien visitatia, emazte alhargunē, haur çurteen sokhorritcia, elicer, ospitaler, pobre amoina, eta honqui eguitia, munduco voluptate, placer, vanitater ihessy eguitia, eztira honqui gin mundu hontan, baina bai Iencoaren aiteinian, hargati dio, *In conspectu Domini*, berte mundian, Iencoaren aiteinian, han v Khanen duté beguitarté : obeda beratz, iustoen herioa, eciez bicia.

Precios da, diot orano, iustoen hilcia Iencoaren aitcinia, ceren hayen bilciac beré penen, eta beré odolaren precioaz, eta despeadioz immortalitatia crosten baitu, eta beré vertutiaren perseveranciaz beré coroa recebitcen baitu, hala dio S. Cypriano Iaunac : *Pretiosa mors haec est que pretio sui sanguinis emit immortalitatem, quæ accepit coronam de consumatione virtutis.* Herio hora da pretios, eta valios, ceren gauza appurraz, eta mendriaz, baita hilcé hona, obra honac irapaizten baitu gauza hondia eta infinitoa, baita celuko loria eternala.

S. Cypri.
Epist. & Mart.
lib. 2 epist. 6

Pro. 14

[163]

Busæus
in suis Med.

Philip. 1

Iustoac eztu ansia mundiaren, ez munduco placheren, harc beré esperançac oro eçarten ditu Iencoa baita, hileé honian, hargati dio spiritu saindiac, iustoaz minço denian, *Sperat iustus in morte sua.* iustoaren esperançac oro beré herio honian direla. Iusto eguiaz da alaguera, eta guecurrez tristé, cäpoan tristé, barnian aleguera, beré veldurrian alaguera da, eta beré alegrancian veldur, boztarioz eguitendu nigar, eta nigarrez dagoela, alagrancian bicida, dio doctor deuotac, *Iustus timendo gaudet, & gaudendo timet, lachrimando gaudet, & gaudendo lachrimatur.* Hobe da beraz iustoen herioa, eciez bicia eta guehiago desirateenduté beré hilcé hona eciez munduco bicia, eta mundu hontaco içatia.

Apostoliac berritz hayana itxul nadin, onsa hiciric fida baitcen beré hilcé honari, hilcia egun oroz desirateen cian, eta luçé caucon, noiz hilen cen, beré Iesvs maitiaren ikhuzteco, hala dio berac, *Cupio dissoluiri, & esse cum Christo.* Nahi ninçaté hil Iesv-Cumistro Iaunaren companion biciteco, ené arima mundu hontan deno, bere gorpiteian estekhaturic deno, cartcelian, eta presonteguiian beçala bicida, ezta

içanen iagoiti beré aisan, eztu vñhanen placeric, ez phaussuric, carteelu hartarie libratus deno, eta celurat iganic, Iencoaren loria eterna posseditu diano.

Dauid Erreguaic eré carcelu hartarie ialquitia desirateen cian, beré libertatiaren, eta beré placeren lencoа baitan harteeco, demanda eder, eta iusto hora Iencoari galatcen cian, beré otoitctan, *Edue de carcere animam meam ad confitendum nomini tuo Domine*. Iauna olhoy, so eguidaçu, carteelu hontarie liura neçaçu, idoqui neçaçu lurretic, eta mundutie, curi neuré aisan, eta ené gogara, neure amorioaren, neuré laudarioen, neuré adorationen rendatceco, çuré icen saindiaren ené gogora, laudatceco, confessatceco, eta benedicacelo. Prophela honec, herioa maitiago cian, eciez beré bicia, eta ceren oztugu guc eré erranen, herioa maitagarri dela, eta ezbatera hastiogarri.

Comunsqui saindu, eta iusto direnec, horioa maité duté eta eztira bateré baren veldur. Orano dio Dauid Prophetac, *Quemadmodum desirat ceruus ad fontes aquarum, ita desirat anima mea ad te Dens*. Hala nola, orkhatçac egarri denian hora, eta ithurria desirateen baitu, edateco, eta beré egarriaren hilceco, eta frescateco, halahala, Iauna, ené arimac eré nahiçulu ikhussi, behiatcen duçu çuganat gitera, eta lucé ciaucoçu noiz çugana helduco den. S. Ambrosioc eré erraiten cian, *Non timeo mori, quia bonum Dominum habemus*. Euiz heldur herioaren, ceren iaun honbat dugu.

